Jarraian, alkate-presidente jaunak gogorarazten du, jakina denez, hil honetako 14rako -igandea- dagoela deituta Euzkadiko udalen biltzar nagusia, Euskal Estatutua onartzeko. Badakigunez zenbait udaletako udalbatzek erabaki dutela txistulari-bandarekin joatea, eta beste batzuek baita musika-bandarekin ere, proposatzen du, ekitaldi eder eta historiko horren sustatzaile izanik, udalbatza osoa joatea Euzkadiko Udalen Biltzar Nagusira, herriko zutoihalarekin eta txistulari-bandarekin. Horrela onartu da aho batez¹⁵.

1931ko ekainaren 14an, euskal udaletako ordezkari biltzar bat egin zen Lizarran eta 480 ordezkari joan ziren bertara (520 udalerrri inguru, Nafarroakoak barne).

Lizarra antzokian, egitarauak zioen moduan, 11:00etan hasi zen desfilea, buruan lantzari talde bat zela; atzetik Lizarrako dultzaineroak eta hainbat herritako txistulari-bandak zihoazen, eta jarraian, Arabako udalerrriak, bakoitza bere bandarekin, eta Gipuzkoako udalerrriak bandarekin eta Azpeitiko bandarekin; ondoren, Nafarroako udalerrriak, Lizarrako bandarekin eta arreta handia piztu zuten zutoihal historiko batzuekin. Azkenik, segizioa amaitzeko, Bizkaiko udalerrriak. Getxoko, Mundakako, Elorrioko, Bermeoko, Azpeitiko, Zumaiaiko eta Tolosako udalbatza osoak izan ziren beren bandarekin, eta desfilea itxiz Euskal Herriko alkatteen batzordea, 18 kidez osatua, aurretik zituztela Bergarako tronpeta-jotzaileak Batzar eta Gorte Subiranoen doinu zaharrak joz eta Iruñeko ezpata-dantzariak lagundurik. Jendetza izugarria zen, emozio sakona, eta herriak gogo biziz txalotzen zituen ekitaldia antolatu zuten udalerrriak eta alkateak¹⁶.

Nafarroako udalerrietako ordezkariak, Nafarroako biztanleriaren %89,5 biltzen zutenek¹⁷, beren probintzia estatutuan sartzearen alde bozkatu zuten, eta horretarako ezinbestekoa izan zen EAJren eta karlista katolikoen arteko akordioa. Galdetutako 548 alkatetatik 427k onartu zuten Lizarrako Estatutua; beraz, gehiengo municipalista garrantzitsua lortu zuten horrela. Horien artean zegoen Zumaiaiko alkate Victoriano Arrateren baiezkotza irribila. Euskal Estatutuari buruzko plebiszitu hori dela eta, udal-artxiboan zenbait taxi-faktura aurkitu ditugu; aldundian aurkeztu zituzten eta zenbatekoa 221,40 pezetakoa zen.

tante bien acogido por los partidos políticos, aunque también hubo unas cuantas reticencias por parte de los socialistas y republicanos vascos. El día 7 de junio el Euzkadi Buru Batzar del PNV acuerda introducir en el proyecto de *Eusko Ikaskuntza* diversas modificaciones, elevando de dos a diez años la residencia mínima consecutiva en la región para los no vascos que quieran adquirir la ciudadanía vasca; y reservando al Estatuto las relaciones con la Santa Sede.

El día 11 de junio se reunieron en Azpeitia 81 representantes de ayuntamientos de Gipuzkoa para analizar el Estatuto de Autonomía redactado por Eusko Ikaskuntza. A la misma asistirá una representación de Zumaia.

Seguidamente el Sr. Alcalde -Presidente hace presente que, como es sabido, está convocado para el domingo, día 14 del actual, la magna asamblea de ayuntamientos de Euzkadi, para la aprobación del Estatuto Vasco. Y que teniendo noticias de que varios ayuntamientos tienen acordado acudir a la misma en corporación, con sus bandas de "txistularis" y algunos también con la de música, propone promotores de este hermoso e histórico acontecimiento, acordado a la dicha Magna Asamblea de Ayuntamientos de Euzkadi, en pleno y en corporación, con el pendón de la Villa y con la banda de "txistularis". Así se acuerda por unanimidad¹⁵.

El día 14 de junio de 1931, una asamblea de delegados municipales vascos, a la que acudieron 480 representantes (sobre 520 en la que se incluía a los municipios de Nafarroa) se reunirá en Estella-Lizarra.

En el teatro Lizarra, como indicaba el programa, a las 11:00 horas se inició el desfile figurando en cabeza un grupo de lanceros, detrás marchaban los dulzaineros de Lizarra, bandas de txistularis de distintos ayuntamientos y a continuación los ayuntamientos de Araba con sus banderas, ayuntamientos de Gipuzkoa con sus banderas y la banda de Azpeitia; ayuntamientos de Nafarroa con la Banda de Lizarra y viejos pendones históricos que llamaron profundamente la atención. Finalmente cerrando esta comitiva la diferentes ayuntamientos de Bizkaia. Hubo representación en pleno de los ayuntamientos de Getxo, Mundaca, Elorrio, Bermeo, Azpeitia, Zumaia y Tolosa con sus banderas y cerrando el desfile la comisión de alcaldes del País Vasco compuesta por 18 miembros, precedida por los trompeteros de Bergara que atacaban las notas de los viejos sonos de las Juntas y Cortes Soberanas, escoltada a su vez por los Ezpatadantzaris de Iruña, siendo el gentío inmenso, la emoción profunda, en el cual el pueblo aplaudía con entusiasmo a los Ayuntamientos y alcaldes organizadores de estos actos¹⁶.

Los Delegados de los municipios de Nafarroa, que abarcaban el 89'5% de la población de Nafarroa¹⁷, votaron a favor de incluir a la provincia en el estatuto para lo que fue

¹⁵ 1931ko ekainaren 14ko Euskal Udalen Biltzar Nagusira udalbatza osoa joatea erabaki du aho batez udalbatzak. Zumaiaiko Udaleko Artxibo Historikoa (ZUAH). Akten liburua, 24 zk., 35. or. / Aprobación por unanimidad del pleno a la asistencia por parte de la corporación a la Magna Asamblea de Ayuntamientos de Euzkadi del 14 de junio 1931. Archivo Histórico Ayuntamiento de Zumaia (AHAZ). Libro de actas N24, p. 35.

¹⁶ Zumaiaiko Udalen Artxibo Historikoa (ZUAH). Akten liburua, 24 zk., 48. or. / Archivo Histórico Ayuntamiento de Zumaia (AHAZ). Libro de actas N24, p. 48.

¹⁷ Ez dugu ahaztu behar Nafarroako udal gehienak indar kontserbadoreen esku zeudela, batik bat karlisten esku. Horregatik, Elizarekiko Konkordatua ezinbesteko baldintza izan zen, haien babesa lortzeko. / No debemos olvidar, que la mayoría de los ayuntamientos de Nafarroa estaba en manos de fuerzas conservadoras entre las que destacan los carlistas. Por ello, el punto del Concordato con la iglesia será una condición indispensable para conseguir su apoyo.

or.

Zumaiak 3.144 biztanle zituen 1931n. 1931ko ekainaren 28an Espainiako hauteskunde orokorrak egin ziren, eta bozketak emaitza hauek utzi zituen herrian:

- **Antonio Pildain, independentea, 538 boto.**
- **Rafael Picabea, independentea, 538 boto.**
- **Jesús María Leizaola, Eusko Alderdi Jeltzalea, 538 boto.**
- **Julio Urkijo, tradizionalista, 537 boto.**
- **Juan Usabiaga, errepublikanoa, 132 boto.**
- **José María Amilibia, errepublikanoa, 131 boto.**
- **Justo Gárate, Eusko Abertzale Ekintza, 131 boto**
- **Enrique de Francisco, Francisco, Alderdi Sozialista, 130 boto.**
- **Votos en blanco, 1 boto.**

Datu horiek aztertuta, hautagaitza errepublikano sozialistak izandako arrakasta nabarmendu behar da. Zumaian urte horretan zenbateko mugimendu soziala zegoen erakusten digu horrek; izan ere, 8 ordu baino lehen kalean zen langile-mugimenduen desiderata, besteak beste 8 orduko laneguna, soldaten igoera, langabezia-subsidioa eta nekazaritza-erreforma eskatzen zituena. Erakunde kontserbadoreen hegemonia sendotu egin zen 1931ko ekaineko legegintza-hauteskundeetan; izan ere, "Lizarrako Estatutua babesteko hautagaitza" izenekoak (abertzaleek eta tradizionalistek osatua) botoen %80 baino gehiago lortu zuen. 1933ko hauteskunde-zatiketak berekin ekarri zuen EAJ herriko hegemonia politikoaz behin betiko jabetzea, botoen %45 lortuta; jarraian izan zituen Unión de Derechas, botoen %26rekin, eta PSOE, %20rekin. 1936ko hauteskundeetan EAJren pisua areagotu egin zen, botoen %54 gairitu baitzuen, nahiz eta eskuinak ere gorakada handia izan (1933an %26 eta 1936an %32), Frente Popularreko ezkerren kaltetan.

1931ko uztailaren 8an, Zumaiako Udalak ohiko bilkuran honako hau eztabaidatu eta onartu zuen, beste gai batzuen artean:

Victoriano Arratek, Eusko Alderdi Jeltzaleko alkate jaunak, hitz egin eta adierazi du, ezen, prentsaren bidez guztiek jakingo duzuen moduan, euskaldunen gehiengoak azkenaldian hautatutako Gorteetarako diputatuek Gobernuari eskatu diotela Probintzietako Batzorde Kudeatzaileak kargutik kentzeko, demokraziaren eta moralaren aurkakoak direlako; halaber, adierazi du ezen dudarik gabe argi dagoela batzorde horiek izendatzeko modua, zuzena eta pertsonala, antidemokratikoa izan zela, eta, gaur egun, herriaren eta Euskal Herriaren borondatea hain argi azaldu den honetan, are antidemokratikoagoa dela haien funtzionamendua; era berean, adierazi du ezen demokraziaren oinarritzko kontzeptua herriaren subiranotasuna dela eta, beraz, gipuzkoar gehienek borondateak eduki behar duela ordezkaritza handiena Batzorde Kudeatzaileetan edo Aldundietan, azken hauteskundeetan eta aurreko udal-hauteskundeetan hain garbi nabarmendu zen moduan; eta uste du ezen udalek proportzionalki izendatuta eratu behar dela behin-behineko Aldundia. Eta, esandako guztiari jarraiki, zera proposatu du: Gorteetarako hautatutako euskal dipu-

decisivo el acuerdo entre el PNV y los católicos carlistas. El Estatuto de Estella fue aceptado por 427 de los 548 alcaldes a los que se les hizo la consulta. consiguiendo así una importante mayoría municipalista, entre los que se encontraba el sí rotundo de Victoriano Arrate como primer edil de Zumaia. Con motivo de este plebiscito sobre el estatuto vasco hemos encontrado en el archivo municipal diversas facturas de taxi que se presentaron en diputación por un monto de 221,40 pesetas.

Zumaia en el año 1931 cuenta con 3.144 habitantes. El día 28 de junio de 1931 tiene lugar las votaciones para las elecciones a diputados, donde dejaron los siguientes resultados:

- **Antonio Pildain, independiente, 538 votos.**
- **Rafael Picabea, independiente, 538 votos.**
- **Jesús María Leizaola, Partido Nacionalista Vasco, 538 votos.**
- **Julio Urkijo, Tradicionalista, 537 votos**
- **Juan Usabiaga, Republicano, 132 votos**
- **José María Amilibia, Republicano, 131votos**
- **Justo Gárate, Acción Nacionalista Vasca, 131 votos**
- **Enrique de Francisco, Partido Socialista Obrero Español, 130 votos.**
- **Votos en blanco, 1 voto.**

Mediante estos datos cabe destacar el éxito obtenido por la candidatura republicano socialista, lo que nos enseña el gran movimiento social que se estaba dando en Zumaia durante este año, llevando a las calles en menos de 8 horas el *desideratum* de los movimientos obreros como la jornada laboral de 8 horas, incremento salarial, subsidio del paro y reforma agraria. La hegemonía de las organizaciones conservadoras se reafirmó en las elecciones legislativas de junio de 1931, en las que la llamada "Candidatura defensora del Estatuto de Estella", formada por nacionalistas y tradicionalistas, obtuvo más del 80% de los votos. La fragmentación electoral del 1933 supuso, ya definitivamente, que el PNV se hiciera con la hegemonía política en la villa al lograr el 45% de los votos seguido por la Unión de Derechas con el 26% de los votos y del PSOE con el 20%. Las elecciones de 1936 supusieron un aumento del peso del PNV, que superó el 54% de los sufragios, pese a que la derecha experimentó un importante avance al pasar del 25 en 1933 al 32% en 1936 en detrimento de la izquierda del Frente Popular.

El día 8 de julio de 1931 el ayuntamiento de Zumaia en sesión ordinaria, con asistencia a concejales, entre otros temas acordados, debate y aprueba lo siguiente:

El Sr. Alcalde, Victoriano Arrate, del Partido Nacionalista Vasco hace uso de la palabra y manifiesta, que según se habrán enterado todos por la prensa, los Diputados a Cortes últimamente elegidos por la mayoría de los vascos, han pedido al Gobierno, el cese de las Comisiones Gestoras Provinciales, por antidemocráticas y antimorales; que desde luego, es evidente que la forma de nombramiento de dichas Comisiones, directo y personal, fue antidemocrático, y hoy que tan claramente se ha manifestado la voluntad del pueblo y del País, es aún de antidemocracia más marcada su funcionamiento; que el concepto esencial de democracia es el de soberanía del pueblo y por lo tanto, es la voluntad de la mayoría de los guipuzcoanos, tan palpablemente demostrada



Victoriano Arrate, Zumaiaiko alkatea, Autonomia Estatutoaren aldeko udalerrien mugimenduko protagonista nagusietakoa izan zen. (AGUIRRE, J.A: Entre la libertad y la revolución. 1930-1935. Geu, Bilbo, 1976) / Victoriano Arrate, alcalde de Zumaia, fue uno de los protagonistas del movimiento municipalista a favor del Estatuto de Autonomía. (AGUIRRE, J.A.; Entre la libertad y la revolución. 1930-1935. Bilbao: Ed. Geu, 1976tik hartuta)

tatuek Gobernuari eskatutakoarekin bat eginez, udalak, azkenaldian herriaren borondatearen arabera aukeratua, eskaera adeitsua egin dezala gaur egungo probintzietako batzorde kudeatzaileak berehala kentzeko, foruen eta demokraziaren aurkakoak direlako, eta, haien orde, agindu dadila udalek zuzenean eta proportzionalki izendatuta eratu daitezela behin-behinean.

Azpeitia jauna¹⁸ alkatetzak proposatutakoaren aurka dago, uste duelako batzordeak behar den moduan daudela, iraultza-garai aldakor batean gaudenez logikoa baita Errepublikako behin-behineko Gobernu lagunez baliatzea Batzorde Kudeatzaileak eratzeke, une zail hauetan laguntza eta babesa eskaini behar baitiote; bestalde, uste du kudeatzaileak lan ona egiten ari direla Aldundietan, eta adierazi du horren adibide ona dela udal honetako zinegotzi-kudeatzailea, Juan Arratibel jauna, guztiek txalotzen baitute hura egiten ari den lana, eta horrela ager dadin eskatu du.

Zubia jauna¹⁹ ere alkateak esandakoaren aurka agertu da, ulertzen duelako Gobernu dela herri iraultzailearen ordezkaria eta behin-behineko garai honetan botere guztiak beregan hartzen dituen, eta, horrenbestez, desegokitzat jo du alkatetzaren proposamena.

en las últimas elecciones, y en las municipales anteriores, la que debe tener la mayor representación en las Comisiones Gestoras o en las Diputaciones; y que en la actualidad integran la Comisión Gestora, entiende que la Diputación provisional debe constituirse por proporcional designación por los Ayuntamientos. Y, en atención a todo lo manifestado, propone; que el Ayuntamiento adhiriéndose a lo solicitado al Gobierno por los Diputados a Cortes Vascos, últimamente elegidos por voluntad del País, eleve respetuosa petición de que cesen inmediatamente las actuales comisiones Gestoras provinciales por antiforales y antidemocráticas, y se disponga que sean provisionalmente constituidas por designación directa y proporcional de los Ayuntamientos.

El Sr. Azpeitia¹⁸ se opone a lo propuesto por la Presidencia por estimar que las Gestoras están en su lugar, por hallarnos en un período revolucionario y provisional y ser bien lógico que el Gobierno Provisional de la República se haya valido de sus amigos para constituir las Comisiones Gestoras que deben auxiliarse y prestarle su apoyo en estos difíciles momentos; y que los Gestores, por otra parte, están realizando una buena labor en las Diputaciones, de las que tenemos un buen ejemplo en el Sr. Concejal-Gestor de este Ayuntamiento, D. Juan de Arratibel, quien, con aplauso general, está llevando a cabo una labor feliz y pide que así conste.

También el Sr. Zubía¹⁹, hace uso de la palabra para oponerse a la propuesta formulada por el Sr. presidente, por entender que el Gobierno es el representante del pueblo revolucionario y

¹⁸ Unión Republicanako ordezkaria udalean. / Representante de Unión Republicana en el Ayuntamiento.

¹⁹ Unión Republicanako ordezkaria udalean. / Representante de Unión Republicana en el Ayuntamiento.

Eztabaida luzea sortu da, eta alkate jaunak, gaiari buruz nahikoa eztabaidatu dela iritzirik, bozketa egitea erabaki du, bere proposamena onartzen den ala ez jakiteko.

VBaiezko botoa eman dute Arrieta, Elorriaga, Esnal, Lartigue, Betondo eta Arrate jaunek (Eusko Alderdi Jeltzalea); eta ezezko botoa eman dute Urruzuno, Zubia, Arrizabalaga eta Azpeitia jaunek (Alderdi Errepublikanoa). Sei boto lauren kontra izanik emaitza, onartuta geratzen da alkatearen proposamena²⁰.

Hala ere, erregimen berriak eragindako aldaketa eta Errepublikak ezartzea ez zen politika hutsera mugatzen. Askatasun politikoko giroaren eraginez, ordura arte eztabaidatzen ez ziren gaiek garrantzia hartu zuten Zumaiako eguneroko bizimoduan. Adibide argi bat da irakaskuntzarena, errepublikanoen helburu bihurtu zena. Zumaiako kasuan, gehien interesatzen zena landa-eremuan eskolak ugaritzea zen:

Ondoren, probintziako Aldundiko Batzorde Kudeatzaile txit goreneko irakaskuntza-batzordearen zirkularra irakurriko da; han esaten da probintziako aldundiak akordioa lortu duela bost urteko epean ehun landa-eskola sortzeko, urtean hogeitaz beraz; auzune eta landa-eremuetan jarriko direla, eta landa-eskola horiek sortzeko onartutako oinarriak laburbilduz idatzi dira.

(...) urte honetan Azpeitiko barruti judicialari sortzea dagokion landa-eskoletako bat udalerrri honetarako eskatzeko asmoz (...)

Zinegotzi ordezkari jaun guztiak ados agertu ziren alkate eta alkateorde jaunek esandakoaren gainean eta, horrela, aho batez onartu da: Gipuzkoako Aldundi probintzialaren batzordeari eskatzea sor dezala landa-eskola bat bi ataletan, bata mutilentzat eta bestea neskentzat, udalerrri honetako Oikia auzoan, horretarako erabiliz, prestatuz eta baloratuz udalerrri honek auzo horretan duen eraikina (...)²¹

Zumaiako udalbatzak, estatutuaren defendatzaile sutsuak, aho batez adostu zuen Ministro Kontseiluko presidenteari eskatzea Euskal Estatutuari buruzko hauteskondeen data, modua eta baldintzak ez aldatzeko; era berean, beren gaitzespen indartsuaren eta suminduraren berri eman zuten, hauteskundeak aldatzeko hasitako kanpaina zela eta. Azkenik, Estatutuaren aldeko korrante horrek izandako ibilbideari jarraituz, Bizkaiko, Gipuzkoako eta Arabako udalak Gasteizera deitu zituzten, 1933ko abuztuaren 6rako. Bileran horretan oniritzia eman zitzaion Lizarrako Estatutuari, eta azaroaren 5ean plebiszitua egitea erabaki zen. 239 udalek onartu zuten proposamena, eta 28k bozkatu zuten aurka (horietatik 26 arabarrak ziren). Plebiszitu horretan lehenengo aldiz botoa eman ahal izan zuten 23 urtetik gorako emakumeek. Hauek izan ziren emaitzak: Bai: 459.255 boto. Ez: 14.196 boto.

el que asume todos los poderes en este periodo provisional, lo que hace que sea, cuando menos inoportuno, la proposición de la Presidencia.

Se origina un prolongado debate y el Sr. Presidente, considerando suficientemente discutido el asunto ha sometido a votación si se aprobaba o no su proposición.

Votaron que SI, los señores Arrieta, Elorriaga, Esnal, Lartigue, Betondo y Presidente (Partido Nacionalista Vasco); y votaron que NO, los señores Urruzuno, Zubia, Arrizabalaga y Azpeitia (Partido Republicano). En virtud, y por seis votos contra cuatro, es aprobada la propuesta del Alcalde-Presidente²⁰.

El cambio propiciado por el nuevo régimen y la implantación de la República, sin embargo, iba más allá de lo puramente político. El nuevo ambiente de libertad política hizo que tomaran importancia en la vida cotidiana de Zumaia asuntos que hasta entonces no se debatían. Un caso paradigmático es el de la enseñanza, que se había convertido en uno de los objetivos republicanos. En el caso de Zumaia, lo que más bien interesaba era el aumento de escuelas en el mundo rural:

A continuación es dada la lectura de la circular de la Comisión de enseñanza de la Excm. Comisión Gestora de la diputación provincial, comunicando el acuerdo adoptado por la diputación provincial, de crear en un plazo de cinco años, a razón de veinte cada año, cien escuelas rurales en la provincia, instalándose en barriadas o zonas rurales, y consignando en síntesis las líneas generales de las bases aprobadas para la creación de las referidas escuelas Rurales.

... Con objeto de solicitar para este municipio, una de las escuelas rurales que en el partido judicial de Azpeitia corresponden a crear en el presente año....

Todos los representantes señores concejales, expresaron su conformidad a las anteriores manifestaciones de los señores Alcalde presidente y Primer teniente, y en vista de ello y por unanimidad se acordó; solicitar de la comisión de la diputación Provincial de Guipúzcoa, la creación de la escuela rural con dos secciones una para niños y otra para niñas, en el Barrio de OIKINA de este término municipal, utilizando, habilitando y valorando al objeto el edificio que en dicho barrio posee este municipio...²¹

La corporación de Zumaia, ferviente defensora del estatuto, acordó por unanimidad solicitar al presidente del Consejo de Ministros que se mantuviera la fecha, forma y condiciones del comicio del Estatuto Vasco, manifestando, al mismo tiempo su enérgica protesta e indignación por la campaña iniciada para el desplazamiento del mismo. Finalmente, siguiendo con la trayectoria que llevó esta corriente Pro-Estatuto, el día 6 de agosto de 1933 se convoca a los ayuntamientos de Bizkaia, Gipuzkoa y Araba en Gasteiz. En esta reunión se dio el visto bueno al Estatuto de Estella-Lizarrá, decidiendo celebrarse un plebiscito el día 5 de noviembre, con 239 ayuntamientos que apoyaron la propuesta frente a 28 que votaron en contra (de los cuales 26

²⁰ Zumaiako Udaleko ohiko bilkura. Zumaiako Udalaren Artxibo Historikoa (ZUAH). 1931ko uztailak 8. / Sesión ordinaria del Ayuntamiento de Zumaia. Archivo Histórico Ayuntamiento de Zumaia (AHAZ). 8 de julio de 1931.

²¹ Zumaiako Udaleko ohiko bilkura. Zumaiako Udalaren Artxibo Historikoa (ZUAH). 1931ko uztailak 22./ Sesión ordinaria del Ayuntamiento de Zumaia. Archivo Histórico Ayuntamiento de Zumaia (AHAZ). 22 de julio de 1931.



Oikiako eskola gaur. / Actual escuela de Oikia.

Baina, zein zen kontserbadore nafarren jarrera eus-
kal estatutuaren gaiari buruz, Nafarroa proiektutik irten
eta gero? José María Huarte²² kontserbadore nafarrak
honako hau idatzi zuen *Diario de Navarra* egunkariko
azalean:

***Nahi den bateratzeari dagokionez, gure ikuspuntuak
ez du hori baztertzen, ezta gutxiagorik ere, iradoki den
moduan. Hala ere, exijitu gabe eta mespretxatu gabe,
ordena naturalaren arabera izatea nahi genuke. Hau
da, ez du Nafarroak izan behar herri anaiengana batu
behar duena; aitzitik, haiek itzuli beharko lukete ba-
nandu ziren enborra eta desertaturik atzean utzi zuten
etxera, beren izaeraren, autonomiaren, prestigioaren
eta berezko eskubideen galerarik gabe²³.***

Huarte Valderrazoko markesa zen, eta 1927tik 1936ra
Nafarroako Errege Artxibo Nagusiko artxibozain burua izan
zen. Gerra Zibila hasi zenean, matxinatutako tropei batu
zitezien. 1937ko martxoaren 4an Zarauzko komandante mi-
litar izendatu zuten eta, beste udalerririk batzuetan ez ezik,
Zumaian ere eskumena zuen; horrek, zonaldeko dokumen-
tazio pribatu asko bidegabe ebastezko aukera eman zion
gerra ostean²⁴.

eran alaveses). En este plebiscito donde pudieron tomar parte
por primera vez las mujeres mayores de 23 años se dieron los
siguientes resultados: Sí: 459.255 votos. No: 14.196 votos.

Pero ¿cuál era la postura de los conservadores navarros
respecto a la cuestión del estatuto vasco, tras la retirada de
Navarra del proyecto? Esto era lo que escribía el conservador
navarro José María Huarte²² en la portada del *Diario de Navarra*:

***En cuanto a la unión apetecida, nuestro punto de vista no
lo excluye, ni muchísimo menos, conforme ya se ha insinua-
do. No obstante, sin exigirla ni desdeñarla, nos gustaría que
fuera conforme al orden natural; Esto es no siendo Navarra la
que haya de unirse a los pueblos hermanos, sino siendo estos
los que retornen, sin desdoro de su personalidad, autonomía,
prestigio y derechos peculiares, al tronco que se escindieron y
al hogar donde desertaron²³.***

Huarte era Marqués de Valderrazo, y de 1927 a 1936
ocupó el cargo de archivero jefe del Archivo General de Na-
varra. Al comenzar la Guerra Civil José María Huarte se unió a
las tropas sublevadas y el 4 de marzo de 1937 fue nombrado
Comandante Militar de Zarauz, con jurisdicción, entre otros mu-
nicipios, en Zumaia, lo que le sirvió para expoliar mucha docu-
mentación privada de la zona durante la posguerra²⁴.

²² Filosofía eta Letretan lizentziatua eta abokatua. Nafarroako Errege Artxibo Nagusiko artxibozain burua izan zen 1927tik 1936ra eta Aldundiko Kultura Batzordea eta Nafarroako Monumentuen Batzordeko Buletina zuzendu zituen. San Fernando Historiako eta Arte Ederretako Errege Akademietako akademikoa izan zen. 1936an, Armada Nazionalean ofizial sartu zen, eta indar nazionalak Zarauz hartu zutenean, hango komandante-buru bihurtu zen./ Licenciado en Filosofía y Letras y Abogado, ocupó el cargo de Archivero Jefe del Archivo Real y General de Navarra desde 1927 a 1936 y dirigió la Junta de Cultura de la Diputación así como el *Boletín* de la antigua Comisión de Monumentos de Navarra. Académico Correspondiente de las Reales Academias de la Historia y de Bellas Artes de San Fernando. En 1936 se incorporó como oficial al Ejército Nacional, pasando a ser Comandante Jefe de la plaza de Zarauz, cuando esta fue tomada por las fuerzas nacionales.

²³ *Diario de Navarra*, Iruñea, 1931ko uztailak 12, 1. or./ *Diario de Navarra*, Pamplona, 12 de julio de 1931, p. 1.

²⁴ Urte batzuk geroago, 1980an, Huarte Jauregiren familia izan zen dokumentazio hori guztia saltzen saiatu zena Eusko Jaurlaritza lehengoratu berriari. Gobernuak ezetza eman zion, une hartan likidezirik ez zuelako, eta dokumentu horiek Renoko Unibertsitateko liburutegian amaitu zuten./ Años más tarde, será la familia del propio Huarte Jauregi quien intentará vender toda esta documentación, en 1980, al recién restituido Gobierno Vasco. Ante la negativa del gobierno, por no tener liquidez en aquel momento, dicha documentación terminaría en la biblioteca de la Universidad de Reno, Nevada.



Huarte, Valderrazoko markesa zen, eta 1927tik 1936ra Nafarroako Errege Artxibo Nagusiko artxibozain burua izan zen. / Huarte era Marqués de Valderrazo, de 1927 a 1936 ocupó el cargo de archivero jefe del Archivo General de Navarra.

1931ko ekainaren 28a egun latza izan zen arrantzale gipuzkoarrentzat eta, batik bat, Pasaia eta Donostiakoentzat. Errepublikan iristean, arrantzaleak mobilizatzen hasi ziren, lan-baldintza eta soldata hobekuntza eskatzeko. Ina amaiezinak ziren lanaldi haiek amaitzea nahi zuten, soldata baxuen aurka ere protestatzen zuten, eta lan-baldintza gogorak hobetzeko asmoa zuten; horrenbestez, aldarrikapenak adierazteko, ibilaldi baketsu bat antolatzea erabaki zuten. Baina ibilaldi hori berariaz debekatu zuen Aldasoro gobernadore zibilak. Alderdi komunistak, ordea, ez zion kasurik egin debekuari, eta aurrera jarraitu zuen ibilaldia antolatzen. Gobernadore zibilak bi hesi jartzea agindu zuen, ibilaldia normal egitea galarazteko. Ondorioak larriak izan ziren. Manifestariak Ategorrietako erlojuaren parera iristean, Guardia Zibilak tiro egin zuen eta, horren ondorioz, 6 manifestari hil eta dozenaka zauritu ziren.

Sarraski horren ondorioz, greba orokorra bihurtu zen, eta probintziako txoko guztietara zabaldu. Greba horrek hiru egunez iraun zuen: mitin, manifestazio eta protesta ugari izan ziren, eta Zumaia langileen eta arrantzaleen parte-hartzea nabarmena izan zen. Ekainaren 28an bertan izan ziren gorte errepublikanoetarako lehenengo hauteskundeak, eta Manuel Azaña buru zuen errepublikanoen eta sozialisten arteko koalizioak irabazi zituen. Dena den, Gipuzkoako egunkarien azalek beste izenburu batzuk izan zituzten:

El día 28 de junio de 1931 sería trágico para los "arrantzales" guipuzcoanos y, más concretamente, para los de Pasaia y Donostia. Con la llegada de la República, los pescadores comenzaron a movilizarse en la exigencia de nuevas condiciones de trabajo y salario. Querían acabar con las jornadas de trabajo prácticamente interminables, al tiempo que protestaban contra los bajos salarios y pretendían mejorar las duras condiciones de trabajo, por lo que se habían decidido a convocar una marcha pacífica para expresar sus reclamaciones. Pero esta marcha fue expresamente prohibida por el gobernador civil Aldasoro. El partido comunista, en cambio, haría caso omiso de la prohibición, con lo que siguió adelante con la organización de marcha. El gobernador civil mandó entonces establecer dos barreras para impedir el normal desarrollo de la marcha, con graves consecuencias. A la llegada de los manifestantes a la altura del Reloj de Ategorrieta, las fuerzas de la Guardia civil abrieron fuego, muriendo como consecuencia 6 manifestantes, a los que hubo que sumar varias decenas de heridos.

A consecuencia de esta masacre, la huelga se vuelve general de forma espontánea llegando a todos los rincones de la provincia. Dicha huelga se prolongaría tres días en la que tendrán lugar numerosos mítines, manifestaciones y protestas, a los que se adherirán de una forma especial los trabajadores y arrantzales de Zumaia. Este mismo día tuvieron lugar las primeras elecciones a las cortes republicanas que dieron como resultado la victoria de la coalición republicano-socialista encabezada por Manuel de Azaña. No obstante las portadas de los periódicos guipuzcoanos abrieron con otros titulares:

Euskal Herriak, gehiengo handiz, Lizarrako Estatutuaren alde eman du botoa.

Eskuinekoek 131.721 boto lortu dituzte, eta ezkerrekoek 90.951.

Gipuzkoan 10.000 bototik gorako aldearekin irabazi du Estatutuaren aldeko euskal hautagaitzak²⁵.

El País Vasco, por gran mayoría, vota en favor el Estatuto de Estella.

Las derechas obtienen 131.721 votos por 90.951 las izquierdas.

En Guipuzcoa triunfa por más de 10.000 votos de mayoría la candidatura vasca, defensora del Estatuto²⁵.

	ARABA / ÁLAVA	GIPUZKOA / GUIPÚZCOA	NAFARROA / NAVARRA	BIZKAIA / VIZCAYA
Alderdi eskuindarrak / Derechas	12.340	36.074	37.483	45.825
Alderdi Ezkertiarrak / Izquierdas	8.455	25.475	19.464	37.557
Eskuineko Alderdien aldeko bozak Diferencias en favor de las derechas	3.885	10.599	18.019	8.267



Euskadiko Autonomia Estatutua 1936 / Estatuto de Autonomia del País Vasco 1936.

²⁵ "Euskal Herriak, gehiengo handiz, Lizarrako Estatutuaren aldeko botoa eman du", *El Día*, Donostia, 1931ko ekainak 30, 1. or./ "El País Vasco, por gran mayoría, vota en favor del Estatuto de Estella", *El Día*, San Sebastián, 30 de Junio de 1931, p. 1.

or.

2.5. BIGARREN ERREPUBLIKAKO INDAR POLITIKOAK

Abertzaletasuna

Zumaian, Bigarren Errepublikan, antolaturiko indar garrantzitsuena abertzaleena izan zen. XX. mende hasieratik ageri zaigu herrian, eta horren adierazle da Zumarragan, 1908ko apirilaren 20an, Gipuzkoa Buru Batzarra (GBB) aukeratzeko egin zen batzarrera Zumaiaiko ordezkariak joan izana; 1910ean herrian batzokia zegoela dokumentaturik dago, eta 1913an *Euzkadi* aldizkaria sortu zenetik, Miguel Trueba "Emengua" berriemaileak –herriko jostuna– kronikak sinatzen zituen bertan.

1931rako Zumaiaiko Eusko Alderdi Jeltzaleak era guztietako esperientziak, onak eta txarrak, bizi izan zituen. Lehenengo urratsa batzokia izan zen; izan ere, urte horretako irailean eskatu zuten lokal berria Gorostidi kalean jarri ahal izatea: oinplano berriko eraikina zen, batzokiarekin batera emakumeen jarduerak egiteko lokal ere izango zuena. Batzokia 1932ko apirilaren 24an inauguratu zen ofizialki. Egun horretan bertan aukeratu zen erakunde berri horren lehenengo zuzendaritza-batzordea, besteak beste kide hauek osatua: Martin Elorriaga, Antonio Uranga, Fernando Arrizabalaga, Juan Txabarri, Manuel Maria Aramendi, Ramon Gomez, Eusebio Yeregui, Juan Artetxe eta Iñaki Zulaika.

Batzokian jarduera ugari egiten ziren, arlo guztietako interesek bultzatuta: politikoak, kulturalak, sozialak... Izan ere, urte haietan oso gogotsu bizi izan zituzten interes haiek. Euskara-eskolak ematen ziren, ez zekienari erakusteko nahiz hizkuntza-maila hobetzeko. Hainbat ekintza kultural antolatu zituzten, besteak beste abesbatza, antzerkia, dantza eta kirolekin lotutakoak. Hala ere, ez ditugu ahaztu behar mitinak eta izaera politiko hutseko jarduerak, alderdi politiko bati dagokion moduan. Honela gogoratzen du Trini Bidasorok:

Akordatzen nauk euskeraz irakurtzen eta idazten ikasteko eskolak ematen zituela. Ni ez nittuan juten, baina bazekiat Jontxu Uranga eta Xanti zapateroneko Jontxu eta hauek danak juten ziala. Uste diat Iñaki Beobideren osabak ematen zula eskola. Ez nauk gogoratzen zeatik gu ez ginan juten. Souan lanian, hondartzan... ez zekiat. Antzerkiak ere eiten zitien. Albizutarrak-eta oso jatorrak ittuan, eta ikustera jende asko juten uan²⁶.

EAJren eskutik, eta errepublikako lehenengo urteetan Emakume Abertzale Batzaren (EAB) tokiko taldeek izandako zabalkundearen barruan, abertzaletasunaren adar femeninoa izugarri ezarri zen Bizkaian, eta oso garrantzitsua izan zen Gipuzkoan; Araban eta Nafarroan, aldiz, apalagoa. EAJko atal femeninoa batu eta Zumayako Emakume Abertzale Batza sortzeko ideia indar handiz agertu zen 1931ko udan. Urriari hiru eguneko emakume prest zeuden Zumaian, erakunde horretan sartzeko. 1931ko abenduaren 27an Pedro Urangaren jatetxean bildu ziren, eta bilera horretan eratzat eman zuten elkarte. Miren Echavek, Zarauzko EABko kideak, irakurri zuen araudia

2.5. LAS FUERZAS POLÍTICAS DURANTE LA II REPÚBLICA

El nacionalismo vasco

En Zumaia, durante la II República la principal presencia organizada fue la del nacionalismo vasco, presente en la localidad desde principios del siglo XX como pone de manifiesto el hecho de que a la Asamblea de Zumárraga, celebrada el 20 de abril de 1908 para elegir el GBB, asistieron representantes de Zumaia y, en 1910, ya se puede documentar la existencia de un batzoki en el municipio y desde la creación del diario "Euzkadi" –en 1913– aparece un corresponsal -Miguel Trueba "Emengua"- sastre de la localidad que firmaba crónicas en el mencionado diario.

Para 1931 el *Partido Nacionalista Vasco* de Zumaia tendrán a sus espaldas varias experiencias de toda índole, tanto buenas como malas. El primer paso fue el batzoki, dado que en septiembre de este año harán la petición para poder situar su nuevo local en la calle Gorostidi: un edificio de nueva planta en el que junto con el batzoki se situaría un local para las actividades de las "emakumes". El batzoki no se inauguraría oficialmente hasta el 24 de abril de 1932. Ese mismo día se eligió a la primera junta directiva de esta nueva institución; compuesta por Martín Elorriaga, Antonio Uranga, Fernando Arrizabalaga, Juan Txabarri, Manuel Maria Aramendi, Ramón Gomez, Eusebio Yeregui, Juan Artetxe e Iñaki Zulaika entre otros.

Las actividades que se realizaban en el batzoki eran numerosas, movidas por la inquietudes de todo tipo; político, cultural y social que se vivían de modo muy intenso por aquellos años. Se impartían clases de euskera donde se enseñaba a aquel que no supiera o se le ayudaba a perfeccionar su nivel en el idioma. Se organizaron diversas actividades culturales, entre los que se hallaban el coro, el grupo de teatro, el de danzas y los relacionados con los deportes. Al mismo tiempo, no debemos olvidar los mitines y otras actividades puramente de índole político, como corresponde a un partido político. Como recuerda Trini Bidasoro:

Me acuerdo que daban clases para aprender a leer y escribir en euskera. Yo no iba, pero sé que Jontxu Uranga y Xanti, Jontxu el del zapatero y todos esos si iban. Creo que daba las clases el tío de Iñaki Beobide. No me acuerdo porque no íbamos nosotros. Estaríamos trabajando en el campo, en la playa... no lo sé. También hacían teatro. Los Albizu y compañía eran muy majos, e iba mucha gente a verlos²⁶.

De la mano del PNV, y dentro de la expansión de las agrupaciones locales de *Emakume Abertzale Batza* (EAB) durante los primeros años republicanos, la implantación de la rama femenina del nacionalismo llega a ser espectacular en Bizkaia y muy importante en Gipuzkoa, alcanzando también en menor medida a Araba y Nafarroa. La idea de agrupar a la sección femenina del PNV y la creación de "Zumayako Emakume Abertzale Batza" surge con fuerza en el verano de 1931. En el mes de octubre se cuenta en Zumaia con sesenta mujeres dispuestas para ingresar en esta organización. El día 27 de diciembre de 1931 se reúnen en el restaurante de Pedro Uranga, en esta reunión dan

²⁶ Trini Bidasoro Blascoren testigantza (Baleike aldizkaria, 2004). / Testimonio de Trini Bidasoro Blasco.

ZUMAIA 1936-1945

Conculcación de los Derechos Humanos y represión durante la Guerra Civil y el Primer Franquismo

eta Arantzazu Barrenak hainbat olerki errezitatu zituen. Horrez gain, ekitaldi horretan aukeratu zen Zumaiako EA-Bko lehenengo zuzendaritza-batzordea: Portunate Aguirrezabalaga, Presidentea. Karmele Olaizola, Presidenteordea. Kepe Trueba, Idazkaria. Kenobebe Elorriaga, Diruzaina. Bernate Zelaia, Kidea. Miren Aramendi, Kidea. Erregime Gometza, Batzordekidea.



por constituida esta sociedad. Miren Echave, perteneciente a la asociación de EAB de Zarautz, dara la lectura al Reglamento y Arantzazu Barrena recita varias poesias en un acto que elige a la primera Junta Directiva del EAB de Zumaia dando como resultado la elección de: Portutane Aguirrezabalaga, Presidente. Karmele Olaizola, Vice presidenta. Kepe Trueba, Secretaria. Kenobebe Elorriaga, Tesorera. Bernate Zelaia, Vocal. Miren Aramendi, Vocal. Erregime Gometza, Vocal.



Batzokiaren inaugurazioa. Mitina Frontoi Txikian. Hizlaria: José Antonio Agirre (Batzokia, 1932ko apirilaren 24) / Inauguración del Batzoki. Mitin en Frontoi Txikia. Orador: José Antonio Aguirre (El Batzoki, 24 de abril de 1932).



Bazkideek kuota txikien bidez sostengatzen zuten Batzokia, gastuak ordaindu ahal izateko Errepublikaraian. (Eli Esnal) / Los socios apoyaban el Batzoki mediante pequeñas cuotas para poder pagar los gastos durante la República. (Eli Esnal)



Antzeztanak, 1931-1936. Negarrez igaro zan. Emankizunarentzako diru-ekarpena. (Eli Esnal) / Obra teatrales 1931-1936. "Negarrez igaro zan". Aportación económica para la representación. (Eli Esnal)

Una velada en Zumaya

Las inmejorables noticias que llegaron a esta ciudad sobre el éxito logrado por nuestros queridos amigos, los nacionalistas de Zumaya, con la representación de la hermosísima obra vasca «Josu'ren jayotza», animaron a varios correligionarios nuestros de esta ciudad a trasladarse a la pintoresca villa guipuzkoana, con objeto de asistir a la velada que en el *Batzoki Zumayatarra* se anunciaba para el día primero del año. En esta se daba, igualmente la indicada producción «Josu'ren jayotza.»

En el tren de las tres y media salieron los aludidos amigos, que fueron recibidos en la estación de Zumaya por nutridísimo grupo de abertzales de aquella población. Todos se dirigieron al *Batzoki* al que volvieron después de cenar, a las ocho, hora fijada como principio de la velada.

Si dijéramos que el aspecto del salón era imponente, y que entre apretadas filas de los espectadores, no era posible hallar un solo asiento faltaríamos a la verdad, porque ni siquiera pudimos asomarnos al monoinado salón. El gentío que invadía el pasillo y las puertas internas de entrada, nos impidió llegar a él. Gracias a la amabilidad de un vocal de la Directiva, dimos con el cuarto de los actores y desde él avanzado dificultosamente pudimos acomodarnos de algún modo entre bastidores.

Entre los donostiarres que acudieron a Zumaya se encontraban varios miembros del antiguo cuadro dramático del *Centro Vasco* de esta ciudad y estos dieron en primer lugar la bella zarzuela *Anton Kaiku*, cuya música es de un distinguido compositor que formaba entre los expedicionarios. Los señores Arizmendi, Echube, Iraola, Olabeaga y Zubizarreta fueron aplaudidísimos.

A continuación los donostiarres dieron a conocer la chispeante comedia *Prishka*, colmo de gracia y humorismo del mejor género, obra del distinguido escritor, antes aludido, que hizo resaltar, el mismo, en la escena como protagonista la acción, toda la *vis cómica* que como escritor conocedor del teatro puso en su producción. El aludido autor y actor y los señores Arizmendi, Echube, Olabeaga, Ubillos y Zubizarreta desarrollaron su labor, labor de veteranos artistas entre no interrumpidas risas y aplausos. Los actores donostiarres como habituados en estas lides desempeñaron sus papeles con su característico dominio y seguridad, viéndose obligados a volver a la escena, una vez terminada la obra, con el autor de la misma a recibir nuevos y calurosos testimonios de agrado y afecto del público zumayatar.

Seguidamente, se puso en escena la comedia bilingüe *A mal dar*, bien conocida en Bilbao y original de un distinguido escritor de la viril villa bizkaitina. Por su forma, por su doctrina, por la escrupulosa pintura de caracteres y cuadros vivos, es esta producción digna de toda alabanza. Así mismo lo es, la versión euzkérica de parte de la obra, hecha con exquisita gracia y corrección, por una distinguida señorita de Zumaya, a la que los nacionalistas guipuzkoanos estiman profundamente, por su patriótica entereza y actividad.

A mal dar se representó a la perfección y el término de cada una de sus escenas, fué señalada por ovaciones estruendosas del público. Nuestro sincero parabien a la señorita Catalina de Azpeitia que llevó sobre sí el peso de la obra con gallardía, dominio y propiedad que no se hartan de ponderar cuantos tuvieron el gusto de presenciar su hermosísimo triunfo y nuestra calurosa felicitación a los señores don José de Ayerdi, don Ramón Gómez Agote, don Juan de Chabarrí, don Fernando de Arrizabalaga, don Manuel de Zubia y don Blas de Arrizabalaga, cuya labor nos demostró a los donostiarres que las alabanzas consignadas en estas columnas por los corresponsales de Zumaya, al detallar las veladas del *Batzoki Zumayatarra*, son bien merecidas.

En último término se representó la lindísima zarzuela infantil *Josu'ren jayotza* de cuya letra y música son autores del de *Prishka* y un entusiasta abertzale que reside hace años en Donostia.

Nos encontramos sin palabras adecuadas para pintar con exactitud el efecto que nos causó el trabajo del grupo infantil de Zumaya. Los niños se movían en escena con seguridad, a pesar de los escasos ensayos, los coros cantaban con aplomo y afinación, y todos recitaban con una limpieza que embelezaba. Recordamos con especial agrado, a aquel *julio* fondista de Betlen que desde la ventana de su casa, dialogaba con María y José negándose a recibirlos en casa. El microscópico fondista, constituía en verdad una ocupación en esto de recitar con limpieza, pues con todos sus arrestos, aún se veía aprisionado por ese encantador *traba-lenguas* que hacen los niños a los tres y cuatro años.

Potxolo, muy bien, con gran señorío de la escena y conocimiento de su papel. No es extraño que el mismo *diablo* se viera negro para zurrarle, a pesar de sus ánimis agilidad y genio, naturalmente infernal. A la perfección así mismo trabajaron Ismael, Rebeca, Menda... todos los pequeños artistas.

Baste lo apuntado para declarar que la representación de *Josu'ren jayotza* constituyó un éxito acabado. Las niñas Jesusa de de Urbietta (Rebeca), María Gómez (Menda); María de Azpeitia (la Virgen) y los niños Higinio de Zerupe (Potxolo); Francisco Remate (Ismael); Claudio de Urbietta (San José); Pedro de Arrizabalaga (San Miguel); Julian de Antia (Luzbel); José María de Anas (Isaac); Nicolás Albizu (Jacob) y José Albizu (Rubén) recibieron durante la escena continuas salvas de aplausos que se multiplicaron a su terminación. El autor de la obra, insistentemente llamado a escena se vió obligado a presentarse recibiendo una estruendosa ovación.

Terminó la brillantísima velada con el «Enzko Erreserkiyu» cantado por toda la concurrencia.

Al felicitar a los infatigables jeltzules de Zumaya por este éxito ofrecimoslos en nombre de los donostiarres y de modo especial, en el de los que concurren a la velada el sentimiento de profunda gratitud por las mil atenciones que les prodigaron aquellos queridísimos amigos.

DONOSTIAR BAT.

or.



EAJko Zumaiaiko abertzaleak Gernikan / Nacionalistas del PNV de Zumaia en Gernika (Lore Albizu): 1- Juan Txabarri; 2- Saturnino Etxaniz (*Reginareen gizona*); 3- Aseñtio Linazasoro; 4- Pedro Gárate (Etxetxikinekoa); 5- Pepe Segurola; 6- Zumai (*Kale Marikoa, Esteibartarra*); 7- Benito Manterola Aizpurua; 8- Xanti Alzibar Eizagirre; 9- Eduardo Txabarri; 10- Ander Esteibar Gomez; 11- Albizu (*Bermeon bizi zana*); 12- Klaudio (Egaña o Esteibar, *Kantxikua*); 13- Bixente Gomez; 14- Kepa Uranga Gomez; 15- Martin Albizu; 16- Hilario Zubizarreta; 17- Patxi Epelde; 18- Patxi Urbieta (*Pabxiku Bixi*); 19- María Dolores Iraundegi Sardiña; 20- Angela Romatet; 21- Luisa Unanue; 22- Ezezaguna/desconocido; 23- Balendiñe Albizu; 24- María Manterola Aizpurua; 25- Xixilo Albizu; 26- Karnele Esteibar Gomez; 27- Ezezaguna/desconocido; 28- Josu Albizu; 29- Manuel Aizpurua Txapartegi; 30- Ezezaguna/desconocido; 31- Xanti Urbieta; 32- Lucio Aizpurua; 33- Jose Luis Aizpurua; 34- Joxe Manuel Prieto; 35- Joxemari Ernabide (*Txomindenekoa*); 36- Joaquin Aizpurua Kintxo; 37- Luis Manterola Galdona.



EAJko Zumaiaiko abertzaleak Gernikan / Nacionalistas del PNV de Zumaia en Gernika (Lore Albizu): 1- Nikolas Albizu; 2- Klaudio Egaña; 3- Añezkua; 4- Ezezaguna/desconocido; 5- Rafael Atxurra; 6- Ezezaguna/desconocido; 7- Iñaki Gomez (*Txanbolin*); 8- Ezezaguna/desconocido; 9- Ezezaguna/desconocido; 10- Ezezaguna/desconocido; 11- Ezezaguna/desconocido; 12- Ezezaguna/desconocido; 13- Benito Manterola Aizpurua; 14- Luzio Aizpurua; 15- Ezezaguna/desconocido; 16- Joxe Mari Albizu; 17- Ezezaguna/desconocido; 18- Paulo Tolosa Epelde; 19- Xanti Alzibar Eizagirre; 20- Bixente Manterola; 21- Jose Agustin Larrañaga Emeterio; 22- Arriola; 23- Jacinto Amas Bixi; 24- Ezezaguna/desconocido; 25- Ezezaguna/desconocido; 26- Patxi Epelde; 27- Joxe Kruz Albizu; 28- Gillermo Amas; 29- Joxe Manuel Manterola Aizpurua; 30- Uranga (*Kepa, Jon eta Lideren aita*); 31- Ander Esteibar Gomez.

ZUMAIA 1936-1945

Conculcación de los Derechos Humanos y represión durante la Guerra Civil y el Primer Franquismo



Seguru asko, jai abertzalea Itziarren. 1933/06/28 (Lore Albizu) / Probablemente fiesta nacionalista en Itziar. 28/06/1933 (Lore Albizu)



Batzokian poxpolin talde bat sortu zuten, abertzaleen ekitaldiak alaitzeko eta euskal dantza tradizionalak berreskuratzen laguntzeko (Erkibe) / En el Batzoki crearon un grupo de "poxpolinak" para amenizar las actuaciones de los nacionalistas y para ayudar a recuperar los bailes tradicionales vascos (Erkibe)



Alderdiaren agindua jarraituz, 1936ko Aberri Eguna euren kabuz ospatu zuten Zumaia-arrak. (Lide Urbano) / Siguiendo las órdenes del partido los zumaia-rras celebraron por su cuenta el Aberri Eguna de 1936. (Lide Urbano)



Zumaia-ko EAJko kideak / Afiliados del PNV de Zumaia. 1-Xanti Altzibar Eizagirre; 2-Manuel Albizu ("Txatua"); 3-Joxe Mari Albizu; 4-Pasokoa; 5-Erramun Albizu; 6-Joxe Mari ("Aixa"); 7-Joxe Kruz Albizu; 8-Martin Albizu; 9-Ander Esteibar Gomez; 10-Joxe Seguro-la ("Pepe"); 11-Gracian Galarraga; 12-Francisco Epelde; 13-Benigno Arrieta; 14-Joxe Manuel Manterola Aizpurua; 15-Joxe Manuel Manterola Aizpurua; 16-Iñaki Zubizarreta ("Largo" edo "Iñaki Luzia"); 17- Luis Esteibar; 18- Benito Manterola Aizpurua; 19- Hilario Zubizarreta ("Arbe").

or.



EAB Batzokiko eszenatokiaren erakusketak prestatu ohi zituzten eguberrian. Oparitzeko zituzten saski eta otarrekin. 1934ko argazkia / EAB (Emakume Abertzale Batza) solia
organizar exposiciones en Navidades en el escenario del Batzoki, con cestos para regalar. Foto de 1934.



Zumaiako EAJ-PNVko abertzaleak (Lore Albizu) / Nacionalistas del PNV de Zumaia (Lore Albizu). 1- Ezezaguna/desconocido; 2- Simon Aizpurua; 3- Ezezaguna/desconocido; 4- Ezezaguna/desconocido; 5-Ezezaguna/desconocido; 6- Joxe Mari Albizu. 7- Rufino Irigoien; 8- Xesteronekoa; 9- Ezezaguna/desconocido; 10- Maria Aramendi (*Errexilenekoa*); 11- Joxe Mari Txapartegi; 12- Maria Elosua; 13- Ezezaguna/desconocido; 14- Narciso Urbietia; 15- Roxario Manterola Aizpurua; 16- Félix Izagirre Txakartegi; 17- Agustin Txapartegi; 18- Maria Elosua; 19- Ezezaguna/desconocido; 20- Ezezaguna/desconocido.

1932an, udal-batzordeak formalki eratu zuen erakunde femenino hori Zumaian. 1932ko martxorako 150 ziren erakunde berri horretan bazkide egindakoak. Garai horretarako emakumeek beraien ikurrina zeukaten (olana zuri bat goiko erpinetako batean ikurrina zuena). Lehenengo ekintzetako bat ikur berria prestatzea izan zen, batzokiko ikurrinaren ondoan. Proposaturiko beste helburuetako bat bazkideak lortzea izan zen, eta, horrela, 339 pezeta biltzea lortu zuten.

1935erako behin betiko azpiegitura zeukaten, eta bileak eta jarduerak Zumaiaiko batzokian bertan egiten zituzten. Urte horretan bertan, Gipuzkoako Emakume Abertzale Batza izeneko Gipuzkoako federazioan sartu ziren. Horrela, beste udalerrietako taldeekiko harremanak sistematizatu egin ziren eta, ondorioz, haien arteko harremana sendotu. EAB elkarte oso aktiboa eta garrantzi handikoa izan zen Zumaian; horren adibide dira euskal presoan alde egindako ekintzak, besteak beste, beraiek egindako janariak, otarrak eta eskulanak salduz ordaintzen zituztenak. Esan daiteke, 1932 eta 1936 bitartean, EABko emakumeak izan zirela protagonista nagusiak, besteak beste, laguntza-ekintzetan.

Después llegamos a Zumaya, sin puente ni barcos. Una lancha grande hace de improvisado viaducto. Los requetés en grupos se preparan para seguir hacia Bilbao, segunda jornada de esta jornada. Se paran un momento, hablan con nosotros y en la fotografía quedará para siempre el recuerdo de una tarde caliente en que los requetés navarros, dueños y señores de Guipúzcoa, quisieron jugar a serlo también de su mar y sobre la cubierta triste de un barco pesquero saltaron con sus botas, que solo sabían de tierra, a emular a los serios marineros que desde la orilla sonreían viendo la huenosa osadía de los voluntarios de botas coloradas.

Y vamos--horror lleno en los ojos--viendo los postes rotos con saña infernal, hasta de terneros ante Cestona, donde las hárbaras arrasaron los Hoteles donde vivieron. (Buena moneda con que pagar la hospitalidad) ¡Dolor de guerra de pillaje donde el sonido del cañón no se oye ni se ven los gastos de la defensa viril! Norte y quita de ellos fue el pillaje y en este campo si nos ganan, porque nosotros no sabemos.

Hay todavía un puente más roto y entramos en Amocitia y en Aspeltia. Seguimos levantando polvareda de aplausos y saludos. Loyola pone un punto de descanso en nuestra marcha. Rezamos... los rumores que nos recoges al bajar las blancas escalinatas son de éxitos que siguen: Salimos hacia Elgoibar. Otra ciudad que es nuestra. Seguimos a Vergara. Ambas son españolas. A nuestra derecha la mirada fija en Vergara, la vamos en el alborozo de nuestro recibimiento.

Regreso y final. Ya es tarde. Van torciéndose las cosas sin contornos. Sus sombras nos obligan a encender los faros y en la penumbra del regreso soñamos ya con la Guipúzcoa grande y española que hemos recordado.

JULIO MUÑOZ R. DE AGUILAR.



EL PUENTE ROJO DE ZUMAYA. LA BARBARIE DEJO OTRA VEZ SU HUELLA. LA DINAMITA--EL ÚLTIMO GUARDIAN DE RETIRADA--ROMPIÓ EL CAMINO SOBRE EL MAR Y CON LAS BARCAS NUESTROS BRAVOS SOLDADOS GUARDIERON OTRA VEZ CON MÁS ARROJO Y MÁS DENUEDO

or.

latu zuen eta herriko zubia ez lehertzea lortu zuten. Horrela, Zarautz eta Zumaiarako bidea garbi zegoen, Barandallaren taldeak Pagoeta aldea kontrolatua baitzeukan. Agintari errepublikanoek erabaki zuten Zarautz ez defendatzea (soilik karabinero batzuk zeuden) eta Debara atzeratzea. Kostaldeko herria utzi aurretik CNTko milizianoen talde batek su eman zion udaletxeari eta erabat suntsituta geratu zen. Bestalde, arestian esan dugun moduan, errefuxiatuz eta milizianoz betetako tren batzuk antolatuz ziren Zumaiarantz.

Bestalde, probintziako agintari errepublikanoek, altxatutako tropen aurrerakada ikusirik Donostia husteko erabakia hartu ondoren, Zumaiara joateko erabaki zuten. Aurrez, probintziako agintariek eta Frente Popularreko miliziek erabaki zuten Zumaiaren Horniduren Komisaria Probintziala ezartzea; soldaduak eta milizianoak frontean eta biztanleria zibila atzeguardian mantendu ahal izateko janari-baliabideak kudeatzeaz arduratzen zena. Garrantzi estrategikoagatik aukeratu zuten Zumaia, izan ere, itsas portua zeukan eta, gainera, han gurutzatzen baitziren Donostiatik, Eibartik eta Zumarragatik zetozen trenbideak. Lehengo alondegiaren eraikina aukeratu zuten komisariak kudeatutako janariaren biltegi izateko; Mola jeneralaren tropek konfiskatu, eta arpilatu, egin zituzten Zumaiaren sartu zirenean.

Irailaren zehar, frontearen gertutasunak areagotu egin zuten Zumaiaren gaineko presioa. Irailaren 12an, Azpeitian, Euzko Gudarostearen Buruzagitzak Hilario Burgaña Belaustegui izendatu zuen Zumaiako portuko komandantziako ordezkari, udaleko ordezkari politiko guztien adostasunarekin; horrez gain, zenbait guardiamarina ere izendatu zituzten (Ander Esteibar, Justino Aizpurua, Tomás Urbietta, Eusebio Mendizabal, Rafael Manterola, Venancio Esteibar eta Felipe Manterola). Atzerantz zihozten tropen hornidurarako ezinbesteko gunea bilakatu zen portua Gipuzkoako frontean. Irailaren 12an bertan iritsi zen Zumaiara *Carmen* baporea, Gijonen ikatz-kargu batekin pleitatua. Irailaren 14an, Osintxuko (Soraluze) Frente Popularraren izenean ordezkari bat azaldu zen

monte a comienzos del conflicto. Por el cauce bajo del Oria el día 19 cayó Usurbil y al día siguiente Orio, localidad que había sido evacuada y que fue controlada por una partida de falangistas que impidieron la voladura del puente de Orio. De esta manera el camino hacia Zarautz y Zumaia quedaba despejado ya que la partida de Barandalla controlaba la zona de Pagoeta. Las autoridades republicanas optaron por no defender Zarautz, donde solo había una fuerza de carabineros, y retirarse hasta Deba. Como ya hemos apuntado, se organizaron varios trenes con refugiados y milicianos con dirección a Zumaia. Antes de abandonar la ciudad costera de Zarautz un grupo de milicianos de la CNT incendió el ayuntamiento que quedó totalmente destruido.

Por su parte las autoridades republicanas de la provincia, tras acordar la evacuación de San Sebastián ante el avance de las tropas sublevadas, también habían tomado la decisión de trasladarse a Zumaia. Ya antes, las autoridades provinciales y las milicias del Frente Popular habían decidido establecer en Zumaia la Comisaría Provincial de Abastos, encargada de gestionar los recursos alimenticios necesarios para el sostenimiento, tanto de los soldados y milicianos en el frente, como de la población civil en retaguardia. La elección de Zumaia se debió a su relevancia estratégica, por contar con un puerto marítimo, y ser al mismo tiempo cruce ferroviario donde convergían las líneas de Donostia, Eibar o Zumarraga. El edificio de la antigua alhóndiga fue el elegido para servir de almacén a los víveres gestionados por la comisaría, que serían requisados -y saqueados- a la entrada de las tropas del general Mola en Zumaia.

A lo largo del mes de septiembre, la proximidad del frente fue acrecentando la presión sobre Zumaia. El 12 de septiembre, la comandancia del Ejército Vasco en Azpeitia ("Euzko-Gudaroztea - Buruzagitza") nombra delegado de la comandancia del puerto de Zumaia a Hilario Burgaña Belaustegui, con el consenso de todos los representantes políticos del ayuntamiento, siendo nombrados además diversos guardamarinas (Ander Esteibar, Justino Aizpurua, Tomás Urbietta, Eusebio Mendizabal, Rafael Manterola, Venancio Esteibar y Felipe Manterola). El puerto se convierte en el centro vital del abastecimiento de

22 de Septiembre **La Voz de España** Página 3

PROA A LA VICTORIA FINAL

Balance de dos días de triunfos: Azpeitia, Loyola, Azcoitia y Zumarraga, el domingo; Zumaya, Anzuola, Arrona, Cestona y Zarauz, el lunes

Fueron los éxitos principales de nuestras fuerzas en el frente de Guipúzcoa

En el Sur, Santa Olalla es la victoria más saliente de la jornada

COMUNICADO OFICIAL

A las 21 horas del día de ayer nuestras emisoras de campaña en los frentes de Guipúzcoa, nos comunicaban lo siguiente:

"A las 2 en punto de la tarde ha entrado el teniente coronel LATORRE en Zumaya. Recibimiento entusiasta. Seguimos avanzando."

Poco antes habíamos recibido la noticia de la ocupación de Anzuola, Arrona y Cestona.

Ha sido también ocupada la plaza de Zarauz, como antes lo fue Orio.

También se ha ocupado Puerto de Ariabán y Salinas, en la provincia de Alava. En Somosierra, sin novedad. La aviación roja ha bombardeado en el día de ayer, sin consecuencias, Barruelo en la provincia de P. lenzia y Miranda.

ZUMAIA 1936-1945

Conculcación de los Derechos Humanos y represión durante la Guerra Civil y el Primer Franquismo

Zumaiaiko Komisarian harriak eman ziezaioten, garraia zitzakeen tonen mugarekin, eta adierazi zuen “oraingoz ezinbestekoak dira 10 tona eta espero dugu hori guztia bihar herrira ekartzea beste bidaia batean”. Handik bi egunera, Elgoibarko horniduraren komisarioak bidali zuen bere ordezkari baimendua, Angel Arozena, 10 tona ikatzeko bidalketa eskatzera.

Gainera, irailaren 13tik 21era bitartean, kostaldeko herria izatez Gipuzkoa errepublikanoaren hiriburu bihurtu zen, izan ere, han ezarri baitzen Gipuzkoako Defentsa Batzordea, Gobernadore Zibilarekin eta Itsas Komandantziarekin batera. Erakunde hori, Gipuzkoan gerra deklaratu zenean probintziako aginte-instantziak ordeztu zituen, Donostian eratu zen 1936ko uztailaren 28an. Batzordea Miguel Amilibia diputatu sozialistak zuzentzen zuen, eta Errepublikari leial ziren alderdi guztietako ordezkariak eta UGT, ELA eta CNTko ordezkariak osatua zegoen. Defentsa Batzordea osatzen zutenen artean aipagarrienak Jesus Larrañaga buruzagi komunista, Telesforo Monzon abertzalea eta Guillermo Torrijos Donostiako zinegotzi sozialista ziren. Gerraren hasieran, gerrari zegozkion gai guztien (militziak, armak, hornidurak, osasuna...) kudeaketa zentralizatzeko asmoz eratutako “gerra-komisarien” ondorengoa zen batzordea. Zumaia kostaldeko komisariaren barruan sartu zuten Zarautz, Deba eta Urolako beste herri batzuekin batera; hor, abertzaletasunaren eragin handiagoa-

las tropas en retirada en el frente gipuzkoano. El mismo 12 de septiembre llegó a Zumaia el vapor “Carmen”, fletado en Gijón con un cargamento de carbón. El 14 de septiembre, se personó un representante en nombre del Frente Popular de Osintxu, Soraluze, ante la Comisaría de Zumaia para que le fuese entregado carbón de piedra y galletas, con el límite de las toneladas que pudiera transportar, indicando que “ por el momento serán imprescindibles 10 toneladas y esperamos que mañana podamos traerlo al pueblo todo ello en otro viaje”. Dos días más tarde, es el comisario de abastos de Elgoibar el que envía a su representante autorizado, Ángel Arozena, a recabar el envío de 10 toneladas de carbón.

La localidad costera se convirtió además, entre el 13 y el 21 de septiembre, en la capital de hecho de la Gipuzkoa republicana al instalarse en ella la Junta de Defensa de la provincia (junto con el Gobernador Civil y la comandancia de Marina). Esta institución, que sustituyó a las instancias de poder provincial al declararse la guerra en Gipuzkoa, se constituyó en San Sebastián el 28 de julio de 1936. La Junta, presidida por el diputado socialista Miguel Amilibia, estaba formada por representantes de todos los partidos que se mantuvieron fieles a la República y por representantes de la UGT, STV y CNT. Entre los integrantes más destacados de la Junta de Defensa se contaban el dirigente comunista Jesús Larrañaga, el nacionalista Telesforo Monzón o el concejal socialista de San Sebastián Guillermo Torrijos. La junta era la sucesora de las “comisarias de



Arrangoletako zabaldura. Gerra zibilean eta gerraondan zehar destakamendu militarra egon zen tokia. / Fotografía del Ensanche de Arrangoleta. Durante la guerra civil y posguerra se ubicó el destacamento militar.

or.

gatik, eratzeko atzerapena izan zen ezaugarri nagusia. Zumaian errepublikanoen pisu espezifiko nabari da, Union Republicanako Koldobika Ureta izendatu baitzuten lan-komisario.

Defentsa Batzordea Zumaian egon zenean, udaletxean ezarri zen, eta han bertan egin zen Gipuzkoako lurretako azken bilera. Manuel Chiapuso anarkistak, batzorde horretako kideak, honela gogoratzen du bilera hori bere memorietan:

Kide dezente falta ziren. Haien artean militarrek eta gobernadorea. Manuel Irujo izan zen giderra eskuetan zuena. Madrileko elkarrizketak azaldu zizkigun, Gobernuaren eta euskaldunen artekoak. Euskal Estatutua emana zegoen eta Parlamentuak berrestea soilik falta zen indarrean jartzeko. Denok ulertu genuen Euskal Herria beste fase politiko eta historiko batean sartzen zela. Beharbada emate berantiar honekin euskal herriak faxismoari aurre egiteko eta Espainia federalistako zutabe bat izateko beharrezko indarrak aterako zituen bere barren-barrenetik, euskaldun guztiok justiziarekiko eta askatasunarekiko horrenbesteko maitasunagatik harrotzen ginenez. Ataka gaiztoan geunden. Eskatzen zitzaigun sakrifizioa une kritiko batean ordaintzen ziguten Estatutuarekin. Maila emango al genuen? Bilbo bazela gogoratu zen Madril. Zapaltzaile izatetik ez ziren soilik solidario bihurtu, nolabait agintea uzten ziguten. Une horretatik gure hizkuntza eta gure bihotza penintsulak onartutako errealtate historiko batean txertatu ziren. Beharbada orain geure bertigoaren aurka babestu behar genuen, agian, horrenbeste maitatzeagatik gure herria suntsitzera eramango gintuen bertigo³⁷.

Parte-hartzaile batzuek agerian jartzeaz gain Donostia husteko erabakiak "elementu jarraitzaileen artean sortutako izugarriko atsekabea eta etsipen handia", Batzordeak garrantziko neurri batzuk hartu zituen. Lehenengoa, Defentsa Batzordeak txartelak jaulkitzeko xedea zuen, eguneroko dirua ordezkatzeko asmoz, baina diru gutxi zegoenez, asmo hori albo batera uztea erabaki zuten. Gerra-egoera ikusita, eta Gipuzkoa okupatua izateko aukera zegoenez, Bizkaiko bankuek uko egin zioten Defentsa Batzordeak zirkulazioan jartzea pentsatzen zuen txartelei balioa emateari. Bestalde, Zumaian egin zen Batzordearen azken bilera, edo ziurtasunez dakigun azkena behintzat; Gipuzkoan jasandako porrota ikusita, euskal gobernu bat eratzearen alde egin zen eta herria husteko arrazoitzat eman zituzten munizioen gabezia eta defendatzaileen adore eskasa; horren harira Gerra ministeriotik jasotako oharrak jarraitu zituzten:

Plaza etsaien esku erortzea saihetsezina dela uste baduzu, saia zaitetz armak eta garnizioa oso-osorik salbatzen, defentsa metodikoa egiteko, eta atera ezazu populazioa modu mailakatuan, ziurtasunez, eta ahalik eta motelen Bizkairantz atzera eginez. Egunero bidaliko dira munizioak. Uste osoa izan dezagun etorkizuneko

guerra" que se habían creado al comienzo de la guerra, con objeto de centralizar la gestión de todo lo referido a las cuestiones bélicas (milicias, armas, abastecimientos, sanidad...). Zumaia había quedado integrada en la comisaría de la costa, junto con Zarautz y Deba y otros pueblos del Urola, donde por la mayor influencia del nacionalismo, la tónica dominante había sido la tardanza en su constitución. En Zumaia se aprecia el peso específico de los republicanos, al ser nombrado comisario de trabajo Koldobika Ureta, perteneciente a la Unión Republicana.

Durante la presencia en Zumaia la Junta de Defensa se asentó en el ayuntamiento, donde realizaría la última reunión en territorio gipuzkoano. El anarquista Manuel Chiapuso, miembro de esta junta, recuerda en sus memorias cómo fue esta reunión:

Faltaban bastantes miembros. Entre ellos los militares y el gobernador. La voz cantante la llevó Manuel Irujo. Nos explicó las conversaciones de Madrid entre el gobierno y los vascos. El Estatuto Vasco ya estaba concedido y sólo faltaba la ratificación del Parlamento para que entrara en vigor. Todos comprendimos que el País Vasco entraba en nueva fase política e histórica. Quizás con este otorgamiento tardío el pueblo vasco sacaría de la entretela las fuerzas necesarias para combatir al fascismo y ser un puntal en la España federalista por el amor de la justicia y de la libertad de que tanto nos gargarizábamos todos los vascos. Estábamos en la estacada. El sacrificio que se nos pedía nos lo pagaban en un momento crítico con el Estatuto. ¿Estaríamos a la altura? Madrid se acordaba de la existencia de Bilbao. De opresores se volvían no ya solidarios, sino que nos dejaban un tanto las riendas. Desde ese instante nuestra lengua, como nuestro corazón, se incrustaban en una realidad histórica, aceptada por la península. Quizás ahora tendríamos que defendernos contra nuestro propio vértigo que nos llevaría, quizás, a destruir el país de tanto quererlo³⁷.

Además de hacerse patente, por parte de algunos asistentes, "el enorme disgusto y una gran desmoralización en los elementos adictos" causada por la decisión de evacuar San Sebastián, La Junta adoptó una serie de medidas de importancia. La primera de ellas fue el abandonar la pretensión de la Junta de Defensa de emitir vales con la intención de sustituir al dinero de curso corriente, debido a la escasez de este. Ante la situación bélica, y la posibilidad de que Gipuzkoa fuese ocupada, los bancos de Bizkaia se negaron a dar validez a los vales que pretendía poner en circulación la Junta de Defensa. Por otra parte en Zumaia se celebró la última reunión de la Junta, o al menos la última de la que tenemos constancia, en la que ante el fracaso experimentado en Gipuzkoa se abogaba por la constitución de un gobierno vasco y se justificaba la evacuación ante la falta de municiones y la escasa moral de los defensores, siguiendo igualmente las indicaciones que a este respecto había recibido del ministerio de la Guerra:

Si considera inevitable caída plaza en poder enemigo, procure salvar íntegramente armamento y guarnición para realizar defensa metódica y escalonando fuera población asegurando retirada lo más lenta posible en dirección Vizcaya. Diariamente

³⁷ CHIAPUSO, Manuel; Los anarquistas y la Guerra de Euzkadi. *La Comuna de San Sebastián*. Donostia, Txertoa, 2003, 281. or. / CHIAPUSO, Manuel; Los anarquistas y la Guerra de Euzkadi. *La Comuna de San Sebastián*, Donostia, Txertoa, 2003, p. 281.

garaipenetan, behin betiko ordaina hartzeko. Gora Errepublikak!

Gerra Ministerioko Estatu Nagusiko Buruak Gipuzkoako Komandante Militarrari (1936ko irailak 12a).

Dagokigun kasuan, tropa errepublikanoen atzera egiteko prozesua irailaren 21ean amaitu zen, Zarautz, Getaria eta Zumaia herriak okupatu zituztenean. Egun bat lehenago, berehala eroriko zirela eta, Zumaia komisariak eskatu zion Garraio sailari "lau tonako kamioi batez hornitu zitzala, merkantziak eta mekanikoa garraiatu ahal izateko" portuko elementuak Saturrarana eta handik Gernikara eramateko. Borrokak dagoeneko ez ziren urrun samarreko albisteak, errealitate mehatxatzailea baizik. Herritarrak beren burua eta beraien familiak berehalako arriskutik babesteko prestatu ziren.

te se enviarán municiones. Confiemos todos próximo triunfo que permita desquite definitivo. ¡Viva la República!

Jefe de Estado Mayor del Ministerio de la Guerra a Comandante Militar de Guipúzcoa (12 de septiembre de 1936).

El proceso de retirada de las tropas republicanas culminaría, para el caso que nos ocupa, cuando el día 21 de septiembre fueron ocupadas las localidades de Zarautz, Getaria y Zumaia. Un día antes, ante la inminencia de la caída, la comisaría de Zumaia había pedido a la sección de transportes la provisión de "un camión de cuatro toneladas para el transporte de mercancías con su mecánico", para llevar elementos del puerto a Saturrarán, y de allí a Gernika. Los combates ya no eran una noticia más o menos lejana, sino una realidad amenazante. Los vecinos se prepararon para defenderse y defender sus familias del inminente peligro.



Ekitaldi erlijioso eta militarra, 1936ko irailaren 21ean Zumaia hartu zutenean. / Acto religioso y militar de la toma de Zumaia, el 21 de Septiembre de 1936.



Ekitaldi politiko eta militarra udaletxearen aurrean, 1936ko irailaren 21ean Zumaia hartu ondoren. / Acto político y militar a la entrada del ayuntamiento tras la toma de Zumaia, el 21 de septiembre de 1936.



Erreketekak Zumaiaiko portuan, 1936ko irailaren 21ean. / Requetés en el puerto de Zumaia, 21 de septiembre de 1936.



21 de septiembre de 1936, requetés en el cruce de Muniosoro Oikia. / Erreketek Oikiako Muniosoroko bidegurutzean, 1936ko irailaren 21ean.

or.



Erreketek Zestoan, 1936ko irailaren 21ean. Zumaian sartu ostean, Zestoa operazio-basetzat jarri zuten, eskualde osoa kontrolatzeko. / 21 de septiembre de 1936, requetés en Zestoa. Una vez tomada Zumaia, Zestoa fue utilizada como base de operaciones para controlar toda la zona.

Mola jeneralaren armadako lehenengo zutabeak José Iruretagoyena Solchaga koronela buru zutela etorri ziren; aurrez, uztailaren 18an, bere borondatez Iruñeko gobernu militarren aurrean aurkeztu ondoren, Gipuzkoako kostaldea erasotzeko ardura zuten zutabe-multzoaren agintea jaso zuen. Nafarroako Tertioko erreketek hartu zuten Zumaia, Iruretagoyena beraz gain, Cayuela eta Latorre buru zituztela. Gerran bizitako lehenengo irudietako bat izan zen hura eta, hamarkada asko igaro arren, zumaiar askok gogoan zuten oraindik:

Bai. Nola etorri zian. Gu lanian ari giñun eta Oikiatik goitik behera etorri hittuan karlistak. Haiek etorri zianian gure baserrian bi anai ixkutatu ein ittuan, beste anaia, Joxemai, hasieratik jun huan boluntario. Beste anaia bat frankistak soldau eaman zien. Eta hura gerran kamiñero ibili huan. Oriamendin. Gerra garaian hiru zumaiar azaldu hittuan gure baserrira permisuakin-edo eta mendira jun hituan eskopetakin ehizea. Guk mendian txabola ginian, oiluena, eta gure ama zanak han zaben oilorik ederrenak hartu zitian haientzat. Gau hartan hauek Frantzira jutia pentsatu zien. Geo, uste diat bidian bi harrapatu eta batek ospa ein zula, baina ez zekit ondo³⁸.

Nik orduan hamabi urte nizkan, tropak sartu zianian, nazionalak deitzen zianak, gu neska koskorrak, soldau

Las primeras columnas de las tropas del general Mola vinieron comandadas por el coronel José Iruretagoyena Solchaga, que tras haberse presentado voluntariamente ante el gobierno militar de Pamplona el 18 de julio, había recibido el mando de la agrupación de columnas encargadas de atacar la costa de Gipuzkoa. Zumaia sería tomada por requetés pertenecientes al Tercio de Navarra, comandadas -además de por el propio Iruretagoyena- por Cayuela y Latorre. Fue aquella una de las primeras imágenes vívidas de la guerra que muchos zumaiarraz siguieron recordando muchas décadas después:

Sí. Como vinieron. Nosotros estábamos trabajando y los carlistas vinieron desde Oikia. Cuando vinieron, se escondieron dos hermanos en nuestro caserío, el otro hermano, Joxemai, se fue voluntario desde el inicio. Otro hermano lo llevaron soldado los franquistas. Y aquel anduvo de caminero en la guerra. En Oriamendi. Durante la guerra aparecieron tres zumaiarraz a nuestro caserío con permiso, y se fueron al monte a cazar con la escopeta. Nosotros teníamos una choza, para las gallinas, en el monte, y nuestra difunta madre cogió las mejores gallinas para ellos. Aquella noche pensaron ir a Francia. Después, creo que los atraparon en el camino y uno de ellos se escapó, pero no lo sé bien³⁸.

Yo entonces tenía doce años, cuando entraron las tropas, las que se llamaban nacionales, nosotras unas mozas, andá-

³⁸ Joxe Etxabe Udabe "Joxe Bittarte"ren testigantza (Baleike, 2008). / Testimonio de Joxe Etxabe Udabe "Joxe Bittarte".

tartian eta danian ibiltzen ginan. Hamen, matadei atzeko antxoa fabrikan, bakailuak ziben. Fabrikako nausiak tropak zetozela-ta ihes eingo zuten, nunbait, Frankistak oaindik etortzeko zeuden eta inor gabe geatu zan fabrika. Ateak irekita. Bakailo pila zeon eta jende dana bakailao bila jun ginan. Nik bi bakailao hartu nittun, pozik, etxera eamateko. Han zebilen Eustakio Karrakolok, hau Joxun laguna zan, esan zian: “Aizan, ba al dakin zer eingo denen? Hamendik asko hartuko diñau eta hoa etxera zaku bila. Etorri zakuakin eta bitartean nik gordeko ditiñat”³⁹.

Okupazioaren aurreko orduak biziak izan ziren. Portua ihes egiteko puntua bihurtu zen, ez soilik zumaiarrentzat, baita Gipuzkoako beste leku batzuetatik etorritako errefuxiatuentzat ere. Ebakuazioak gauez izan ziren, biztanle zibilak etengabe ateraz. Zumaiaiko portutik itsasontzi asko abiatu ziren armada errebeldearen zaintzatik ihesi gaueko iluntasunaren babesean.

bamos incluso entre los soldados. Aquí, en la fábrica de anchoas de detrás del matadero, había bacalaos. Los dueños de la fábrica huirían porque venían las tropas, y al parecer, los franquistas no habían llegado todavía y la fábrica se quedó sin nadie. Con las puertas abiertas. Había mucho bacalao y toda la gente en busca de bacalao. Yo cogí dos bacalaos, toda contenta, para llevármelos a casa. Eustakio “Karrakolo”, amigo de Joxu, andaba por allí y me dijo: “Oye, ¿sabes lo que vas a hacer? Vamos a coger mucho de aquí y vete a casa a por sacos. Ven con los sacos y yo mientras los guardaré”³⁹.

Las horas anteriores a la ocupación habían sido febriles. El puerto sirvió como punto de escape para una masiva ocupación, no solo de zumariarras sino de refugiados procedentes de otros lugares de Gipuzkoa. Las evacuaciones se produjeron durante las noches, con una constante salida de población civil. Del puerto de Zumaia zarparían numerosas embarcaciones, huyendo de la vigilancia de la armada rebelde amparadas en las sombras de la noche.



Erreketek Zestoako bainuetxean, 1936ko irailaren 21ean, Zumaian sartu ostean. Base moduan erabili zuten. / 21 de septiembre de 1936, requetés en el balneario de Zestoa. Tras la toma de Zumaia, el balneario fue utilizado como base operativa.

³⁹ Irene Yeregi Salegiren testigantza (Baleike, 2007). / Testimonio de Irene Yeregi Salegi.

or.

Tropa frankistak sartu aurretik Zumaia alde egindakoen zerrenda
Relación de huidos de Zumaia antes de la entrada de las tropas franquistas


Table with 3 columns listing names of refugees from Zumaia, such as Aguirre Aguirre, Narcisa; Arratibel Zubia, Esther; Manterola Aizpurua, María; etc.

Handwritten document titled 'RELACION DE LAS PERSONAS EXPULSADAS DEL TERRITORIO FACIOSO' for ZARAUZ and ZUMAIA, dated Feb 13, 1937. Includes a circular stamp of the 'COMANDO EN JEFE FUERZAS FACIOSAS'.


Handwritten document titled 'RELACION DE LAS PERSONAS EXPULSADAS DEL TERRITORIO FACIOSO' for ZUMAIA, dated Feb 13, 1937. Includes a circular stamp of the 'COMANDO EN JEFE FUERZAS FACIOSAS'.

ZUMAIA 1936-1945

Conculcación de los Derechos Humanos y represión durante la Guerra Civil y el Primer Franquismo




Zumaiaiko Zubitxikia leherrarazi zuten milizia errepublikanoek, matxinatutako tropen aurrerakada oztopatzeko asmoz. 1936ko irailaren 20an egin zuten leherketa. / Voladura del "puente pequeño" de Zumaia por las milicias republicanas, con intención de obstaculizar el avance de las tropas sublevadas. 20 de septiembre de 1936.



Zumaiaiko Zubitxikiaren berreraikuntza. / Reconstrucción del "puente pequeño" de Zumaia.

or.



“Zubi txikiaren” leherketaren aurrean, Altxamenduko Jarraitzaileek lurrin makinak erabili zituzten ibaia gurutzatzeko / Ante la voladura del “puente pequeño”, los sublevados juntan los vapores en la ría para pasar.

Atzera-egite guztietan oso ohikoa da zubiak dinamitez leherraraztea, etsaien tropei aurrera egitea zailtzeko. Hori bera gertatu zen Zumaian ere; horrela, Getariatik zetozen Francoren tropei igarotzea atzeratu nahi zitzairen. Zumaian leherketan parte hartu izanaz salatu zuten Julian Antia portuko gidaria. Dinamitatzaileak atzeguardiako azken taldea izaten ziren. Horiek leherrarazi zuten Zumaiaiko Zubitxikia. Haietako gehienak Gallartako meatze-arrokoak eta Asturiaskoak ziren, eta ohituak zeuden dinamitarekin lan egiten. Zubia leherrarazi zutenean ez zen errepublikanorik, ez abertzalerik geratzen Zumaian. Dena den, matxinatuak tropak nahiko erraz sartu ziren herrian.

Hurrengo egunean Cayuelaren tropek Zumaia utzi eta Debarantz jo zuten; irailaren 22an okupatu zutenean, Mutriku erasotzeko asmoa zuten, baina errepublikanoen ontzidiko Jaime I, Cervantes eta Libertad gerraontzien bonbardaketek atzeratu egin zuten kostaldeko aurrera egitea. Dena den, urriaren 4an amaitu zuten Gipuzkoa okupatzen, Bizkaiko mugatik gertu dagoen Mutrikuko Gurutze Santuaren ermita hartu zutenean⁴⁰.

En toda retirada, es muy frecuente que se dinamiten los puentes para proceder a su voladura, con el fin de obstaculizar el avance de las tropas enemigas. Esto mismo ocurriría también en Zumaia, con ello se quería retrasar el paso de las tropas de Franco que venían de Getaria. En Zumaia fue acusado de tomar parte en la voladura el práctico portuario Julián Antia. Los dinamiteros solían situarse como el último grupo de la retaguardia. Estos fueron los que procedieron a la voladura del puente pequeño de Zumaia. La mayoría de ellos procedían de la cuenca minera de Gallarta y de Asturias, y estaban habituados en el manejo de la dinamita. Cuando volaron el puente no quedaban republicanos, ni nacionalistas en Zumaia.

Al día siguiente las tropas de Cayuela abandonan Zumaia y se dirigen a Deba que es ocupada el 22 de septiembre con la intención de atacar Mutriku, sin embargo el bombardeo de los buques de la escuadra republicana “Jaime I”, “Cervantes” y “Libertad” retrasan el avance por la costa que se completó el 4 de octubre con la ocupación de la ermita de Santa Cruz, en las inmediaciones de Mutriku en el límite entre Gipuzkoa y Bizkaia⁴⁰.

⁴⁰ BARRUSO, Pedro; “Verano y revolución. La Guerra Civil en Guipúzcoa”, *Gipuzkoa 1936*, webgune honetan eskura: <http://www.gipuzkoa1936.com/verano3.php>, 2017ko abuztuaren 30ean kontsultatua. / BARRUSO, Pedro; “Verano y revolución. La Guerra Civil en Guipúzcoa”, *Gipuzkoa 1936*, disponible en <http://www.gipuzkoa1936.com/verano3.php>, consultado el 30 de agosto de 2017.

3.2. BIZKAIRANTZ

Hemen Gipuzkoan tomak hasi zianean guk galdatzen gendun, eta oain zer?, bildurrez. Gero, Irun hartu zutenean, akabo. Gero Donostixa hartu zuten eta handik aurrera guk ospa. Hemen bi barko hartu giñuzen, Marco eta Delfina, eta jota, hemendik Ondarruraino jun ginan. Erreparazixora etorritako barkuak zian hauek. Ondarrutik Laredora jun ginan eta handik Bilbora. Bilbotik frentera. Zumaia, Ondarroa, Laredo eta Bilbo orduan. Bai. Zumaixan ebakuazixua etorri zanean, alondegixan tabako asko zeon eta dana partitu ein zan. Nahi zunak nahi zuna. Barkuetan, berriz, bakailao asko geratu zan eta almagazatu ein zan gero partitzeko. Gero, hauek sartu behar zutenian, gu Ondarrura⁴¹.

Donato Bidasorok gogoan ondo zuen moduan, zehaztu gabeko biztanle-kopuruak alde egin zuen herritik, itsasoz eta lurrez, Bizkairantz eta Frantziarantz, tropa matxinatuak iristear zeudela eta; horrela, bat egin zuten aurreko hila-beteetan Zumaia-ik igarotzen ikusi zituzten errefuxiatu-oldeekin. Jontxu Altzibarrek ere gogoan du nola frankistak sartu aurretik “jende askok ospa ein zian. Beste herrietan gertatu zen bezalaxe”⁴². Udaletxean kontserbatu diren garbiketaxostenetan Zumaia “utzi zuten” pertsona moduan agertzen dira katalogatuta (frankistek herria konkistatu zutenean kanporatutakoetatik bereizteko; geroago hitz egingo dugu horiei buruz). Ez da posible, exodoaren baldintza bereziengatik, une hartan zehazki zenbat zumaia-errefuxiatu egin behar izan zuen jakitea, baina dena den, 272 pertsona ditugu katalogatuta. Gerraren ondorio kaltegarrien artean erbestearen elementu garrantzitsua (eta, geroago ikusiko dugun moduan, une batzuetan baita errepresiorako bide ere) izan zela adierazten diguten zeharkako bitartekoak ditugu; izan ere, biztanle-erroldeko datuak kontuan hartuta bada-kigu, Zumaia-ko biztanle-kopurua ia ez zela aldatu 1930 eta 1940 urteen artean. Gainera, horri gehitu behar zaio, lehenengo erbeste-erregimen hori ez zela huste antolatua eta sistematikoa izan, baizik eta korrika eta presakako ihesa, Molaren tropak herria hartzearen zehazketa eta errefuxiatuen beldurrak eragindakoa.

“Ez zekiagu zer egin. Erropa danak preparatuta eta ez zekiagu nora jo. Estazixora jo edo nora jo. Inork ez ziguk ezer esaten-eta. Nahi al dezue nirekin etorri?, nik. Eta haixek: Nora? Honela eta honela, motorrean. Goazen!!, haixek. Hura poza hartu zutena! Benito eta danak hartu, motorrian sartu eta Lekeitiora”⁴³.

Altxatuko armadaren aurrerakadaren eta gerra-fronteko baldintza geografikoen ondorioz, errefuxiatuek helburu bakarra zuten: Bizkaia, Errepublikari leialak zirenen eskutian jarraitzen zuena:

Zumaitik Lekeitiora jun gitxuan lehenbizi. Auguston-eta aitta familixakin eta gu. Ni orduan haserre nitxuan arreba-

3.2. HACIA BIZKAIA

Cuando empezaron aquí en Gipuzkoa a tomar los pueblos, nosotros nos preguntábamos con miedo: ¿y ahora qué? Después, cuando tomaron Irún, se acabó. Después tomaron Donostia, y a partir de entonces nos escapamos. Aquí tomamos dos barcos, Marco y Delfina, y desde aquí fuimos hasta Ondarroa. Eran barcos que habían traído para reparar. De Ondarroa fuimos a Laredo, y de allí a Bilbao. De Bilbao al frente. Entonces Zumaia, Ondarroa, Laredo y Bilbao. Sí. En Zumaia, cuando llegó la evacuación, había mucho tabaco en la alhóndiga y se repartió todo. El que quería, lo que quisiera. En cambio en los barcos quedó mucho bacalao, y se almacenó para luego repartirlo. Después, cuando estos iban a entrar, nosotros a Ondarroa⁴¹.

Como bien recordaba Donato Bidasoro, un número indeterminado de habitantes abandonarían la villa ante la llegada de las tropas en dirección a Bizkaia y Francia por vía terrestre y marítima, uniéndose a las oleadas de refugiados que en los meses anteriores habían visto pasar por Zumaia. Jontxu Altzibar también recuerda cómo antes de la entrada de los franquistas “jende askok ospa ein zian. Beste herrietan gertatu zen bezalaxe”⁴². En los expedientes de depuración que se conservan en el ayuntamiento aparecen catalogados como personas que “abandonaron” Zumaia (para diferenciarlos de los expulsados tras la conquista de la villa por los franquistas, de los que luego hablaremos). No es posible, por las especiales condiciones del éxodo, cuantificar el número preciso de zumaia-errefuxiatuak que tuvieron que huir en este momento, aunque en todo caso tenemos catalogados 272 personas. Si bien existen medios indirectos que nos permiten apuntar a que el exilio fue un elemento relevante entre las consecuencias negativas de la guerra -, como veremos posteriormente, también en determinados momentos un medio de represión-, ya que sabemos la población de Zumaia permaneció casi estable entre 1930 y 1940 según los datos de los censos de población. Se une a esto, además, el hecho de que este primer exilio no se trató de una evacuación organizada y sistemática, sino de una huida precipitada ante el temor por la situación personal de los refugiados cuando las tropas de Mola estaban por ocupar la villa.

“No sabemos qué hacer. Todas las ropas preparadas y no sabemos a dónde ir. Ir a la estación o a dónde. Porque nadie nos dice nada.” “¿Queréis venir conmigo?” les dije yo. Y ellos: “¿A dónde?” Así y así, en motora. “¡¡Vamos!!”, ellos. ¡Menuda alegría se llevaron! Coger a Benito y a todos, meterlos en la motora y a Lekeitio”⁴³.

El propio avance del ejército sublevado y los condicionamientos geográficos del frente de guerra hicieron que, sin embargo, los refugiados se concentraran en un solo destino: Bizkaia, que seguía en manos de las fuerzas leales a la República:

Primero fuimos de Zumaia a Lekeitio. El padre de Augusto con la familia, y nosotros. Yo, entonces, estaba enfadado con

⁴¹ Donato Bidasoro Iraundegiren testigantza (Baleike, 2004). / Testimonio de Donato Bidasoro Iraundegi.

⁴² Jontxu Altzibar Eizagirren testigantza (Baleike, 2005). / Testimonio de Jontxu Altzibar Eizagirre.

⁴³ Joxe Manuel Manterola Aizpuruaren testigantza (Baleike, 2005). / Testimonio de Joxe Manuel Manterola Aizpuru.

or.

kin. Etxe aldean batzuetan izaten ittuk, ba, kontuak. Ezkondu berrixa nittuan eta haserreren bat nitxikan arrebakin. Ez nian hitz egiten. Bueno, hitz egin juxtuan kalian, baina beste ezer ez. Moilara jun nitxuan, herritik erten nahian. Txaletian nitxuan eta txaletian andria, honen ahizpa, anaixa eta ama zibeztian. Eta gure aitta itsasoan. Gizona itsasoan, eta nik: Oain zer ein behar det? Moila aldera jun eta, zer berri da hamen? Jendia baziak-eta.

Esteban eta Auguston-eta aitta han zibeztian. Nere andria iloba zien hauek. Zer?, nik. Gu bagoaz, haixek. Nora?, nik. –Oain behinpehin Bizkai aldera, noabaitea ihesi. Bixar zetozik hauek. Gaur gabian edo bixar goizian sartuko ittuk, Donostixan ja sartu ittuk-eta.

–Noiz jun behar duzue?

–Goizeko hirurak baino lehen. Plemaa orduan dek eta alde ein behar diagu. Oain Bizkai aldera, gero ikusiko diagu nora. Handik Ameriketa-edo. Jo! Hura bai zala! Ni neure kabuz pentsatzen: Auskalo nora jun behar deken gero, Joxe Manuel!⁴⁴.

"Oain Bizkai aldera, gero ikusiko diagu nora". Joxe Manuel Manterolak ihesean zihoala izandako pentsamendu horiek profetia bat ziruditen, neurri handi batean. Izan ere, haren kasuan, beste askorenean bezala, erbeste latz eta mingarriaren lehenengo etapa Bizkaikoa izan zen.

Motorra larri-larri, honela-honela jun huan. Eta motor haundixa huan, e? Eskerrak itsaso ona zeon. Baina, Lekeitiora ailegatu eta ez ziguen laga desenbarkatzen. Txurrerua ere gurekin huan andregaixakin. Goizeko hiru t'erditan-edo ailegatu eta hangoak: Geldi! Geldi! Han moilan sare tartian laga giñuzten. Eon hortxe! Geldi! Goizeko zortzirak aldian gizon bat, oso kuriooa, urdinez jantzita, 35-40 urtekoa, zeintzu ginan galdetu ziun. Arreba Maria, moilara erten eta honela eta honela leku bila ari ginala. Orduan gizon honek itsasoko pilotua zala esan zioan. Hura mobilizatu ein zutela, baina ama zaharra zeukala itxian eta konfiantzazko lagun bat behar zula hura zaintzeko. Mariak ahizpa ere bazeukala. Eta hark, bueno, hura ere juteko. Biaje txiki bat zeukala eiteko eta segituan eingo zula buelta.

Diruak ahitzen ari zian bezela beste norabaitera jun behar eta nire andriak parienteak bazitunez Bilbon, Llano-nekuak, hara jo ginien. Jakin ginien non bizi zian eta arrebarena jun gitxuan. Hara! Oaintxe etorri dek kapitaina eta ni ere banatxiak zuekin. Hala, jun gaittuk Llanoneko horretara eta han, ea gu zeintzu ginan, eta, nola dian kontuak!, Llano hark Zumaira abixua pasatuta zian guri zerbait pasa ezker, hara, beaixen txaletera juteko. Kasualidadia! Han eon gitxuan egun batzuetan eta gero Bilbon zapatero lana bilatu ginien⁴⁵.

Gerra amaitu zen Zumaian, ia hasten ari zenean. Baina zumaiarrentzat, ondorioak hasi besterik ez ziren egin. Batzuentzat, gerra laster amaitu zen: gutxienez 20 zumaiar hil ziren gerrako euskal fronteko borroketan. Hauek dira haien izenak:

la hermana. Ya sabes como suelen ser las cosas en casa, a veces. Estaba recién casado y estaba enfadado con la hermana. No nos hablábamos. Bueno, hablarnos justo-justo en la calle, pero nada más. Me fui al muelle, quería salir del pueblo. Estaba en el chalet, y en el chalet estaban la mujer, su hermana, el hermano y la madre. Y nuestro padre en el mar. El hombre en el mar, y yo: “¿Qué voy a hacer ahora?” Me fui hacia el muelle y: “¿Alguna novedad aquí? Es que la gente ya se va.

El padre de Esteban y Augusto estaba allí. Mi mujer era sobrina de estos. “¿Qué?” les dije. “Nosotros nos vamos”, ellos. “¿A dónde?”, yo. “Ahora por lo menos hacia Bizkaia, a escapar a algún sitio. Estos llegan mañana. Entrarán esta noche o mañana por la mañana, por qué ya han entrado en Donostia.”

–“¿Cuándo os vais?”

–“Antes de las tres de la mañana. La pleamar es entonces y nos tenemos que marchar. Ahora hacia Bizkaia, después ya veremos a donde. De allí a América o... ¡Jo! ¡Aquello sí que era! Yo pensando para mí mismo: “¡A saber dónde vas, Joxe Manuel!”⁴⁴.

"Oain Bizkai aldera, gero ikusiko diagu nora". Estos pensamientos de Joxe Manuel Manterola en su huída parecerían, en gran medida, tener el don de la profecía. En su caso, como ocurrió con otros muchos, el camino hacia un exilio duro y doloroso tendría su primera etapa en Bizkaia.

La motora justo justo, andaba así asá. Y era una motora grande, ¡eh! Menos mal que había buena mar. Pero llegamos a Lekeitio y no nos dejaron desembarcar. El churrero y su novia también iban con nosotros. Llegamos hacia las tres y media de la madrugada y los de allí: “¡Alto! ¡Alto!” Nos dejaron allí en el muelle entre redes. “¡Quedaos ahí! ¡Quietos!” Hacia las ocho de la mañana un hombre, muy curioso, vestido de azul, de unos 35-40 años, nos preguntó quiénes éramos. Nuestra hermana María salió al muelle y le explicó que buscábamos sitio. Entonces ese hombre le dijo que era piloto de mar. Que lo habrían movilizado, pero que tenía una madre anciana en casa y necesitaba a alguien de confianza para cuidarla. María le dijo que también tenía una hermana. Y él le dijo, que bueno, que fuera ella también. Que tenía que hacer un pequeño viaje y que vendría en seguida.

En cuanto se nos acababa el dinero teníamos que ir a otro sitio, y como mi mujer tenía parientes en Bilbao, de los de Llano, fuimos allí. Supimos donde vivían y fuimos donde la hermana. “¡Huy! Acaba de venir el capitán, y yo también me voy con vosotros. Así, fuimos donde los de Llano, y allí, que quienes éramos nosotros y, ¡como son las cosas!, aquel Llano había mandado un aviso a Zumaia que si nos ocurría algo a nosotros que fuéramos a su chalet. ¡Qué casualidad! Allí estuvimos unos días y luego encontramos trabajo de zapatero en Bilbao⁴⁵.

La guerra había terminado en Zumaia, casi cuando estaba empezando. Pero sus consecuencias para la población no habían hecho sino empezar. Para algunos, la guerra terminaría pronto. Al menos 20 zumaiarraz fallecieron en combate mientras la guerra se desarrollaba en el frente vasco, siendo sus nombres los siguientes:

⁴⁴ Joxe Manuel Manterola Aizpuruaren testigantza (Baleike, 2005). / Testimonio de Joxe Manuel Manterola Aizpuru.

⁴⁵ Joxe Manuel Manterola Aizpuruaren testigantza (Baleike, 2005). / Testimonio de Joxe Manuel Manterola Aizpuru.

Gerrako frontean borroketan hil ziren zumaiarrak **Relación de muertos en combate de Zumaia**

Aizpurua Aizpurua, José Luis. Durangoko gudan hilda 1936ko urriaren 4an / Muerto en combate en el frente de Durango el 4 de octubre 1936.

Aizpurua Chapartegui, Manuel. Mungiako frontean hilda 1937ko maitzaren 12an / Fallece en el frente de Mungia el 12 de mayo de 1937.

Albizu Aizpurua Josu. Urkiolako frontean hilda / Fallece en el combate en el frente de Urkiola.

Arrizabalaga Olaizola Iñaki. Artxandako frontean hilda 1937ko maitzaren 7 an / Falleció en Artxanda el 7 de mayo de 1937.

Cearreta Urruzano Ramón. Frontean hilda 1937ko maitzaren 5ean / Fallece en combate el 29/05/1937.

Echave Michelena Pedro José. Legutioko batailan hil zen, Bilboko 2. Erregistro Zibilaren arabera, 1936ko abenduaren 1ean / Fallece en la Batalla de Villarreal según el Registro Civil nº 2 de Bilbao el 01/12/1936.

Eguino Araquistain Santiago. Eusko Gudarostean motor-gidari ibili zen; 1937ko martxoaren 12an, 35 urte zituela, Zornotzan lanean ari zela hil zen / 12 de marzo de 1937 falleció en acto de servicio en Zornotza a los 35 años, alistado en el Eusko Gudarostea como motorista.

Fernández de Arroyabe Eduardo. Asturiasko (Oviedo) frontean hil zen sukarren ondorioz, 1937ko otsailaren 22an, 20 urte zituela / Fallecido en el frente de Asturias (Oviedo) el 22 de febrero de 1937 a consecuencia de fiebres, cuando tenía 20 años de edad .

Garate Lizarralde José María. Durangoko ospitalean hil zen, 1937ko otsailaren 24an, frontean jasotako zauriengatik / Fallecido en el hospital de Durango por heridas en el frente el 24/02/1937.

Trecu Egaña José Ignacio. Gerra Zibilean parte hartu zuen; Eusko Gudarosteko boluntarioa izan zen Amuategui batailoian. Muzketan hil zen, 1937ko apirilaren 22an / Tomó parte en la guerra civil como voluntario del Ejército vasco formando en el batallón Amuategui. Muerto en Muzketa el 22 de abril de 1937.

Irigoyen Erquicia Antonio. Gerra garaian, Garraio sailean ibili zen eta gerora Itxarkundia batailoiko gudari izan zen. Brinkolan desagertua eta, beharbada, hila / Durante la guerra perteneció a la sección de transportes, y posteriormente como gudari en el batallón Itxarkundia. Desaparecido, y posiblemente fallecido, en Brinkola.

Jayo Beriguiristain José. Treneko fakturatzaille baimendua; errepresaliatua izan zen. Espetxetik irten zenean, suzko armaz hil zuten faroko bidean / Factor autorizado del ferrocarril, Fallecido cuando fue liberado de la cárcel por arma de fuego.

Echave Pedro José. 1920an Zumaian jaioa. Gerra Zibilean parte hartu zuen, gudari boluntarioa izan zen Eusko Gudarostean. Legutioko batailan hil zen / Nacido en 1920 en Zumaia. Falleció en la batalla de Villarreal. Gudari enterrado en Gernika.

Olaizola Echave José Martín. 19 urterekin Butroiko Gazteluaren aldamenen dagoen baserri batean lurperatu zuten / Enviado con 19 años al frente, murió en un bombardeo mientras se hallaba en el monte. Fue enterrado en un caserío situado en las cercanías del castillo de Butrón en Bizkaia.

Rodríguez Sala José. Gerra Zibilean ibilitako karabineroa. 1936ko abenduaren 2an hil zen / Carabinero que sirvió en la guerra civil. Falleció el 2 /12/1936.

Sagasti Aizpurua Sebastián. Bilboko Ospitale Zibilean hil zen gerrako zaurien ondorioz, 1937ko urtarrilaren 4an / Falleció en el Hospital Civil Bilbao el 1937/01/04 por lesiones de guerra.

Sanchez Aperribay Fermín. UGTko afiliatua. Boluntario ibili zen Gerra Zibilean, Gipuzkoako milizietan mobilizatuta. Frontean hil zen. / Afilado a la UGT. Tomó parte en la guerra civil como voluntario movilizado por Gipuzkoa formando en las milicias. Falleció en el frente.

Sarasqueta Ruiz Victor. Gerra Zibilean parte hartu zuen; Eusko Gudarosteko boluntarioa izan zen México batailoian. Fusilatu egin zuten Bilbon, 1938ko uztailaren 11n. / Tomó parte en la guerra civil como voluntario del Ejército vasco dentro del batallón México. Fue fusilado en Bilbao el 11 de julio 1938.

Trecu Egaña José Ignacio. Muzketan hil zen, 1937ko apirilaren 22an / Fallecido en el frente de Muzketa el 22/04/1937.

Trecu Egaña Julián. Muzketan hil zen, 1937ko apirilaren 22an / Fallecido en el frente de Muzketa el 22/04/1937.

Uria Iparreguirre Tomas. Asturiaseko frontean hil zen 1937ko otsailaren 22an eta Gernikan lurperatu zuten / Fallece en el frente de Asturias el 22 /02/1937, enterrado en Gernika.

Zubia Echave José María. Gudaria, borrokan hil zen Sollube mendian, 1937ko maiatzaren 4an / Falleció en acción de guerra en el monte Sollube el 4 de mayo de 1937.

Gainerako gehienek, hurrengo urteetan, gerran zehar nahiz gerraoste hasieran, bizi izan zuten irabazleek abian jarritako politikaren gako bilakatu zen *errepresioa* hitzaren esanahia.

Para el resto, en los años siguientes, tanto durante la guerra como en la inmediata posguerra, muchos experimentarían lo que significa una palabra que entonces se convertiría en la clave de la política puesta en marcha por los vencedores: *la represión*.

3.3. LUBAKIAREN BESTE ALDETIK. ZUMAIARRAK ALDE NAZIONALEAN

Historia faltsutzen eta memoriari iruzur egiten ariko ginateke matxinatutako armadako lerroetan zumaiarrak ere izan zirela ezkututako bagenu. Kidetasunagatik, behartuta, interesagatik edo faktore horien guztien nahasketagatik sartuko ziren, baina, izatez, izan ziren. Iraganaren egiazko oroitzapena eta ulermena izateko, Zumaiaiko gizarteak, eta, oro har, euskal gizarte osoa osatzen zuten alderdi guztiak sartu beharra dauzkagu; izan ere, ikusi dugun moduan, aniztasun ideologiko handia zuen bere baitan eta, gainera, aniztasun hori intentsitate handiagoz azaleratuko zen dramatismo uneetan eta gerrak garrantzia hartu ahala.

Izatez, dagoeneko aipatu dugun moduan, Zumaian presentzia izan zuten aurreko hamarkadetan eta, noski, garai errepublikanoan, gerra hasitakoan matxinatuen alde egingo zuten indarrek, batez ere karlismoari lotutako taldeek; izan ere, Gipuzkoa osoan bezala, hemen ere karlismoak ezarpen handia izan zuen. Zumaiaiko erretorea bera, Wenceslao Mayora, zenbait egilek ibilbide luzeko karlista beteranotzat identifikatzen dute; hain zuzen ere, Sanchez Erauskinek adierazten duen moduan, karlismoaren alde jarduteagatik saritua izan zen Mayora (“eliztarren buruan sartzeagatik sustraitutako bere sineste politiko sendoak”)⁴⁶ eta, horrela, Durangoko Andre Mariaren elizako erretore izendatu zuten.

3.3. DESDE EL OTRO LADO DE LA TRINCHERA. ZUMAIARRAS EN EL “BANDO NACIONAL”

Estaríamos falseando la historia y engañando a la memoria si ocultáramos el hecho de que también hubo zumaiarras que, en el contexto de la guerra civil recién comenzada, se incorporaron, bien por afinidad, por obligación, por interés, o por una mezcla de todos esos factores, en las filas del ejército sublevado. El recuerdo y la comprensión veraces del pasado exigen que integremos todas las diversas facetas que conformaban una sociedad como la zumaiarra, y en conjunto la totalidad de la vasca, que como hemos visto presentaba una notable diversidad ideológica en su seno, diversidad que sin duda afloraría con mayor intensidad en unos momentos de dramatismo y la relevancia de una contienda bélica.

De hecho, como ya hemos señalado, en Zumaia también habían tenido una presencia en las décadas anteriores, y por supuesto durante el periodo republicano, fuerzas que tras el inicio de la guerra se decantarían por el bando de los sublevados, muy especialmente los grupos vinculados al carlismo, que fueron muy activos y con una notable implantación en toda la provincia de Gipuzkoa. El propio párroco de Zumaia, Wenceslao Mayora, es identificado por diversos autores como un veterano carlista con una larga actuación; de hecho, como indica Sánchez Erauskin, Mayora sería premiado por su actividad en favor del carlismo (por “inculcar en los feligreses sus arraigadas convicciones políticas”)⁴⁶ con una promoción a párroco de la iglesia de Santa María de Durango en Bizkaia.



Zumaiaiko errekteak. "Zumaiaiko horda gorri-separatistaren gaitu izandakoen" Oherrezko Taldea. 1937 / Requetés de Zumaia. Cuadro de Honor de los "Ex cautivos de la horda Rojo-Separatista-Zumaya." 1937.

⁴⁶ Sanchez Erauskin, Javier; "El nacionalcatolicismo como instrumento cultural y legitimador del franquismo en el País Vasco (1936-1945)", Vasconia, 27 (1998), 242. or. / SANCHEZ ERAUSKIN, Javier; "El nacionalcatolicismo como instrumento cultural y legitimador del franquismo en el País Vasco (1936-1945)", Vasconia, 27 (1998), p. 242.

ZUMAIA 1936-1945

Conculcación de los Derechos Humanos y represión durante la Guerra Civil y el Primer Franquismo

Horren adibide dira Gipuzkoako erreketen tertzioetan (Mola jeneralaren tropek Donostia hartzeaz bat eratu zirenak) izena eman zuten zumaiar boluntarioak. Zehazki esanda, hiru mila gipuzkoarretik gora izan ziren probintziako boluntarioek antolatutako hiru tertzioetan (Oriamendi, San Ignacio eta Zumalacárregui)⁴⁷, eta horien artean 36 boluntario zumaiar hauek aurkitu ditugu:

esan daiteke jasan zutenek kasu batzuetan bortizkiago jasan zutela), egunerokotasunagatik baizik. Egunero edo ia egunero egindako umiliazioei buruz ari gara, boterea zeukatela zekitenek eginak, eta egoeraz neurritz kanpo baliatzen zirenak. Kasu horretan, zigor sozialari bidegabekeriaren aurka babestu ezinak sortzen zuen ezintasuna gehitzen zitzaion. Gerra irabazi zutenek zuten zalantzarik izaten, kasu askotan, garaituekiko harremanetan nagusikeriaz jokatzeko. Horrela kontatzen du, adibidez, Jontxu Altzibarrek:

Galdera.- Beraz, zuei ez zizueten denda kendu, ezta?

Erantzuna.- Ez. Guri ez. Beste abertzale asko dendarik gabe eta etxerik gabe geatu hitxuan, baina gu ez. Baina,

nos intensa; de hecho, casi puede decirse que en algunos casos fue incluso experimentada de un modo más fuerte por los que la sufrieron, precisamente por su cotidianeidad. Se trata de las humillaciones diarias u habituales ejercidas por aquellos que se sabían con el poder, y que abusaban de su situación. En este caso, al castigo social se unía la impotencia ante la imposibilidad de defenderse contra la injusticia. Los ganadores de la guerra, en muchos casos, no dudaban en actuar con prepotencia en su relación con los vencidos. Así cuenta por ejemplo Jontxu Altzibar:

Pregunta.- Entonces, a vosotros no os quitaron la tienda, ¿no?

Respuesta.- No. A nosotros no. Otros muchos abertzales se quedaron sin tienda y sin casa, pero nosotros no.

nolakoa zen jende hau! Nola denda ez ziguten kendu, karlistarekete hauen mutil koskorak dendara etortzen hitxuan harro-harro einda. Aizu, Xanti! Lan hau ein behar dezu! Eh, Xanti!, beste hau konpondu behar dezu! Mutil koskor hauek Pelayos hitxuan. (Flechas falangistak ziren eta Pelayos erreketek, gaztetxoak) Gure aittak, zer ba?, esaten bazun, aizu!, sarjentuak agindu du eta zeuk ikusiko dezu!, esaten huan hauen erantzuna... Debalde! Eta Alberto karnizeroari seboa kentzen ziu. Akordatzen nauk egun batean neu karnizeixan nintzala nola etorri zan mutil koskor hauetako bat eta Albertori esan ziola: Sarjentuak esan dit seboa emateko! Eskazeixa zeoan orduan, olixorik ez, seboa ere gutxi... Alberto nazkanazka einda zeoan beti seboa kentzera juten zialako eta esan zioan mutilari: Seboa pusketa haundixa emateko esango zian, ba? Eta mutil koskorak harro: Bai, noski. Haundi-haundixa! Eta Albertok: Ba esaixok hire sarjentu horrei pusketa haundirik ez daukatela. Han jun huan mutil koskorra ezer gabe kalera⁹⁵.

Egoera hori ezarri zen frankistak Zumaiaren kontrolarekin egin ziren unetik bertatik. Zainduak izan zirenek eta, kasu batzuetan, errepublikaren aldeko gogoberotasun ezagatik espetxeratuak ere izan zirenek, egoeraren aldaketaz baliatu ziren alderdi oso ezberdina agertzeko:

Akordatzen nax frankistak sartu zianian emakume karlista danak nola ibili zian txapel gorrixa jantzita harro-harro einda. Bueno! Guk dana etxetikan ikusten giñun. Pasa-kalian ibiltzen zian danak harro-harro beren txapel gorrixekin eta borla horixekin⁹⁶.

Itsumustuan orokortu ezin bada ere, egia da asko baliatu zirela egoera berriaz, auzotarren aurkako mendekuak egiteko, harrokeriazko jokabideen bidez, harremanetan nagusikeria agertuz, eta kasu batzuetan, konfiskazioaz harago zihoan zuzeneko lapurreten bidez:

Akordatzen nauk San Juan Itturriko aldameneko etxe bateko balkoitik txapel gorri hauek muebleak kalera bota zituztela. Kalte eiteko bakarrik.

Beste batean etorri dek gure dendara Julio Morrongoz-en semea eta: "Aizu! Zure semearen txistua hamen eongo da, ba?" Gu bildurak akabatzen. Gure aitak, "Zer ba?" "Ba, hor reketek bat dao txistua jotzen ikasi nahi duana eta honea etortzeko esan dit, zuek bat badakazuela-eta". Eta gure aittak anaixaren txistua eman behar izan zioan.

Hauek herri osoan lapurtzen zien. Josteko makinak, alfonbrak... danetik.

Estazixoko bagoietatik fruta, sagar lapurreta... Behin batian Luakixetatik txarri bat lapurtu eta mataixan hil zutela akordatzen nauk⁹⁷.

Pero, ¡cómo era esta gente! Cómo no nos quitaron la tienda, los chavales de estos carlistas requetés venían a la tienda todo arrogantes. ¡Oye, Xanti! ¡Tienes que hacer este trabajo! ¡Eh, Xanti, tienes que arreglar esto! Estos chavales eran Pelayos. (Los falangistas eran Flechas y los requetés Pelayos, jovencitos) Si nuestro padre decía: "¿Qué pues?" ellos contestaban: "¡Oye, lo ha mandado el sargento y tú verás!"... ¡Gratis! Y a Alberto el carnicero le quitaban el sebo. Me acuerdo que un día, estando yo en la carnicería como vino un chaval de esos y le dijo a Alberto: "¡El sargento me ha dicho que me des sebo!" Entonces había escasez, no había aceite, poco sebo... Alberto estaba asqueado porque siempre iban a quitarle sebo y le dijo al chaval: "¿Te habrá dicho que le lleves un trozo grande, no?" Y el chaval todo chulo: "Sí, claro. ¡Muy grande!" Y Alberto: "Pues dile a ese sargento tuyo que no tengo trozos grandes". Así se fue el chaval a la calle sin nada⁹⁵.

Esta situación se impuso desde el mismo momento en que los franquistas se hicieron con el control de Zumaia. Quienes habían sido vigilados, y en algunos casos incluso llegado a ser encarcelados por su falta de entusiasmo en favor de la república, aprovecharon el cambio de tornas para mostrar una cara muy diferente:

Recuerdo como, cuando entraron los franquistas, todas las mujeres carlistas anduvieron con boina roja, todo arrogantes. ¡Bueno! Nosotros lo veíamos todo desde casa. Todas andaban en pasacalles, todo arrogantes con su boina roja y las borlas amarillas⁹⁶.

Aunque no es posible generalizar irreflexivamente, lo cierto es que fueron muchos los que se aprovecharon de la nueva situación para ejecutar venganzas sobre sus propios convecinos, a través de comportamientos fanfarrones, la prepotencia en la relación, y en algunos casos, el robo directo que iba más allá de la simple incautación:

Recuerdo que del balcón de una casa de al lado de San Juan Iturri esos boinas rojas echaron los muebles a la calle. Solo para perjudicar.

En otra ocasión, vino a nuestra tienda el hijo de Julio Morrongoz y: "¡Oye! ¿El txistu de tu hijo lo tendrás por aquí, no?" Nosotros muertos de miedo. Nuestro padre: "¿Por qué?" "Por qué hay ahí un requeté que quiere aprender a tocar el txistu y me ha dicho que venga aquí, porque vosotros ya tenéis uno". Y nuestro padre le tuvo que dar el txistu del hermano.

Estos robaban en todo el pueblo. Máquinas de coser, alfombras... de todo.

De los vagones de la estación fruta, robo de manzanas... Una vez, recuerdo que robaron un cerdo de las riberas nuevas (lubakis) y lo mataron en el matadero⁹⁷.

⁹⁵ Jontxu Altzibar Eizagirrenen testigantza (Baleike, 2005). / Testimonio de Jontxu Altzibar Eizagirre.

⁹⁶ Irene Yeregi Salegiren testigantza (Baleike, 2005). / Testimonio de Irene Yeregi Salegi.

⁹⁷ Jontxu Altzibar Eizagirrenen testigantza (Baleike, 2005). / Testimonio de Jontxu Altzibar Eizagirre.

or.

Horri gehitu zitzaion betebeharren orokortzea, errepresioa jasaten zutenak umiliazio publiko eta kolektibora zeramatzana. Segur aski ile-mozketak izan ziren biderik ezagunena, berezitasuntzat gizatalde zehatz batengan, emakumeengan, arreta jartzea izan zuena; gainera, emakume horiek publikoki paseatzera behartuta iraintzen zituzten. Zigor bereziki umiliantea izan zen, baina oso landua, frankistentzat bi funtzio zituen: batetik, zigorra bera eta, bestetik, eredugarria izatea. Tratamendu hori bereziki gordetzen zuten beraien ideia politikoak publikoki defendatzeagatik nabarmendu ziren emakumeentzat, horrek, ideologia frankistak *sexu ahula* deitzen zuenarentzat zeukan bigarren mailakoaren eta baztertutakoaren paperaren mugak urratzen bazituen ere.

Hiru emakumeei ilea zero moztu zioten. Bat Jexuxa "Rapa" zan eta bestia Paxiegoenekoa. Ilea zero moztu eta kaliaz ibiliazi zituzten⁹⁸.

Gero, bai, hau oso ondo akordatzan naiz, hiru edo lau emakume ilea zero moztuta kaliaz pasiatzen ibiliazi zituen, bat Jexuxa Manterola zan. Kontu hauek ez dia sekula ahazten. Buruan grabatuta geatzen dia. Eta gure aita eta gure bi izekuak zeatik ihes ein zuten ez dakit. Gorriak jun eta Francon tropak sartu eta gero ere ixkutatuta geatu zian. Haiek ez zian azaldu auskalo zenbat denboran⁹⁹.

Se sumó a esto la generalización de obligaciones que llevaban a la humillación pública y colectiva de los que sufrían la represión. Posiblemente el medio más conocido, que tuvo además la particularidad de centrarse en un colectivo específico, las mujeres, fue el de los cortes de pelo, siendo forzadas quienes lo sufrían al escarnio del paseo público. Fue un castigo especialmente humillante, pero muy elaborado, que tenía a ojos de los franquistas una doble función, tanto punitiva como sobre todo ejemplarizante. Este tratamiento se reservaba especialmente a aquellas mujeres que se habían destacado en la defensa pública de sus ideales políticos, transgrediendo de este modo las fronteras del papel secundario y relegado que la ideología franquista reservaba para lo que denominaban "sexo débil".

Cortaron el pelo a cero a las tres mujeres. Una era Jexuxa "Rapa" y la otra la de Paxiego. Les raparon el pelo al cero y les hicieron pasear por la calle⁹⁸.

Después, sí, esto lo recuerdo muy bien, a tres o cuatro mujeres les raparon el pelo al cero y les hicieron pasear por la calle, una era Jexuxa Manterola. Esas cosas no se olvidan nunca. Se quedan grabadas en la cabeza. Y no recuerdo por que escaparon nuestro padre y nuestras dos tías. Después de que se fueran los rojos y entraran las tropas de Franco siguieron escondidos. No aparecieron hasta no sé cuánto tiempo después⁹⁹.



Jexuxa Manterola, errepresaliatua izan zen emakumea bere ideologiagatik hilea moztu zioten. / Jesusa Manterola, mujer Zumaiarra que le cortaron el pelo por su ideología.

⁹⁸ Irene Yeregi Salegiren testigantza (Baleike, 2007). / Testimonio de Irene Yeregi Salegi.

⁹⁹ Berna Aginagalde Olaizolaren testigantza (Baleike, 2007). / Testimonio de Berna Aginagalde Olaizola.

Ilea publikoan moztea bezain dramatikoa izan gabe, beste zumaiar asko parte hartzera behartu zituzten altxatuek gerran zehar lortutako garaipenen ospakizunetan eta, gerra irabazi ostean, urtez urte antolatu ziren oroitzapen ospakizun guztietan. Ekitaldi horietan bere kabuz ez agertzeak berekin zekartzan, kontrol sozial zorrotzeko giroa izanik, mota askotako errepresaliak.


Gero, Francok herri bat hartzen zun bakoitzean, txapel gorrixa jantzi eta Te Deum-a errezatzera, gerra irabazten aialako eskerrak emateko¹⁰⁰.

Falangistak uste det. Falangistak Maria Jexux Lisbonak oain denda daukan goixan eon zian eta gure izeko eta beste emakume batzuek erropak garbitzea eamaten zituen. Debalde, ez zixuen perro-txikirik ere ematen. Eta han falangista asko ezagutu zittun. Geo, Zumaiko bi emakume falangistak "Plato único"ko diru bila etortzen zian etxera. Guk erriala-edo ematen giñuzen. Eta hala zijuan gauza. Bonbardeoa zanian eta beaixek irabazten zuenian desfilea izaten zan. Hango bueltako kanpaiak, pinbili-panbala! eta hango katxaperua! Zumaiko emakume frankistak harro-harro margaritz jantzita ibiltzen zian. Danak diarka: Honelako herrixa harrapatu duela guriak!¹⁰¹.


Sin llegar al dramatismo personal del rapado público del pelo, otros muchos zumaiarrras se vieron en la obligación de participar en las celebraciones de las sucesivas victorias de los sublevados, a lo largo de la guerra, y luego posteriormente a la victoria, en todas las conmemoraciones que año tras año se fueron organizando. La no aparición espontánea en estos actos llevaba consigo, en un ambiente de estricto control social, a represalias de diversa índole.

Más tarde, cada vez que Franco tomaba un pueblo, se ponían la boina roja y a rezar el Te Deum, para agradecer que estaban ganando la guerra¹⁰⁰.

Creo que falangistas. Los falangistas estuvieron encima de donde ahora tiene la tienda María Jexux Lisbona, y se llevaron a nuestra tía y a otras mujeres a limpiar la ropa. Gratis, no te daban ni una perra chica. Y allí conoció a muchos falangistas. Después, dos mujeres falangistas de Zumaia solían venir en busca de dinero para el "Plato único". Nosotros dábamos un real o algo así. Y así iba la cosa. Cuando había bombardeo y ganaban ellos, hacían desfile. Volteo de campanas, ¡pinbili-panbala! y cohetes por doquier. Las mujeres franquistas de Zumaia iban todo arrogantes vestidas de margarita. Todas gritando: ¡Que los nuestros han capturado tal pueblo!¹⁰¹.



Eskola Nazionalarentzako material didaktikoa. / Material didáctico para la Escuela Nacional.




Matxinatuen ideologia txertatzeko argitalpena / Publicación para inculcar la ideología de los sublevados.

¹⁰⁰ Jontxu Altzibar Eizagirren testigantza (Baleike, 2005). / Testimonio de Jontxu Altzibar Eizagirre.

¹⁰¹ Alizia Perez Etxaberen testigantza (Baleike, 2008). / Testimonio de Alizia Perez Etxabe.

or.




= OSA & ALADREN =



1 - José María Aizpurua; 2 - Juan Olaizola Seguro; 3 - Fernando Rodríguez (+); 4 - Rafael del Pilar Zufia; 5 - Ezezaguna/desconocido; Albizu; 6 - Ángel María Curiel; 7 - Antonio Prieto Fernández; 8 - Ezezaguna/desconocido; "Lutxo" Olaizola; 9 - Fernando Antia; 10 - Javier del Pilar Zufia; 11 - Juan Albizu (+); 12 - José Luis Eizagirre; 13 - Ezezaguna/desconocido; Albizu; 14 - Jesús Mari Irureta; 15 - General Moscardó (+); 16 - Ignacio Osa (+); 17 - José Artetxe; 18 - M.M. Garate; 19 - Carmelo Eizagirre; 20 - Angel Curiel Montero (+); 21 - Jesús Aizpurua; 22 - Antonio Eizagirre; 23 - José Miguel Antia (+); 24 - Antonio Etxabe; 25 - José Antonio Barigana; 26 - Manuel Regalada; 27 - Alejandro Orena.


Queda prohibido hablar euskera

Una exposición recrea y recuerda cómo en los años 40 y 50 se restringía la expresión de esta lengua y se multaba o castigaba por practicarla



AULAS Pupitres recreando un aula, con una pizarra en la que se lee el castigo por hablar "vascuence". IRUÑAPRESS

Frankismo garaiko gela baten birsortzea. / Recreación de una aula de estudio en el franquismo.



Zumaiatik botata izan ziren Maristen Eskola. 1944. / Colegio Maristas de Zumaia. Expulsados en 1944.

or.

Azkenik, umeak ere ez ziren kontrol eta errepresio ideologikoko egoera berritik kanpo geratu, nahiz eta zentzu doktrinatzaila zuten errepresioa baino. Sánchez Erauskinek dioten moduan: "lehen hezkuntzak nazionalismo espainiarra sartzen zuten buruan eta umeek formulen berbalismoan bildutako kontsigna nahaspila bat jasotzen zuten, segur aski umeen burura gutxi egokituta zeudenak. (...) Aberria eta erlijioa, Espainia eta eliza katolikoa, identifikatzea da etorkizuneko herritarren gogoa moldatzea eskuetan duen lehen hezkuntzaren leitmotiva¹⁰². Edo, hobeto esanda, estatu totalitario bateko etorkizuneko mendekoena. Zumaiaiko umeak ez ziren salbuespena izan:

Halako batian, etorri nitxan bazkeita, eta orduan bada-kizu jatorduko orduak zer izaten zian. Aitta tailerretik etxea etorri (eguerdiko hamabitan puntuan) eta danok mahaixan ikustea gustatzen zikon. Ni etorri nitxanian, berandu, eta aittak esan zian: Zer pasatzen da horren berandu etortzeko? Kastigatuta? Zeatik? Eta nik: Ez detelako "Historia de España" jakin. Aittak orduan izugarritzko zartada eman zixon mahaxai eta: Zer? "Historia de España" ez dezulako jakin kastigatuta?! Arratsaldian juten zeanian esan hau monjari: Me ha dicho mi padre que no quiere que yo aprenda la historia de España, que la verdadera historia de España me enseñará él. Jun nai arratsaldian, bate maliziarik gabe, eta esan dixot monjari: Hermana, me ha dicho mi padre que... Ah! Pues muy bien, monjak. Handik aurrera, falangista zikin haixek Historia de España esplikatzen hasitzen zianian, esaten zien: Albizu, salga usted fuera! Eta hantxe eoten nitxan kanpuan. Eta beste neskaai esaten omen zixuen: Esta niña sale fuera porque su padre no quiere que aprenda la historia de España, allá él, si quiere que su hija sea una ignorante...¹⁰³.

Finalmente, tampoco la infancia quedó fuera del nuevo ambiente de control y represión ideológica, aunque con un sentido más adoctrinador que represivo. Como señala Sánchez Erauskin: "la enseñanza primaria inculca un nacionalismo español donde el niño recibe un maremagnum de consignas envueltas en un verbalismo de fórmulas seguramente muy poco adaptadas a la mente infantil. (...) La identificación de patria y religión, de España e iglesia católica es el leit-motiv de una enseñanza primaria que tiene en sus manos el modelar la mente de los futuros ciudadanos"¹⁰². O, más bien, de los futuros súbditos de un estado totalitario. Los niños de Zumaia no fueron una excepción:


De pronto, vine a comer, y ya sabes cómo eran entonces las horas de las comidas. El padre venía del taller, a las doce del mediodía en punto, y le gustaba vernos a todos a la mesa. Cuando llegué yo, tarde, me dijo el padre: "¿Qué pasa para venir tan tarde? ¿Castigada? ¿Por qué? Y yo: "Porque no sabía Historia de España" Entonces, el padre dio un gran golpe sobre la mesa y: "¿Cómo, castigada por que no sabías Historia de España? A la tarde, cuando vayas dile esto a la monja: 'Me ha dicho mi padre que no quiere que yo aprenda la historia de España, que la verdadera historia de España me enseñará él'." Fui a la tarde, sin ninguna malicia, y le dije a la monja: "Hermana, me ha dicho mi padre que..." "Ah! Pues muy bien", me dijo la monja. Desde entonces, cuando aquellos sucios falangistas empezaban a explicar Historia de España, me decían: "¡Albizu, salga usted fuera!" Y allí solía estar fuera. Y a las otras chicas les debían decir: "Esta niña sale fuera porque su padre no quiere que aprenda la historia de España, allá él, si quiere que su hija sea una ignorante..."¹⁰³.



Blanca Mendizabal Barreda gerra zibilaren ondorioz bidalita izandako maestra. / Blanca Mendizabal Barreda maestra depurada como consecuencia de la guerra civil.

¹⁰² SÁNCHEZ ERAUSKIN, Javier; "El nacionalcatolicismo como instrumento cultural y legitimador del franquismo en el País Vasco (1936-1945)", Vasconia, 27 (1998), or. 241. / SÁNCHEZ ERAUSKIN, Javier; "El nacionalcatolicismo como instrumento cultural y legitimador del franquismo en el País Vasco (1936-1945)", Vasconia, 27 (1998), p. 241.

¹⁰³ Lore Albizu Irigoienen testigantza (Baleike, 2008). / Testimonio de Lore Albizu Irigoien.




Gerra osteko Zumaian, biztiantelak bere bizitza berregiten. / Habitantes de Zumaia, después de la guerra rehaciendo su día a día.

5.

Ondorioak (eta ondorenak)

Conclusión. Que no final



or.

Ikerketa honetan zehar, irakurleari jakinarazten saiatu gara huts egindako estatu-kolpe hark zer suposatu zuen, izan ere, gerra zibil odoltsua izaten amaitu zuen. Eta, era berean, gerrak eta armen bidez erregimen diktatorial eta totalitario berri bat inposatzeak Zumaiaiko itsas herrian izandako ondorio tragikoak zehazten saiatu gara.

Gerra lehertzeak mugarria ezarri zuen zumaiarren bizitzan, familiarteko askok norabiderik gabe ihes egin zutela ikusi baitzuten, balak herriko kaleetara iritsi aurretik. Matxinatuen tropak sartzeak esan nahi zuen aldeetako batek bestea indarraren bidez menderatzea lortu zuela. Gure kasuan, Zumaia erreketek karlisten tropa ugari, falangisten troparen batek, eta Nafarroan altxatutako armadak berak hartu zuten. Ezagunen arteko mendeku pertsonalak izan ziren, konkistatutako lurraldea etsai politikoen garbiketaren bidez segurtatzeko aitzakiarekin. Salaketak biderkatu egin ziren aurkaria ezabatzeko asmo argiarekin. Beraien burua Espainia berriaren eta benetakoaren babesletzat jotzen zutenek zioten egia eta probidentzia aldeko zituztela, eta, beraz, haren izenean egiten zuten edozein ekintza bidezkotzat hartzen zuten.

Atxiloketak, arpilatzeak eta fusilamenduak hasi ziren. Hasieran, armada erregular baten eta herriaren arteko borroka desorekatua zena, errepresio zabal eta orokortua bilakatu zen, maila moraleko gogoetetan gelditzen ez zena. Tropa frankistek aurkitutako Zumaian bi alde zeuden soilik: batetik, irabazle izango zirenen jarraitzaileak, eta bestetik, emakumeak, umeak eta adinekoak, ihes egindakoen edo Errepublikari leiala zen armadan izena emandakoen familiartekoak. Azken horiek gerra irabazteko itxaropenez ari ziren borrokan eta, zergatik ez aitortu, etorkizun justuagoa edo, gutxienez, askatasun demokratikoen erregimen batean herritarren borondatearen errespetuan oinarrituko zena lortzeko.

Aste gutxian, matxinatuek egindako noizbehinkako exekuzioetatik errepresio antolatu eta sistematizatura igaro ginen. Etsaiei buruz izan zezaketen datu esanguratsu oro artxibatzea erabaki zuten, datu pertsonalak (altuera, ilearen eta begien kolorea) eta haien bizitzari buruzko edozein motatako informazioa (kidetasun politikoak, zein alderdiko militante izan ziren edo zein zituzten gustuko, zein lekuetan ibiltzen ziren, ohiko eliztarrak ziren edo ez ziren mezara joaten...).

Horren ostean etorri ziren zigorrak. Izan zitekeen, besteak beste, zeure herritik kanporatzea, zure ondasunak konfiskatzea, askatasuna murriztea, kontzentrazio-esparruan eta espetxean sartzea, eta heriotz-zigorra jasotzea.

Dena den, gerraren amaierarekin ez zen guztia bukatu: okerrera iristear zegoen. Diktadura basatiak jarraitu zion; lehenengo urteetan gosete latzak lagunduta iritsi zena, gainera. Erdiratutako herri baten aurrean gaude, egunero bizirautea lortzeko zailtasunei gehitu behar baitzitzaizkien, hormigoizko lauza bat bailitzan, askatasunak, banakako enak nahiz kolektiboak, hertsatuko zituen lege-andana.

Historia bakarra dela esan ohi da, baina memoriak asko direla, izan ere, gertaerak bizi izandako edo gertaerak gogoratzen dituzten pertsona adina omen daude eta. Gaur egun ere, memoriak iraun egiten dute ankerkeria horietako bakoitza jasan zuten haiekin guztiekin, bizi

Durante esta investigación, hemos intentado trasladar al lector todo aquello que supuso el intento fallido del golpe de estado, que terminó derivando en una cruenta guerra civil. Y, del mismo modo, hemos tratado de determinar las consecuencias trágicas que la guerra y la imposición por las armas de un nuevo régimen dictatorial y totalitario tuvieron en la villa marítima de Zumaia.

El estallido de la guerra marcó un antes y un después entre sus vecinos, que vieron cómo muchos de sus familiares marchaban sin rumbo, antes de que las balas llegasen a sus calles. La entrada de las tropas sublevadas significaba que uno de los bandos había conseguido imponerse mediante la fuerza al otro. En este caso, Zumaia fue tomada por numerosas tropas del requeté carlista, algún que otro falangista, y el propio ejército sublevado en Navarra. Las venganzas personales se impusieron entre conocidos, con la excusa de asegurar el terreno conquistado mediante la depuración del rival político. Las denuncias se multiplicaron con una clara intención de eliminar al adversario. Los auto-denominados defensores de la nueva y verdadera España decían tener de su lado la verdad y la providencia, por lo que consideraban justificado cualquier acto que cometieran en su nombre.

Comenzaron los arrestos, saqueos y fusilamientos. Lo que comenzó siendo una lucha desigual entre un Ejército regular y un pueblo, derivó en una represión amplia y generalizada, que no paraba en consideraciones de orden moral. En la Zumaia que encontraron las tropas franquistas solo quedaban dos bandos: por un lado los seguidores de la causa vencedora, y por el otro, mujeres, niños y ancianos familiares de huidos o de alistados en el ejército leal a la República que se hallaban luchando con esperanza de ganar la guerra y, por qué no reconocerlo, por un futuro más justo o que, por lo menos, se basara en el respeto a la voluntad popular en un régimen de libertades democráticas.

A las pocas semanas, los ajusticiamientos esporádicos por parte de los facciosos dieron paso a una represión organizada y sistematizada. Donde se optó por archivar todo los datos de relevancia que podían tener sobre sus enemigos, desde datos personales (altura, color de pelo y ojos) hasta todo tipo de información sobre sus vida, afinidades políticas, partidos en los que militaron o con los que simpatizaron, sitios que frecuentaban, o incluso si eran feligreses habituales o no iban a misa.

Después de esto vinieron las diferentes penas; que podían ser desde la expulsión de su propio pueblo, la requisa de sus pertenencias, la restricción de libertad, o el ingreso en campos de concentración y cárceles, hasta la condena a pena de muerte.

A pesar de todo ello, no terminó todo con el fin de la guerra lo peor estaba por llegar. Le siguió una brutal dictadura que durante sus primeros años vino acompañada de una atroz hambre. Nos encontramos con un pueblo desgarrado al que a las dificultades de conseguir sobrevivir cada día se le sumaría, como una losa de hormigón, toda una batería de leyes que coaccionarán las libertades, tanto individuales como colectivas.

Suele decirse que la historia es única, pero que las memorias son múltiples, ya que hay tantas como personas vivieron y recuerdan los acontecimientos. Incluso hoy en día,

izan gabe ere, haietaz gogoratzen garen guztion buruetan. Memoria eta historia ez dira baztertzailleak, elkar osagarriak baizik. Ahalik eta memoria gehien berreskuratu beharra daukagu, ahalik eta historia osoena berrikeri ahal izan dezagun. Horretarako beharrezkoa da sufrimendura halabeharrez bideratuak zeuden gizon eta emakume horien ausardia gogoratzea: herriaren duintasunari eustearren, askatasuna, ohiturak, kultura eta hizkuntza mantendu baitzituzten. Orain guk haien memoria bizirik mantendu nahi dugu, urte ilun haietan jasandakoa ez ahazteko asmoz, eta espero dugu memoria lantzetik etorkizun hobea ereiteko tresnatzat balioko duen historia garatzera iritsiko garela.

las memorias perduran en la mente de todos aquellos que, sin haberlo vivido, nos acordamos de todos aquellos que sufrieron todas y cada una de estas atrocidades. Memoria e historia no son excluyentes, sino mutuamente complementarias. Necesitamos recuperar tantas memorias como sean posibles, a fin de que podamos reconstruir una historia lo más completa posible. Para ello es preciso que recordemos la valentía de estos hombres y mujeres que se vieron abocados al sufrimiento por mantener la dignidad de su pueblo, conservando sus libertades, costumbres, cultura e idioma. Ahora nosotros queremos mantener viva su memoria, con intención de no olvidar lo sufrido durante esos oscuros años, esperando que del cultivo de la memoria podamos llegar a elaborar una historia que sirva como herramienta para labrar un futuro mejor.

2016/10/25

Joseba Esmal (ZUMAIA)

Hemen bidaltzen dirkiat nere emartaren aitak Guerra Civilean pasatako historia neri berak kontatu takeak:

- MATEO OLIDEN AIZPURUA (P. Oliden jaioc)
- MARIA LARRAÑAGA ARAKISTIA (E. Estee)

Testigantzak

Testimonios

Guerra denboran Zumaiara detenitu (1936) eta Santonia'ko penalean eramana.

Santoniaan Afuntzuko zai zuzendle Italianoekin etoni eta berriek Valentzia eramana fruenta Valentziaan fruenta aurretik jarri eta prisionero bezela ZANPAK, TRINTXERAK t. e. eginez indar nazionalarekin, beren buruak beti arriskuan jarriaz.

Ternel'ko fronte gurtia pasa zuten ikara-garrik otzak eta gose pasiaz.

Pirinetar initzirirenean MAKIZ en Kontra Guerra bukatu ondoren etxera etoni zen.

Ezuen nahi guerra konturik aiatatu eta bere emarteak gutxiago, emartea bere 2 seme alaba rekin AKERTZA Baserrian (Arroc Behian) egon zen, eskutetuta guerra garaian.

* Mateo - Zumaiara eraguna zen "MATEO GABARREROA"

or.

Aizpurua Chapartegui, EDURNE



Oroitzen naiz, etxetik atera ginenean, negarrez nola igo ginen kamioi batera eta Zumaiatik euritan nola atera ginen, nire ama, nire aita eta zortzi seme-alabak. Etxera etorri zirenean txakurrak bezala bota gintuzten bertatik, nazionalistak ginelako (*nire etxekoei entzun diedanez*), zera esanez “*joan behar zarete, fuera hemendik*”. Nire anaia zaharrena, hil zena, eta beste anaia bat, Batzokian ibiltzen ziren antzerkiak eta antzeko gauzak antolatzen. Nire amak beti esaten zuen bi anaiak Batzokian ibiltzen zirelako bota gintuztela etxetik.

Amari galdetu nion “*nora goaz, ama? nora goaz?*”, eta amak esaten zidan “*ez dakit, maitea, ez dakit, ez dakit nora goazen*”. Kamioian denak zurrumurruka geundela oroitzen naiz. Gernikara iritsi eta etxe handi batera joan ginen. Han geundela nire anaia Gernikan zebilen, baina mendian, Zumaiar batekin batera. Eta mutil hori izan zen nire anaia hil zela esatera etorri zena. Ondoren, nire aita berarekin eraman zuen semea ikustera. Nire aitak ikusi zuen hilda. Gernikako bonbardaketan ni nire anaiaren besoetan nengoen eta egun gutxitara hilik zegoen. Ni txikia nintzen, baina horretaz oso ondo oroitzen naiz. Gure ama gaixotu eta zoratzeko zorian egon zen. Gernikatik atera eta Asturiasera joan ginen.

Asturiasen bagoi batean sartuta geundela, guardia zibilak etorri ziren eta nire aita eraman zuten. Horren ondorioz, zortzi seme-alabak amarekin gelditu ginen Asturiasetik Frantziara gindoazela. Itsasontzi baten bodegan geundelarik, gurekin zegoen pertsona bat kubiartara igo eta beste itsasontzi bat ikusi zuen, haiek gure itsasontzia hondoratzeko seinaleak egiten ari zirela esan zuen.

Egondako lekuetan ez ginen gaizki egon. Frantziatik Kataluniara bagoi batean pasatu ginen, animaliak bezala. Oroitzen naiz estazio batera nola iritsi ginen, eta han denok dutxatzera nola bidali gintuzten, emakumeak, gizonak eta umeak batera. Gogoan dut xaboia beltza zela. Amari beti galdetu izan diot “*ama, zer xaboi zen hura?*”, eta berak esaten zidan “*ez dakit, txikia, zer den*”.

Dutxatu ondoren bagoira igo ginen berriro, Kataluniarantz. Bertan, Casa Ulet-en zegoen etxe handi batean egon ginen, etxea itxita egon behar bazuen ere. Han ezkur ugari zegoen. Eta han geundelarik aitaren berri izan genuen. Anaiak Eusko Jaur-laritzaren bitartez jakin ahal izan zuen zein baldintzatan zegoen. Aita mendiz mendi iritsi zen gurera eta hortik aurrera ez zen gure albotik aldendu.

Kataluniatik hona etortzerakoan, zer ikusi zenuten errepidean?

Hildakoak. Gure amak esaten zigun “*ez begiratu, maiteak, ez begiratu. Begiratu aurrera*”. Oinez gentozen denak, aita motxilarekin, ama nekatuta, eta seme-alabak. Ez dakit zenbat kilometro egin genituen, baina asko izan ziren. Zumarragara iritsi orduko, udaltzainak zera esan zigun “*Al Nazareto, a pasar la cuarentena*”. Ezin zuen inork guregana gerturatu. Noizean behin mediku bat etortzen zen Zestoatik eta zera esaten zion nire amari: “*zuek gaitza ekarri duzuela?, munduko ume garbienak etorri zarete*”. Eta horrela zen. Udaltzaingoa aurrean genuela bueltatu ginen gure etxera, Carnicería kaleko 9. zenbakian, kriminalak izango bagina bezala. Bueltatzerakoan gure etxea hutsik eta zahartuta zegoen, bertako gauza guztiak hartu eta balkoitik bota baitzituzten. Amak buruan zuen etxean utzitako guztia. Nire lehengusu batek Balenciaga enpresan lan egiten zuenez, gurera

ZUMAIA 1936-1945

Conculcación de los Derechos Humanos y represión durante la Guerra Civil y el Primer Franquismo

etorri eta aitari eta anaiari lana eskaini zien. Hauek onartu eta bertan hasi ziren lanean. Herriko jendeak ez zuen gurekin ezer jakin nahi. Ondorioz, eskolan nire izena Edurne eta ez *“María Nieves”* zela esateagatik zigortu zidaten, baita kalabozora bidali ere.

Siriarrak ikusterakoan, zer sentitzen duzu?

Negar egiten dut, pena ematen didate gu berdin ibili ginelako, bai gure itsasontzia hondoratu nahi izan zutenean eta bai errepidean hildakoak besterik ikusten ez genituenean. Noizbait aldatuko al da? Ez dakit.

Albizu Gomez, MARGARI



Zelaya Batzokiko lehendakaria zen, baina gerra hasi zenean harrapatu egin zuten eta ihes egitea lortu zuen. Ez genuen nire aitaren berririk, irten eta desagertu baitzen, baina Bizkaian elkartu ginen. Aitak beldurtuta ihes egin zuen Batzokiko dokumentuak eta gauza guztiak ezkutatu ondoren. Ama, ordea, etxean gelditu zen amona eta hiru seme-alabekin batera, nire bi anaiak Koldo eta Joseba, eta ni. Amona etxean zegoenez, ama beldurtuta zegoen gerta zitekeenarekin. Lehenik gure aita harrapatu zuten, ondoren gure aitona. Guztiak harrapatu ondoren, kamioian sartu zituzten.

Zumaian, non bizi zineten?

Alde zaharrean, San Juan Iturriaren aldamenean. Orduan Kale Nagusia zen eta 14. zenbakian bizi ginen. Etxera etorri eta kanpora aterarazi gintuzten, baina amonak ez zuen irten nahi izan. Denok kanporatu gintuzten, traste eta guzti, baina amona etxean gelditu zenez, ezin izan zuten etxea konfiskatu.

Denak atarian geundela kamioia etorri eta barrura sartu ginen. Baina lehenengo, Zubitzikiraino eraman gintuzten gauza guztiakin aldapan behera. Gu ikusterakoan batzuk negarrez hasten ziren, nora gindoazen bazekitelako; beste batzuk, berriz, alaitzen ziren merezi genuela pentsatzen zutelako. Gure aita eliz mutila zen eta goizeko sei eta erdietan lehenengo meza ematen zenean, han zegoen beti. Egun hartan, maiatzaren 4an, apaiza meza ematera pasa zenean ez zion gure amari inolako jaramonik egin nahiz eta aita eliz mutila izan eta egunero ikusi. Horrek gure amari izugarritzko pena eragin zion. Gure amak zera esaten zuen: *"nola leike? Apaizak ere nora joan behar dugun... gaude eta"*. Beranduago, kamioi barruan geundela, gora begiratu eta amarekin Arritokietako kanta abestu genuen: *"Arritokietako Birjina ederra, agur ama maite, itsasoko izarra"*. Ama Birjinari laguntza eskatu genion Zumaiara bueltatu ahal izateko.

Amak zer kontaktzen zuen bidaiari buruz?

Kamioietan sartu eta Lekeitiora eraman gintuzten. Lekeitio oso tratu ona jaso genuen. Amak, jana eta lotarako gauzak eman zizkigutela kontaktzen zeuen, gure alde ahal zuten guztia egin zutela. Lekeitiotik Forura oinez jarraitu genuen. Argazkiak atera zizkiguten eta bertan ikusten da nola mailetak hartuta Batzarretxera oinez jarraitu genuen. Bertan biltegi batean sartu eta han egon behar izan genuen deitu arte. Janaria eta edaria ekarri ziguten baina ezin genuen bertatik irten. Forutik Bilbora atera ginen. Bilbon mediku baten etxean egon ginen, gurekin oso ondo portatu zena. Han geundela bonbardaketak hasten zirenean tunel batean babestu behar izaten genuen. Horrelako bonbardaketa batean, tunelean zegoen jendetzaren artean galdu egin nintzen eta bukatu zenean medikuaren etxea non zegoen galdetu behar izan nuen. Harrezkero ez zait sekula ahaztuko medikuaren etxeko helbidea: *Ramblas de Uribitarte n° 3, 3º*. Bonbardaketak oso gogorak ziren eta tunelean denak elkarri helduta egoten ginen beldurra arindu nahian.

Bilbotik beste toki batera eraman gintuzten itsasontzia iritsi bitartean. Janaria eta edaria eman ziguten eta itsasontzia iritsi zenean irten ginen. Ontzia Santanderrera iristerakoan han ikusi genuen aita igotzeko zain. Donibane Lohizunera jarraitu eta bertan jaitsi ginen. Ontziaren izena “*La Habana*” zen. Ontzian geundenean euskaraz hitz egiten genuen gure artean eta besteekin ez genuen elkar ulertzen. Gurekin batera Trintxerpekoak eta Karlistak zeuden, erdaldunak ziren eta haiek ez zuten ezertxo ere ulertzen eta haserretu egiten ziren. Amak esaten zien: “*nire seme-alabek ez dute ulertzen erdara, eta nik ere ez dakit asko*”. Horrela izan zen Donibane Lohizunera iritsi arte.

Nola izan zen herrira iritsi zineten momentua?

Hasiera batean astoak eta mandoak zeuden tokira eraman gintuzten, belar artean. Baina Eusko Jaurlaritzak laguntza eskatu zuenean, etorri eta handik atera gintuzten. Nire bi anaiak Donibane Lohizunen gainaldean dagoen gotorlekura eraman zituzten, Eusko Jaurlaritzak errefuxiatuentzako egindako gotorlekua zen hura. Ni txikia nintzenez amarekin gelditu nintzen, eta lanera joaten zenean bere lehengusuarekin uzten ninduen. Amaren lehengusua irakaslea eta idazlea zen eta Azpeititik alde egin behar izan zuen, gu Zumaiatik atera aurretik. Arudyn bizi zen eta amak hara eramaten ninduen lanera joan behar zuenean.

Nola gogoratzen duzu hango bizimodua?

Ondo. Hasiera batean mendian egurrez egindako txabola batean bizi ginen. Amak esaten zuenez, izugarritzko hotza egiten zuen, baina ez genuen behin ere katarro bat harrapatu. Aitak lana aurkitu zuenean eta Donibane Lohizunera jaitsi ginenean, ama neskame-morroji sartu zen *Madame Lanote*-ren etxean, eta haren etxera joan ginen. Bigarren Mundu Gerra hasi zenean, aita haiekin joan zen eta gu bertan geratu ginen. Ni eskolara joan nintzen eta frantsesa ikasi nuen. Hona bueltatu nintzenean erdara ahaztua nuen.

Gerra bukatu ondoren, zein erabaki hartu zenuten?

Aitak Venezuelara joan nahi zuen bonbardaketetatik libre zegoelako. Baina gure amak ez zuen joan nahi amona Zumaian bakarrik zegoelako. Azkenean, amak irabazi eta Zumaiara etorri ginen. Pirinioetatik egin genuen bueltako bidea, Iratiko basotik Jakara igaroz. Jakan biltegi batean sartu gintuzten gaixo geundelakoan. Amak esaten zuen: “*hauek mandoentzako edukiko zituzten*”. Handik gutxira Donostiara joan ginen.

Donostian abokatu baten etxera joan ginen. Inork gu ikusi gabe haren etxetik gauez irten eta autobusa hartu genuen, Zumaiara gauez iritsiz. Etxean sartzekoan amona han zegoen, pozik gu etxean egoteagatik. Etxe barruan ez zegoen ezertxo ere, dena kendu ziguten: izarak, ontziak, koadroak, etab. Eraman ez zuten gauza bakarra amonak ezkutatu zuen “Santo Cristo” izan zen. Eramango zuten ustetan gona azpian gorde baitzuen. Gure amaren ilobak baserria zuen eta arta-irina ekarri zigun taloak egin ahal izateko. Krema moduko bat egin zigun baita ere.

Bai aita eta bai ama irteteko beldur ziren. “*Sección Femenina*”-koek janaria ekarri eta txartel bana eman ziguten ogia lortu ahal izateko. Gu bidaltzen gintuzten janariaren bila beldurra zela eta. Ilaran geundela, Zumaiako emakume batzuek gu ikusi eta ezagutzerakoan zera esan zuten: “*Alajaina, hiltzera bidali baina gero harro etorri*”. Gu negarrez hasi ginen.

Arritokietako ospitalearen ondoan beste ospitale txiki bat zegoen, eta bertan, Lepra bezalako gaixotasunak zituzten pertsonak zeuden. Bigarren pisura eraman gintuzten gaixotasunaren bat ote genuen ikusteko. Medikua etorri eta osasuntsu geundela ikusi zuenean, etxera bueltatzen utzi ziguten.

Herritarrekin arazoren bat izan al zenuten?

Gure kalekoekin ez, baina plazakoekin bai. Ez dakit oso ospetsua den merendero bat dagoela dakizuen, baina lehen hara joaten ziren berdurak, arrautzak eta, saltzera. Jasotzerakoan andreek esaten ziguten: “*hauek etxera eraman baino lehen, pentsatzen dugu zuei falta gehiago egingo dizuetela*” eta patata azalak eta horrelako gauzak uzten zizkiguten. Guk ez genuen goserik pasa. Ba al dakizu nola egiten genuen lo? Kutxatzar gainean bota eta beroa emateko koltxoia gure gainean jarrita, izararik ez genuelako. Kale Nagusian bizi ginen eta jaietan udalbatza etortzen zen Espainiako bandera jarri behar genuela esanez. Bandera jarri bai, baina joaten zirenean berriz ere tolestu eta gordetzen genuen. Kale-kantoiaren guardia zibilaren kuartela zegoen eta abesten pasatzen ziren. Haiei ere, bandera jarri behar genien pasatzen ziren bakoitzean. Eskuarekin agurtzen zuten, gainera.

Amak beti esan izan du, denboran atzera begiratzerakoan, ez zuela gertatutakoagatik gorrotorik sentitzen. Nahiz eta oso gaizki pasa, denok egoera berdinean geunden. Beti esaten zuen: “*Niri egindako gauzak min handia egin arren, ez esatea nik inori zerbait egin diodala*”.

Berrogei urte pasa badira ere, gaur egun Siriako errefuxiatuak telebistan ikusten dituzunean, zer sentitzen duzu?

Pena galanta. Gezurra dirudi 40 urte pasa ondoren oraindik ere gauza hauek ikusten jarraitzea. Guk egoera berdina jasan genuen eta irten nahian dabilzan ume eta guraso horiek ikusten ditudan bakoitzean, negar egiten dut. Ez al da bakea etorriko? Bakoitza bere herrian bizi nahi duen arren, ihes egitera behartuta ikusten dute beren burua.

Albizu Irigoien, LORE



Gure etxea txikia izan arren oso pozik bizi izan nintzen bertan. Kalean jolasean ibiltzen ginen, kukuzka eta sokasaltoan. Aitak ez zuen kargu politikorik, baina Batzokian antzerkiak egiten zituen: antzerkiak, bakarrizketak, dantzak, etab. Gorroto handia zegoen Batzokian lan egiten zutenen aurka, hauek abertzaleak zirelako. Bost senide ihesean irten ziren itsasoz Mundakara, haien artean gure aita eta bere anaiak. Ama bertan geratu zen, baserrian, aitona, amona eta seme-alabekin batera. Amak beheko plazara joateko agindua jaso zuen gainontzeko emakumeak bezala, eta bertan zeudela atxilotu zituzten. Ama atxilotuta, izeba etorri zitzaigun laguntzera (Margariren ama) baina agindu bera jaso zuen. Oso egun larriak izan ziren haiek.

Ama kuartelera joateko deitu zutenean, agintzen zuenari zera esan zion:

–Baina zenbat egunerako?

–Herritik kanpora irten behar zarete, herritik kanpora. (Guardia)

–Baina zenbat egunerako? Nik ez dut dirurik kanpoan denbora asko egoteko.

–Nahi baduzu umeak hemen utzi eta zu joan.

–Nik zuei umeak utzi?

–Bai, joaten zaretenean, ez zaretelako gehiago etorriko.

–Ba joan behar badut, nire umeak nirekin nahi ditut.

Oroitzen naiz herritik irten ginen egunean euri asko egiten zuela, eta meza entzun ondoren Ama Birjinari “*Arritokietako Birjina ederra, agur ama maite, itsasoko izarra, agur ama maite, itsasoko izarra*” abesten atera zirela denak. Kamioietan igo eta alde egin behar izan genuen, zorabiatuta. Lekeitiara abiatu ginen baina errepedea hondatuta zegoen eta gainaldean “*la línea de fuego*” kokatzen zenez, tiro egiten ari ziren. Hala ere, gu pasa arte gelditu egin ziren eta guardiek hartu eta banan-banan errepede moztuaren beste aldera pasa gintuzten, Lekeitioko bidean jarraitu ahal izateko. Frankistek bazekiten emakumeak eta umeak zeudela tartean eta “*perras*” bezalako irainak esaten zizkiguten. Lekeitiara iritsitakoan Forura eraman gintuzten. Gogoan dut hango gelak luzeak zirela. Han geundela, bertan zeuden emakumeak bozgorailutik esaten zituzten hildakoen izenak entzuten ari ziren, senitartekoren bat izan zitekeenaren beldur. Halako batean, bozgorailutik Juan Jose izena esan zuten, haren ama gure ondoan zegoen eta frontean hil zela entzun zuenean zerraldo erori zen.

Handik gutxira aita eta izeba gure bila etorri ziren eta Bilbora eraman gintuzten. Bilbon, pisu batean egon ginen eta bonbardaketak hasten zirenean tunel batean babesten ginen. Bilbotik irten eta Mundakara alde egin genuen, familia osoa han baitzegoen. Osaba gazteena (Josu) mendian zebilen eta guardiak etortzerakoan denak harengana jotzen zuten laguntza bila. Nire anaia Mikelek eta biok osabari lagundu genion frontera joaten ziren bakoitzean. Osabak elizako petrilerara igo gintuen, kaskoa jantzi eta kamioietan sartu ziren. Muxu bana eman, ikurrina jarri eta Eusko Gudariak abestu zuen. Baina egun batean osaba joan zen eta ez genuen berriro ikusi.

Ondoren, Mundakatik bidali gintuzten eta denak sakabanatu ginen. Amarekin Ribadesellarako bidea hartu genuen, han itsasontzia hartzeko asmoz. Bidaia trenez egin genuen.

Zer gertatu zen trenean zeundetenean?

Ribadesellara joaterakoan, tunel batean sakabanatu ginen. Trena tunelean bertan geldirik egon zen denbora luzez, hegazkinek bonbardatzen zuten bitartean. Gogoan dut tunelak sua botatzen zuela zirudiela. Bonbardaketa amaitzerakoan trenea abiatu zen. Baina tuneletik ateratzerakoan trenari tiro egin zioten. Denak negarrez, iritsiko ez ginela pentsatuz. Ribadesellako kaira iritsi behar ginen Frantziara joan ahal izateko. Lortu genuen kaira iristea eta itsasontzia hartzea. Itsasontziko sotoan bidaiatu genuen, zorabiatuta.

Nola izan zen itsasontziz egindako bidaia?

Sotoan hiru egun pasa genituen Bordeleko kaira iritsi arte, itsasontzia atzera eta aurrera ibili zen buelta ematera behartu zutelako. Hiru egun janaririk gabe eta ur-ponpekin ateratzen zen ura edanez. Ogi luze bana eta sardina-lata bat eman ziguten jateko. Hori besterik ez genuen hiru egunetarako, oso gogorra izan zen eta goseak geunden.

Nora joan zineten?

Ez dakit. Amari galdetu nion *“ama, zer izen da hori?”*. Nik *Boillon, Boillom* edo horrelako zerbaite ulertzen nuen. Han kolonia txiki batean egon ginen eta baita eskolara joan ere. Handik aurrera jarraitu genuen Suitzako mugaraino. Gaztelu handi bat zegoen bertan, zubi eta guzti. Zubia ireki eta handik sartu ginen. Han ere eskolara joan ginen, irakaslea frantsesa zen eta esan zigun: *“desgraciadas, cómo os ha traído la guerra hasta aquí”*. Amak, mahatsak eta sagarrak biltzen egiten zuen lan. Frantzian bizi zen izebak anaiaren berri izan zuen eta gu non geunden jakin nahi zuen. Amarekin telefonoz hitz egitea lortu zuen eta izebaren bitartez etorri ginen.

Mugara iristerakoan ez zegoen inor gure zain eta gizon batek amari galdetu zion: *“eta zu nola zaude hemen?”*. Amak erantzun zion: *“ez dakit, telegrama bidali dut etxera, baina ez da inor etorri. Nire etxean hilda egongo dira denak.”* Orduan gizonak dirua eman zion Hendaiatik Zumaiara etortzeko. Trenez egin genuen bidaia eta geltokira iristerakoan aitonarekin topatu ginen. Lehengusu bat agurtzera joan eta gurekin topatu.

Koarentenan jarri zintuzten?

Koarentenan, bai. Pozaren pozez saltoka etorri ginen etxera, baina zubira iristerakoan ospitale txikira joan behar genuela esan ziguten eta ezin izan genuen zubia igaro: *“vosotras no podéis entrar en el pueblo, tenéis que ir primero al hospital”, “hay que ir ahí, porque podéis traer una enfermedad”*. Amak orduan: *“¿enfermedad estos niños? Si están...”* *“No, no, no, esto hay que ir ahí”* erantzun zion. Ajuria medikuak jakin zuenean, esan zuen: *“¿Cómo? Estos niños enseguida a casa”*. Etxera etorri ginenean, aitona eta amona zeuden bakarrik eta gogoan dut aitona Zubitxikian zegoela beso-zabalik.

Orain bizi garen etxe hau hotela zen, Hotel Amaya, eta hemen gerrako kuartel italiarrak egon ziren. Aita espetxeratua egon zen eta garai hartako hainbat oroimen zituen: beti beldurtuta zeuden, norbait ateratzen zuten bakoitzean tiro ematen ziotelako. Beti hurrengoia nor izango zenaren beldur. Etxera bueltatu zenean lurrean egiten zuen lo, espetxean horrela ohitu zelako.

Lehengusu batzuk hotela zuten baita ere, Hotel Zumaya, eta han egon zen aita lanean. Ondoren, antxoa fabrika batean aritu zen. Azkenik, Balenciagako tailerrean hasi ziren anaia guztiak lanean, mekaniko onak ziren eta.

Behobide Arburua, JOSEBA



[https://ahotsak.eus/zumaia/hizlariak/joseba-behobide-arburua/\(ahotsak.eus, 2012\).](https://ahotsak.eus/zumaia/hizlariak/joseba-behobide-arburua/(ahotsak.eus, 2012).)

Zumaiako Zuloaga museoan nire aitak egindako Kristo polikromatu eder bat dago. Francok ikusi zuenean berarentzat beste bat egin behar zuela agindu zuen: *“el que ha hecho eso me tiene que hacer a mí otro”*. Aitak beste Kristo bat egin zuen harentzat eta bukatutakoan Madrilera eraman zuten. Aitak Madriletik ihes egin zuen ez ziolako Francori eskua eman nahi izan.

Francorentzat egindakoa *Valle de los Caídos*-en dago, aldarean jarrita. Aita ez zen bertara inoiz sartu, tokia eta tokiaren esanahia ez zuelako gogoko.

Bidasoro Blasco, TRINI



Baleike aldizkaria 126. zk. 2004

Errepublika garaiko Batzokia Zumaian

Euskaraz irakurtzen eta idazten ikasteko eskolak ematen zituzten bertan. Ez dut gauza asko gogoan. Jontxu Uranga eta Xanti zapatariaren semea eskolak jasotzera joaten ziren. Eskola ematen zuena Iñaki Beobideren osaba zela uste dut. Ez naiz oroitzen gu joan ez izanaren arrazoia. Albizutarrek antzerkiak antolatzen zituzten eta jende asko hurbiltzen zen ikustera.

Gerra garaia

Karlistak manifestazioan ikusten genituen, Espainiako bandera alboan eta txapel gorria jantzita. Gerra ondoren, Franco Donostiara etortzen zen bakoitzean, bertako fitxatutako abertzaleak fardela hartu eta Donostiara joaten ziren, Ondarretako espetxera. Haien bila etorri aurretik Donostiara abiatzen ziren denak. Gure aita espetxera eraman zuten behin. Batela baten egarri zen da beti eta behin esan zioten: *"Hi, Getaixan bazeok Intxarkundia izeneko batela bat saltzeko"*. Getariara joan eta bertako udaltzainak atxilotu eta Donostiako espetxera eraman zuen, ez dakit zer egin zuen. Mikel *"kojua"* etorri zen ate-joka esanez: *"Zuen aitta kartzelan dago!"* *"Gure aitta kartzelan dagola? Itxian falta diagu eta ez zekiat non dan"*, nik. *"Ba, lurren gainian eiten du lo eta koltxoi bat edo zeozer eramaiozue"*, Mikelek. Eta nik: *"Eramango ez zioat, pa!"*. Hartu koltxoia buru gainean eta oinez Donostiaraino.

Garai hartan, aitak bazuen familia batekin harreman handia eta bere paperak haien eskuetara iritsi ziren espetxeratuta zegoen bitartean. Paperak ikusitakoan: *"Pero, si yo a este señor ya le conozco! Yo me hago cargo de este señor"*. Gizona militarra zen eta egun batetik bestera aita etxean zegoen. *Gora Euskadi askatuta!, diarra egin zulako Getaixan"*. Hilabete egon zen espetxeratua.

Hondartzan gauza asko gordetzen genituen. Horien artean pistola bat. Pertsona asko etortzen ziren hondartzara bizkartzainarekin, eta pistola horietako batena zela uste genuen. Baina aita espetxean zegoenean gizon batek honakoa esan zion: *"Usted no me conoce a mí?"* Aitak: *"No me acuerdo"*. Gizonak: *"Pues yo ya me acuerdo de usted, que me guardaba una pistola en la playa"*. Aitak: *"Ahora sí, ya me acuerdo, creía que eras un guardaespaldas"*. Gizonak: *"Pues no, yo era jefe de unos ladrones. Yo estoy en la carcel pero mis chicos están trabajando"*.

Egaña Etxabe, JUAN



<https://ahotsak.eus/zumaia/hizlariak/juan-egana-etxabe/>(ahotsak.eus, 2007).

Gerra hasi zenean nik 4 urte nituen eta garai hartatik dudan oroitzapen nagusia gosearena da. Oso urte gogorrak izan ziren, gerra garaia eta gerraostea. *Morokilari* esker ez ginen gosez hil, *Morokila* irin egosia da, eskuzko errotan ehotzen den artalea eta gariarekin egindako irina, ez oso fin ehorta baizik eta pikortsua. Esnearekin gozoa dago, baina esnea ez zegoenez urarekin nahasten genuen. Gure amak artoa zuen eta zakuan kargatuta errotara bidali ninduen. Ia 6 km-ko joan-etorria 15 kg-ko zakuarekin. Baserrietan ez zuten horrelako goserik pasa, haiek bazuten taloa, esnea eta artoa jateko aukera.

Soldadu bezala joateko garaia iritsi zitzaidanean, errazionamendua eta estraperloarekin zerbait lortzen saiatu ginen gosea pixka bat arintzeko. Baserriarren inbidia genuen, baina haientzat ere gauzak ez ziren errazak.

Etxabe Oliden, BARTOLO



<https://ahotsak.eus/zumaia/hizlariak/bartolo-etxabe-oliden/>(ahotsak.eus, 2007).

Zer gertatu zen Oikiako apaizaren pistolarekin?

Gerra hasi zenean gu mutikoak ginen. Menditik lehenengoak azaltzen nafarrak izan ziren, erreketek. Hemen ez zen borrokarik egon baina lapurretak bai, goseak zeuden eta hilko zutela mehatxatu zuten apaiza, baina hil beharrean Zumaiara eraman zuten hiru soldaduen artean pistolaz behartuta.

Apaizak bazuen pistola txiki bat aldarearen atzean gordeta eta eraman zutenean han utzi zuen. Sakristauak pistola handik hartu eta lurperatu zuen, ni atzetik joan eta aurkitu eta eraman egin nuen. Pistola hori hogeita hamar urtez egon da nire baserrian gordeta, inork ezer jakin gabe. Ganbarako habe handi baten gainean gorde nuen, kargadorea beteta zuela. Baserria bota genuenean ez nuen pistola gogoan izan eta baserriarekin batera desagertu zen.

Etxabe Udabe, JOXE



Baleike aldizkaria 171. zk. 2008

Gerra Zumaiara iritsi zenean

Oikiatik karlistak iritsi zirenean nire bi anaiak ezkutatu ziren. Beste anaia bat ordurako boluntario alde eginda zegoen. Gerra garaian hiru zumaiar azaldu ziren gure baserrian, gauean Frantziara pasatzeko asmoarekin. Eskopeta hartuta mendira irten ziren ehizatza eta amak gure mendiko txabolatik oilo ederrenak hartu eta eman zizkien. Gauean Frantziarako bidea hartu zutenean, bi harrapatu zituztela eta hirugarrenak ihes egitea lortu zuela uste dut.

Zumaiatik alde egin behar izan zenuten?

Bai. Hamar bat lagun kamioian sartu eta Narrondoko Xalegik Ondarroara eraman gintuen. Zumaiatik kamioi asko irten ziren, pertsona askorekin. Zumaiako emakume bat gu ikustera etorri zen, karlista zen hura eta barre egiten egon zen guri begira. Behin Ondarroara iritsi, oinez jarraitu genuen Lekeitioraino. Errepidea hondatuta zegoen eta Lekeitiora iritsi ginenean Gernikara eraman gintuzten automobiletan, Forura. Denboraldi bat pasa genuen bertan, fraideekin. Ezer gutxi egiten genuen bertan, goizean jaiki eta oinez Gernikara ogi bila.

Gernikako bonbardaketaz oroitzen zara?

Gogoratuko ez naiz, bada! Mendingeun, zuhaitz artean, pinudian pinaburu bila. Han geundela hegazkin bat azaldu eta bueltaka hasi zen. Ondoren hegazkin mordoaz azaldu ziren eta gu etxera korrika etorri ginen. Pinudia metrailatu eta su eman zioten txikitu arte.

Bonben eztanda entzun eta sua ikusi genuen. Gaueko zortzietan sute handia zegoen artean. Gu geunden tokitik oso ondo ikusten zen dena. Gernika bonbardatu ondoren beste bi egun pasa genituen Foruan. Handik Bilbora atera ginen eta Bilbotik Somorrostrora, etxe zahar batera.

Gerra bukatutakoan Somorrostratik Zumaiara bueltatu ginen. Somorrostron zeuden karlistek Zumaiara bueltatzen lagundu ziguten. Goizaldeko bostetan atera eta mendia igarotzen lagundu ziguten. Herri txiki batera iristerakoan kamioi bat jarri zuten gu Zumaiara ekartzeko. Zumaiara iristerakoan frankistek nire anaia zaharrena hartu zuten soldadu eta Oriamendin egon zen.

Gorostola Iribar, BITOREN eta MARIA LUISA



BITOREN GOROSTOLA IRIBAR

Zumaiako San Telmo kalean jaio nintzen 1936an, gure familia betidanik zumaiarra izan da. Gure ama, Luisa Iribar Garate, Getarian jaio zen, baina ezkondu eta Zumaiara etorri ziren bizitzera. Gure aita, Fortunato Gorostola Etxabe, Zumaiara jaioa zen. Aitak itsasoko lanen kudeaketa eramaten zuen eta hori dela eta Pasaia, Donostia eta antzeko kaltetan asko ibiltzen zen. Ama baserritarra zen, 9 urterekin baserrik atera eta betidanik neskame egin zuen lana, Donostiako hotel batean.

Nola iritsi zen gerra Zumaiara?

Amak askotan kontatu izan digu gerra garaian Tolosako jende asko etorri zela Zumaiara. Ordea, zumaiar asko herritik bota zituzten garai berdinean, tartean gure izeba. Izebak eta bere senarrak "Sota y Aznar"-entzako egiten zuten lana, izarak eta mantak egiten. Gure familia betidanik nazionalista izan da eta garesti ordaindu behar izan zuten gerra garaian. Amak Zumaiara gelditzea lortu zuen, aita gaixo zegoelako. Baina udaletxean botere berria ezarri zenean, ama kuartelera eraman zuten beste hiru adineko emakumerekin batera. Kuartelera eraman zutenean mehatxatu egin zuten, isilik egoteko esan zioten, herritik botatzea nahi ez bazuen. Gelditu ginen artean bizimodua ez zen erreza izan, markatuak geunden ideologiarengatik. Emakume batzuei ilea moztu zieten eta herriari buelta ematera behartu zituzten. Amari isuna jarri zioten 1940ko uztailaren 20an eta honela zioen:

"En el Uso de Atribuciones que me han sido conferidas, he acordado en imponerle a usted una multa de 150 Pesetas por falta de colaboración al Glorioso Movimiento. A Maria Iribar Garate".

Amak asko sufritu zuen. Frankistek aita gerrara eraman nahi izan zuten, atxilotu zuten eta amak herrian laguntza eskatu zuen askatu ahal izateko, eta baita lortu ere! Donostian ziurtagiriak lortu zituen eta mediku desberdinetara joan zen gaixotasunaren inguruko agiriak lortzeko. Guztia 1936ko irailaren 21etik aurrera gertatu zitzaion gure familiari. Dena oso azkar gertatzen ari zen, dirurik ez, 9 seme-alaba eta gainera gaixo. Gure familiari falta zitzaiona aita gerrara eramatea zen.

Anaiak, Carlos Gorostola, gerra garaian 16 urte zituen eta Bilboko familiarekin zegoen. Bertan zegoelarik gerra hasi eta han harrapatu zuen. Gipuzkoara joan beharrean Santanderra joan zen, gerratik ihes. Santanderetik atera eta Iparraldera alde egin zuten. Bertara iritsi zirenean pabiloi handi batzuetara eraman zituzten, larrugorrian jarri, ondo garbitu eta injekzio batzuk jarri zizkieten. Bi urte oso egon ginen inolako berririk gabe eta ustekabean ia egunero eskutitz bat iristen hasi zitzaigun bere berriekin. Baina Mundu Gerra iritsi baino lehen Frantzia utzi zuen.

Egunerokotasuna oso zaila zen, familia galtzailea izanda. Gure familian 7 ume ginen, aita gaixo eta amak Debara joan behar izaten zuen lanera. Gerraostean errazionamendua etorri zen eta berarekin batera gosea. Zortea izan genuen, goserik ez genuen pasa, ama baserrietan ibiltzen zen lanean eta diruarekin ordaindu ordez jeneroarekin ordaintzen zioten. Horrez gain koltxiak egiten zituen eta hura beste diru sarrera bat zen.

Eskolan ibili nintzenean, euskaraz hitz eginez gero, zigortu egiten gintuzten. Gure amaren etxean beti hitz egiten zen politikaz, horregatik amaren etxean "tertulia politikoak" egiten ziren.

or.

MARIA LUISA GOROSTOLA IRIBAR

Zumaian jaio nintzen 1925ean. Bederatzi anai-arreba ginen, baina zazpi bizirik. Ondo bizi ginen, kalean jolasten, eskolara joaten... Gerra aurreko Zumaiaz ez naiz ia apenas oroitzen. Zumaia herri txikia zen, era askotako alderdiak zeuden: Errepublikanoak, Abertzaleak, Sozialistak,... azken hauek etxez etxe ibiltzen ziren boto bila. Gu umeak besterik ez ginen eta sokasaltoan ibiltzen ginen eta jaiegunetan trenea nola etortzen zen ikustera hurbiltzen ginen.

Gerra Zumaiara iritsi zenean, Donostiako izeba bat etorri zen. Bere familia Bizkaia aldera joan eta gurera etorri zen. Egundura oso tristea izan zen, jende asko etorri zen Donostiatik eta Tolosatik. Askok ez zuten ezer ekartzen. Etxean aitaren ohe azpian ezkutitzen genituen gauzak, irrati bat, bakailao lehorra... Aita beti gaixo zegoenez, ez zuten inoiz bere ingurua begiratzen.

Gerraostean mojetan ibili ginen, mojak gurekin oso gaizki portatu ziren. Bizimodua aurrera ateratzeko, antxoei burua kentzera joan ginen, diru truke. Beranduago Zumaia eta Meaga artean zeuden baserrietara joan ginen arto lokotxak biltzera. Ikaragarriko hotza pasa genuen. Gure amamak eta izekok bankuan dirua zuten, baina gerra garaian dirua konfiskatu zieten. Nekez, urte asko igaro ondoren, itzuli zieten konfiskatutako dirua.

Gure anaia Carlos, Bizkaian zegoen gerra hasi zenean. Ihes atera zen Santanderrera eta handik Frantziara. Frantzian aske zegoen eta lan askotan ibili zen, tartean pinuak botatzen eta antzeko lanetan bizimodua irabazteko. Urteak eman zituen bertan eta etxean ez genuen haren berririk, eskutitzak iristen hasi ziren arte. Naziak Frantzian sartu zirenean itzultzea erabaki zuen, ordea. Itzuli zenean, Ferrolera eraman zuten, bertan harri tartetan egon zen espetxean eta han gaixotu zen.

Gure amak isun asko izan zituen diktaduran, batez ere lehenengo urteetan. Amarekin batera, beste lau emakume eraman zituzten. Ama zen gaztekeraz hitz egiten zekien bakarra. Beldurtuta bizi ginen, baina etxeko ateak beti zeuden irekita herrikoentzat.

Iruretagoiena Illarramendi, KARMEN



Aita arotza zen, itsasontziak egiten zituen eta Basakarte baserrikoa zen; beraz, gerraostean ez zuen arazorik izan. Amaren aldetik Zestoako senitarteko bat desagertu zen. Granada erreka-ondoan zuen baserrira joan ziren bere bila eta ez zen gehiago bueltatu. Alacanten hil zutenaren susmoa dago.

Gure etxean ez zen horretaz hitz egiten, umetan ez genuen ezer jakin nahi eta orain jada berandu da.

Linazisoro Azkue, ABELIN eta Garate Elosua, ANA MARI



ABELIN LINAZISORO AZKUE

Zumaian jaioa 1942an. Aita Abeliño Linazisoro Areta (1910ean jaioa Zumaian), eta ama Irene Azkue Egaña (1911n jaioa Zumaian). 1936ko irailean ezkondu behar zuten baina gerraren ondorioz 1940an ezkondu ziren Zumaian. Nire anaia zaharra 1941ean jaio zen Zumaian, Juanito Linazisoro Azkue, ondoren ni jaio nintzen. Ni jaio eta bi urtera, aita hil egin zen tiro baten ondorioz. Aita botikako laguntzailea izan zen hasieran eta denborarekin drogeria bat ireki zuen gerra aurretik. Ama, neskame ibili zen lana egiten dirua aurreztu eta ezkondu ahal izateko.

Gerra hasiera

Gerra piztu aurretik karlistak mobilizatzen hasi ziren eta 1934tik 36ra jendea biltzen ibili ziren. Beraz, gerra piztu zenean, mobilizatutako guztiak Ubilloseko jauregian espetxeratu zituzten, Udalaren eta errepublikaren alde azaldutako alderdien laguntzarekin. Udala, ordea, beldur zen milizianoak etortzerakoan ez ote zituzten atxilotutako guztiak fusilatuko. Orduan, PNVko bi kideren artean, nire osabak biak, Antonio Esteibar eta Fermin Azkue, espetxetik atera eta konfiantzazko zumaiarren etxeetan ezkutatu zituzten beren bitzita salbatzeko.

Erreketeak Zumaiara iritsi zirenean, armak deskargatu eta Zumaiako elizan sartu zituzten, baita espetxe bezala erabili zen Ubillos jauregian ere. Beren Gerra Batzordea Beheko plazako etxe handi batean jarri zuten eta agintari bezala espetxean egondako erreketeak. Hauek erabaki zuten zeintzuk izan behar ziren alkate.

Gerra piztu zenean, ama eta aita ezkondu gabe zeuden oraindik eta drogerian egiten zuten lan biek. Ama dendan zegoela falangista bat etorri zitzaion dendara bizar-xaflen bila. Aita gudari bezala alde eginda zegoen eta amak konfiantza guztiarekin hitz egin zuen falangistarekin. Honek Goñi abizena zuela eta Iruñekoa zela esan zion eta abertzalea zela berez, eta ez falangista. Baina gerraren lehenengo egunetan bere famili osoa fusilatu zuten Iruñean eta bitzita salbatu ahal izateko falangisten zerrendatan izena ematea erabaki zuen. Horrela, Iruñetik Irunera pasa eta handik Zumaian bukatu. Bestalde, ama ohartarazi zuen denda kentzera etorriko zirela. Hau jakinda, dendako gauza garestienak jaso eta etxearen atzealdean zegoen txabola batean ezkutatu zituen. Esan bezala, aitaren lagun bat etorri zitzaion esanez: *“Barkauzan, baina niri agindu egin zidaten eta...”*. Gauzak honela, ama ezer gabe geditu zen.

Aita bitartean gerran zebilen, gudarien sarjentu. Botikaria izan zenez, Gurutze Gorriarekin ibili zen. Gerra amaitutakoan espetxeratu zuten, Bilbon bertan. Garai horretarako, Zumaiako bizilagunak fusilatzeke zerrendak eginak zituzten. Alde batetik herrian zeudenak eta fusilatu behar zituztenen zerrenda, eta beste aldetik gudari bezala joandakoen izenen zerrenda. Bigarren zerrenda horretan lehenengotariko izena aitarena zen, ondorioz heriotza-zigorra ezarri zioten. Fusilatzeke zegoenean ospitalera

eraman zuten zauritua zegoelako. Ospitalean Ibañaberrietako apaizarekin topatu eta honek parrokoari *Católico Apostólico Romano* zela zioen ziurtagiria eskatzeko esan zion. Amari idatzi zion ziurtagiria eskatzeko esanez, baina parrokoak ukatu egin zion. Orduan herriko falangisten buruzagiarengana jo zuen, Periko Uranga, Ubillosen espetxerutakoa eta ondoren ezkutatua izan zena. Honek idatzi bat egin zuen eta honi esker heriotza-zigorra saihestu zuen.

Zaragozara pasa zuten langile batailoira eta bertan Zumaiako teniente batekin egin zuen topo. Honek botikari laguntzailea izanaren ziurtagiria eskatzeko esan zion eta horrela Gurutze Gorrian sartuko zuela. Ziurtagiria Periko Urangak lortu behar izan zuen oraingoan ere eta horri esker Gurutze Gorrian lana egitera pasa zen. Hori guztia igaro ondoren, 1944an hil zen.

Gernikako bonbardaketa

Aitak Zumaia utzi zuenean, PNVko talde batekin Bilbo aldera joan zen. Bertan San Andres batailoian egon zen. Gernikako bonbardaketaren egunean aita, bere batailoiarekin, Gernika inguruko mendi batean zegoen. Bertatik ikusi zuten hegazkin bat gerturatzen eta buelta ematen. Hegazkin hori bueltan etortzen ikusi zuten eta atzetik gainontzeko guztiak bonbardatzen hasteko prest. Bonbardaketa izugarria izan zen. Batailoian Gernikako mutil bat zuten eta herria txikitzen ikusi zuenean zoratu egin zen. Bere onetik aterata zegoenez, pilulak eman zizkion aitak, hura lasaitzeko asmoz. Oso gaizki pasatu zuen. Bonbardaketa bukatu bezain laster Gernikara jaitsi ziren laguntzera. Aitak esaten zuen Gernika oraindik bero zegoela eta haragi erre usaina zegoela, kaleak txikituta eta burbuilez beteta. Besteak beste, emakume baten gorputz erdia zuhaitz baten kontra itsatsita ikusi zutela dio.

Garaipena ospatzeko Zumaian egindako Festa

Guda irabazi ondoren, Zumaiako mandatari frankistek kalte-ordainaren eguna ospatzea erabaki zuten. Hura gertatu eta hurrengo egunean, kalte-ordainaren ekitaldia egin nahi zuten. Bandoa atera zuten herrian. Ekitaldirako, herritarrak erreketez edo falangistez janztea eta Amaia plazara joatea eskatu zuten. Bertan, antzetzoki handi bat prestatuta zegoen eta erdian Arritokietako Ama Birjina. Haren ondoan Gerra Batzordeko eta herriko apaizak zeuden. Kontua da, ekitaldira herri guztia azaldu zela baina ez zela inor erreketez jantzi.

Erreketek gaizki ikusiak zeuden Zumaian, gerrako lehenengo egunetan makurkeria ugari egin baitzituzten: euskararen aurka jo, Arritokietako Ama Birjinari otoitz egiten ari ziren hiru amonari isuna jarri, jendeari ilea larru-arras moztu, etab. Lapurreta gehienak beraiek egin zituzten, gudari joandakoen eta herritik bidalitakoen etxeetara sartu eta ahal izan zuten guztia lapurtu zuten. Horiek guztiak herrira bueltatu zirenean ezer gabe aurkitu ziren. Falangista eta erreketeen arropak Batzoki azpian zegoen lokal batean banatzen egon ziren eta jendeak falangistena aukeratu zuen. Une horretan Periko Uranga falangistak, Zumaiako abertzaleak zirenei eskerrak eman zizkien bere bizitza salbatzeagatik, Gerra Batzordeko buruzagiarekin sekulako liskarra eraginez. Jendeak istilua aprobetxatu zuen alde egiteko.

ANA MARI GARATE ELOSUA

1945ean jaioa Zumaiako herrian. Aita, Pedro Garate Alberdi, 1903an Deban jaioa eta ama, Joakina Elosua Zubimendi, 1910ean Zumaian jaioa. Aita oso gaztetik etorri zen Debatik Zumaiara, errementaria zen. Ama etxeakoandrea zen, gerraostean hasi zen lanean arrainak saltzen. Gerra garaian aita gudari joan zen eta amak herritik alde egin behar izan zuen. Aita Zaragozako lan batailoietan sartu zuten eta ama bisitan joan zitzaion batean oso ahul topatu zuen. Nola hala, denen laguntzarekin, aita Donostiako klinika batera ekartzea lortu zuten. Bertan hobera egin zuenean Zumaiara bueltatu zen. 1941ean nire anaia jaiotzen eta 1944an aita hil zen.

Manterola Amas, MARIA JESUS



<https://ahotsak.eus/zumaia/hizlariak/maria-jesus-manterola-amas/>(ahotsak.eus, 2011).

Zumaiatik alde egin beharra

Gerra garaian, Santanderrera eraman gintuzten kamioi zahar batean sartuta. Santanderren emakume batek ni eraman ninduen bere etxera zaintzeko asmoarekin, eta Santanderretik Frantziara joateko unean berriro bueltatu ninduen. Santanderretik atera eta Frantziara iritsi ginenean etxe txiki bat eman ziguten bertan bizi ahal izateko. Etxean 7 bat izango ginen guztira eta oso gustura egon ginen bertan. Ondo bizi ginen, amak frantsesa ikasi zuen eta egunero dirua ekartzen zuen etxera. Bolada luze bat pasa genuen bertan.

Frantziatik buelta

Zumaiara itzuli ginenean, gaitzaren bat ekartzen genuelakoan, zuzenean ospitalera bidali gintuzten. Zumaiako sendagilea, Karmelo, bisitan etorri zitzaigunean bertan zer egiten genuen galdetu zigun: *“y qué hacéis aquí”, “que nos han mandado aquí”, “que han traído algo”, “quién os ha dicho eso”, “estamos aquí con ganas de ir a casa con toda la ropa”, “bueno bueno qué niños tan majos, haced el favor de marcharos a casa”*. Ondoren etxera bidali gintuzten. Frantzian oso ondo egon ginen, baina etxean bezala...

Osabak munduan zehar bidaia asko egiten zituenez, gauza asko ekartzen zituen oroigarri gisa, horien artean irrati bat. Hori dela eta, askotan etxea arakatzera etortzen ziren. Kontu handiarekin entzuten genuen irratiak, inor ez konturatzeko, baina hala ere etortzen ziren. Ez zuten sekula ezer aurkitu.

Manterola Galdona, ERRAMUN



<https://ahotsak.eus/zumaia/hizlariak/erramun-manterola-porrajaneakua/> (ahotsak.eus, 2003).

“Nabarra” itsasontzian hasi nintzen lanean, 200 bat lagun geunden bertan. Merkantzia-ontzia zen, baina hura utzi eta “Gipuzkoa” itsasontzira pasatu nintzen.

“Canarias” tiro egiten hasi zen une hura, nola duzu gogoan?

Oso une txarra izan zen. “Gipuzkoa”ko atzeko kanoitik botatzen ari ginen gu. Kanoikadaka ibili eta gero “Gipuzkoa” handik onik ateratzea lortu zuen, baina “Nabarra” hondoratu egin zuten. 20 lagun besterik ez ziren bizirik irten.

Nola hondoratu zen “Balears”?

Gu Mediterraneoan genbiltzan, gauez atera ginen eta gure aldamenetik igaro ziren. Goizaldeko ordu bietan destruktoreak azaldu ziren, eta horien artean “Balears”. 24 kanoikada bota genizkion eta hondoratu genuen. Hori 1938an izan zen.

Osa Arrizabalaga, ADORA



[https://ahotsak.eus/zumaia/hizlariak/adora-osa-arrizabalaga/\(ahotsak.eus, 2012\).](https://ahotsak.eus/zumaia/hizlariak/adora-osa-arrizabalaga/(ahotsak.eus, 2012).)

Gerra garaian osaba Joxe Mari Bilbora joan zen. Nik 3 edo 4 urte nituen eta eskolan mojetan ibiltzen nintzen. Eskolako irakasle batek Bilbon arratoiak jaten zituztela esan zigun eta etxera iristerakoan osabak arratoiak jaten zituela esan nuen. Izeko irakaslea zen baita ere, eta nirearekin hitz egitera joan zen. Gauza da, ez dakit nola, eskola hartatik atera eta beste eskola batera bidali nindutela.

Gaueko ordu txikitik aitaren bila etorri eta andazain bezala aritzeko eraman zuten.

Gerraostean errazionamenduarekin ez ginen gaizki ibili, moldatzen ginen. Ganbaran errota txiki bat genuen eta baita artoa eta garia ere, dena txikitu, urarekin egosi eta gozoa zegoen. Taloak egiten genituen baita ere. Patatarik ez zegoen, baina bonia-toak bai, okindegiko labean erre eta gozoa zen jateko hura ere.

Senarra izango zena, gudari

Nire senarra izango zenaren familia osoa Bilbon zegoen gerra hasi zenean. 15 urte zituen eta kalean hartu eta mendira eraman zuten gudari. Basaurin espetxeratu zuten ondoren eta 7 urte pasatu zituen espetxeratua.

Osa Arrizabalaga, XANTI eta ANGEL



Gerra garaian familien egoera oso larria zen. Gure kalean lagun asko hil ziren eta gainontzekoak herritik bota nahi izan zituzten. Askok alde egin zuten, beste batzuek, ordea, ez zuten nahi izan eta bertan geratzea lortu zuten. Anaia zaharrena mendian, belarra gordetzeko genuen txabolan ezkutatu zen. Beti bila etorriko ziren beldur. Gero soldadu sartzeko garaia iritsi zitzaion, baina ez zioten deitu eta bizilagun batek salatu zuen. Ondoren Ferrolera bidali zuten.

Errazionamendua, azalik gabeko laranjak

Ogia eta boniatoak besterik ez genuen jaten. Entzun gabeko zerbait kontatuko dut: bolada batean laranjak azalarik gabe saldu zituzten. Azalarekin bolbora egiten omen zuten eta laranjak gabe saltzen zituzten. Hala ere oso laranja gutxi ematen zizkiguten. Jeneroa dendetan saltzen zuten, gauza batzuetarako kartilla beharrezkoa zen, eta orduan ilara gorde behar genuen.

Bestalde, babak marmitan gordeta ekartzen genituen. Marmita erdia, behealdea, babaz beteta eta gainontzekoa esnez beteta. Horrela, zubian gelditzeko agintzen zigutenean eta astoa erregistratzen zutenean, ez zuten ezer aurkitzen. Nafarroatik kamioiak iristen zirenean, hauek kamioiaren egitura egiterakoan hodiak sartzen zituzten, eta hodi horien barruan garia ekartzen zuten.

Gose garaian, arrantza gutxi

Gerra hasi zenean Zumaian 3 edo 4 txalupa besterik ez zeuden arrantza egiten zutenak. Kaia oso arriskutsua zen eta oso familia gutxi bizi ziren arrantzatik.

Kontrabandoa itsasotik sartzen zen

Garai hartan kontrabandoa itsasotik sartzen zen, itsasoa bare zegoenean. Iristerakoan kaxak hartu eta baserrira eramaten zituzten. Behin baserrian, gurdiak kargatu eta herrira ekartzen zituzten. Gerraostean herrian eskasia handia zegoen eta tailerretan ez zegoen ordezko piezarik. Gu ez ginen ezertaz jabetzen, gero izan genuen kontrabandoaren berri.

Osa Elosua, AKELINO



<https://ahotsak.eus/zumaia/hizlariak/akelino-osa-elosua/>(ahotsak.eus, 2008).

Zumaiatik Frantziarako bidea

Herritik kanporatu gintuzten. Aitak lubakiak egitera alde egin zuen eta berarekin batera bi seme-alaba zaharrenak, zaintzearen aitzakiarekin. Ama eta lau anai-arreba txikienak gelditu ginen herrian. Karlistak etorritakoan Zumaiatik alde egin behar izan genuen. Zumaiatik kamioi batean atera ginen Debako bidean. Debatik oinez jarraitu genuen, itsasbazerretik, Mutriku eta Ondarroa pasa, Lekeitiora iritsi arte. Ondarroatik pasatu ginenean, zubia puskatuta zegoen eta gudariek lagundu ziguten alde batetik bestera igarotzen. Eskutik eraman gintuzten alde batetik bestera. Lekeitiora iristerakoan ogi beltza eman ziguten, egun batzuk pasa genituen bertan eta bukaerarako ogi beltza gogoko eta guzti genuen.

Lekeitiotik Amorebietara joan ginen, Amorebietatik Areetara. Aleman baten etxean egon ginen bere txaletean egun batzuk pasatzen, jateko intxaurrak eta babak zituen. Areetatik Getxora, Getxotik Portugaletera, Portugaletetik Santoñara, bertan 3 hilabete egon ginen, Santoñatik Santanderrera. Santanderren ahal izan genuen lekuetan egin genuen lo, eta azkenean kaian zegoen itsasontzia hartu eta Frantziara joan ginen.

Frantziara iristerakoan, gosearen gosez, gazta eta menbrilloa eman ziguten jateko. Nik 8 edo 9 urte nituen eta horrenbeste gazta eta menbrillo jan nuen, gero botaka ibili nintzen.

Porta Gonzalez, MIREN KRISTIN



Gure osaba Akelino Osa Elosua zen, 1930ean jaioa. Herritik bota zutenean 7 urte besterik ez zituen. Zumaiatik bota zituztenean Durangoraino oinez joan behar izan zuten. Durangora iritsi zirenean, bertan emandako ogi beltzaz gogoratzen zen. Inoiz ez zuela horrelako ogirik ikusi komentatu zigun. Nahiz eta gosez egon, oso txarra zegoela kontatzen zuen. Bitartean, Durangon zeudela, bere ama Gernikara joan zen azoka eguna zela aprobetxatuz. Egun horretan, ordea, bonbardaketa pairatzea egokitu zitzaion, baina zortea izan zuen eta bizirik atera zen. Durangotik Santanderrera joan ziren. Santanderren 3 edo 4 egun baino ez ziren egon, itsasontzia etorri zen arte. Itsasontzia iritsi zenean, Frantzia aldera atera ziren.

Frantzian ogi zuria jateko aukera izan zuten, eta horrenbesteko grinarekin jan zuen, gaixotu egin zen. Frantzian 4 edo 5 urte igaro zituzten. Bertan, lehenengo egunak ospitale batean bizitzen eman zituzten. Zumaiara itzuli zirenean, ezin izan zuten beren etxera bueltatu, galduta baitzegoen. Horren ordez, aitonaren etxean egon behar izan zuten.

Sasiain Manterola, JOSUNE



Frankistak iritsi zirenean, gure ama eta aita atzerrira joan behar izan ziren nazionalistak ginelako eta frankistak beti gure atzetik ibiltzen zirelako. Gorroto handia zuten, baina nik ez dut behin ere inoren kontra egin. Bakoitza nahi duen bezalakoa da, behar den gauza bakarra errespetua da, besterik ez.

Denak joan ziren, alde batetik nire ama bi koinatekin, eta beste aldetik beste koinata, liburuan idatzita dagoena: Ines Sasiain. Izeba Pepa, izeba Maria Luisa eta nire ama, hirurak joan ziren beren umeekin, eta esaten zuten, kamioi zahar batean eraman gintuzten eta euria ari zuenez busti-busti egin ginen eta bustita iritsi ginen Bilbora. Gero, Bilbotik Lekeitiora eraman gintuzten eta bertan gelditu ginen. Egun batzuk igaro ondoren, Bilbo bonbardatu zuten.

Egun bat edo bi pasata itsasontziz Frantziara joan ginen eta han oso ondo hartu gintuzten. Txalet handi bat zen eta hango jendea ezagutzen genuen, beraz, ez zeuden gaizki esanak, ezta gorrotorik ere. Orain baino gehiago joaten ziren gazteak elizara, eta guk denok elizara joan ginen, jendeak esaten zuten: *“Pues esos no son malos, porque van a la iglesia”*. Denbora pasatuta, berriz hona bueltatu ginen.

Nik uste dut dena gorrotoagatik izan zela, elkarren arteko gorrotoa, ez dago beste arrazoirik, zer irabazi genuen ba? Borrokan ibiltzea, besterik ez. Ondo oroitzen naiz ondoren etorri zen miseriaz. Miseria handia pasa genuen. Hamaika urterekin hasi nintzen lanean, eta harrezkero lanean jarraitu dut. Estraineko antxoak fabrikari hasi nintzen lanean, gero, hamazazpi urterekin edo, Ortizera joan nintzen lanera, eta gero Pepitarekin (*gure aldamenean bizi zena*) hasi nintzen zerbitzatzen Eibarreko Txominenean. Hortik aurrera beti lanean, batean edo bestean, baina beti pozik, dirua ekartzeagatik pozik.

Guardia Zibilak beti gure atzetik zeuden abertzaleak ginelako eta gure amari ilea moztu zioten. Consuelo eta Carmen Li-gorionekoa eraman zituzten, soldaduek Amaya Hotelean utzitako zikinkeria garbitzera, komunak eta abar garbitzera behartu zituzten. Gero, nire amaren bila etorri ziren bi guardia zibil edo bi eskolta, eta esan zioten: *“¿Jesusa Manterola?”*, eta amak: *“Si”*, eta erantzun zioten: *“va a venir usted con nosotros”*. Horrela, joan zen eta Venantzio bizarginak esan zion: *“Jesusa ilea moztu behar du”* eta guardia zibilek esan zuten: *“hable usted en cristiano porque no le entiendo lo que usted dice”*, eta amak esan zuten: *“moteil moztu ezak, moztu nahi badute, moztu ezak”*. Ilea moztu zioten, eta jendeak barre egiteko plazari bi buelta ematera behartu zuten. Mendekua, horrekin ez baitzuten ezer irabazten. Harrezkero, Jesusa “Rapa” deitzen zioten.

Zergatik izen hori?

Nik uste dut ilea moztu ziotelako izango zela. Gerra pasa ondoren ere, miseria handia pasa genuen, inork ez zuelako lanik ematen.

Amari isuna jarri zioten. Zergatik?

Balkoitik niri Josune deitzeagatik, euskaraz. Bai etxean bai kalean Josune deitu didate beti. Nik ez dut behin ere ez Maria Jesus entzun, nortasun-agirian izan ezik. Orain, Miren Josune deitzen didate, baita nortasun-agirian ere. Periko Trueba, epai-

leak, amari 50 pezetako isuna jarri zion balkoitik Josune deitzeagatik. Gure etxean ez zegoen dirurik; beraz, ama mailegu-emaile batengana jaitsi zen, haiek abertzaleak ziren eta, baina dirurik ez zuten, ez zuen ordaindu. Urteak pasatuta Zestoara joan nintzen neskame, eta nire nagusia Perikoren semea zen: Jesus Trueba. Hori dela eta, bere aita etxera etortzen zenean, ogitarteko bat prestatu behar nion ardoarekin. Larunbat batean, etxera bueltatzean, nire amak galdetu zidan zein zen nire nagusia, eta erantzutean amak esan zidan: *"kabroi zikina, hori da balkoitik deitzeagatik multa eman zidana eta orain zuk bokadiloa ematen diozu"*. Astelehenean, lanera joan nintzenean, Perikori galdetu nion ea nire ama ezagutzen zuen eta baietz esan zidan, handik aurrera ez zen berriro etorri. Bere semeak galdetu zidan, zergatik bere aita ez zen etortzen eta nik gertatu zena kontatu nion. Ez nuen Periko berriro ikusi, nahiz eta bere seme-alabekin tratatu ona izan.

Nik ez dut behin ere gauza txarrik egin, haiek errespetatu ditut eta haiek ni errespetatzea nahi dut. Ez dut inongo gorrotorik. Sasoi batean ni baino gehiago ziren, baina orain haien pare naiz.

Nire ama emakume gogorra zen, oso gogorra. Ederrak pasa zituen, 80 urte egin zituenean esan zidan: *"hau dun pena daukadana Josune, 80 urte, beste gauza batean pentsatu behar dut"*, eta nik zer pentsatu behar zuen galdetu nion eta erantzun zidan: *"orain ezereen faltarik ez, eta egin beharrak"*.

Gure aitak ez zuen hitz egiten gerrari buruz. Amak bai, honek berean jarraitzen zuen.

Uranga Linazisoro, ALBERTO eta KONTXITA



Baleike aldizkaria 173. zk. 2009

Aitaita jaietan mezatarra joaten zen. Beheko Plazako Zelaieneko etxearen bueltan Zumaiako erreketek egoten ziren bere zain, hura zirikatzen nahian: *“Joxe Manuel! Republikano! Esan gora republika!”* Eta hark: *“Gora Republika! Republika hemen! Ez zuek! Zuek muskiroso zikin hoixek ez dakizue ezer eta!”*. Aitaita hartu eta barrura sartu zuten, Behako plazako etxean bertan. Gure Iñaki eta Manolo Iturri joan ziren haren bila eta ekarri zuten bueltan.

Beste jaiegun batean, meza nagusira joan eta handik bueltan, berriro ere han zituen bere zain denak. Oraingoan ere zirikatzen hasi eta aitaitak erantzun. Eta oraingoan berriro ere, aitona barrura. Etxean ama negarrez, Iñaxio iristerakoan gertatutakoa kontatu zion. Honek Iñakiri eta Manolori deitu zion, Iñaxiok sega hartu eta beste biek igitai bana eta hara abiatu ziren. Han zeudenak zumaiarrak ziren eta hauek ikusterakoan: *“Hi! Olazar segakin zetorrek!”* *“¿Qué estás diciendo?”*, buruzagiak, *“Ese es capaz de pasarnos con la siega a todos! ¡Saca, sácale al viejo”*. Aitona egun osoa ezer jan gabe zeraman eta etxera eraman zuten besoetatik helduta.

Handik gutxira militar bat etorri zen etxera eta amarekin hitz egiten egon zen. Haren aita errepublikanoa zen eta nazionalak hil zuten. Zumaiako erreketek gazteek zer zuten ez zekiela esan zioan amari, baina mesedez aitaita etxetik ez uzteko ateratzen eskatu zion. Aitaita ez zen Zumaiara itzuli. Amak egunero pinta-erdi ardo ekartzen zion eta pinta-erdi horretatik, baso bat ardo osaba Juanek hartzen zuen jaiegunetan.

Urbietta Albizu, CLARA



<https://ahotsak.eus/zumaia/hizlariak/klara-urbietta-albizu/>(ahotsak.eus, 2009).

Gerra hasi zenean 12 urte nituen. Errazionamendua iritsi zenean ez ziguten asko ematen, arrosa eta garbantzua. Lo egiteko lekurik ez genuen eta lagunak etxean egiten genuen lo. Gosaltzera eta bazkaltzera jantoki batzuetara joaten ginen, gosaltzeko esne arrosa eta bazkaltzeko arrosa edo garbantzua. Afaririk ez zegoen.

Oso bizimodu gogorra zen.

Urbietta Zinkunegi, FAUSTINO



[https://ahotsak.eus/zumaia/hizlariak/faustino-urbietta-zinkunegi/\(ahotsak.eus, 2009\).](https://ahotsak.eus/zumaia/hizlariak/faustino-urbietta-zinkunegi/(ahotsak.eus, 2009).)

Gogoan al duzu gerra garaia?

Gerra hasi zenean 12 urte nituen. Ez genuen goserik pasatu, tomatea eta bakailaoa lortzen genituen itsasontziak deskargatzerakoan. Deskargatzen eta fabrikara eramaten laguntzen genien eta bidean baten bat hartzen genuen beti. Gainera, azienda genuen eta gurasoek noizean behin zerri bat hiltzen zuten. Olagarroa eta boniatoak izaten genituen baita ere. Boniatoa labean erreta jaten genuen eta nik gustukoa nuen. Behin aitak tailerretik ekarritako beste zerbait dastatu genuen, azalik gabekoa, Ameriketako patata zen! Errazionamenduarekin ogia ematen ziguten eta baita oiloa ere, horretarako kartilla behar genuen.

Etxean zerriak eta esne behiak izaten genituen. 10 anai-arreba ginen. Artoa egiten genuenean frankistak adi egoten ziren ea nondik atera zezaketen zerbait, baina ez zuten sekula ezer ere ez aurkitu gurean. Falangistak ahal zuten guztia konfiskatzera etortzen ziren beti.

Yeregi Salegi, IRENE



<https://ahotsak.eus/zumaia/hizlariak/irene-yeregi-salegi/>(ahotsak.eus, 2008).

Gerra garaian oso irratia gutxi zeuden, karlistak sartu zirenean guri irratia kendu ziguten, eta gure osabari ere bai. Aldamene-ko etxe bat hartu zuten eta gure irratia hara eraman zuten, etxetik gure irratia ikusten genuen etxe haren egongelan. Osabarena Beheko plazara eraman zuten.

Tropak sartu zirenean osabak alde egin zuen badaezpada ere, baserri batera joan zen. Izebak bitartean, kapitain bat hartu zuen etxean. Guk ez genuen halakorik hartu baina izebak bai. Egun batzuetan egon zen bere etxean eta gogoan dut baratxuri-zopa oso gustuko zuela. Kapitain hura eta gainontzeko guztiak alde egin zutenean, herriko karlistak gelditu ziren, nahi zutena egiten herriaren jaun eta jabe.

Zer egiten zenuten bonbetatik babesteko?

Bonbardaketak hasten zirenean bodega batean gordetzen ginen denok. Bonba handia eroriz gero ez dakit zer gertatuko zen, baina bodegan sartzen ginen hala ere. Herrian ez ziren bonbak erori, kaian bai, ordea.

Zendoia Uranga, KARMELO



Baleike aldizkaria 159. zk. 2007

Gerra garaiko gauza gutxi ditut gogoan, soldaduak toki guztietan zeuden, bueltaka. Gogoan dut Zubitxikia bota zutenekoa. Guardia Zibila etxera etorri zitzaigun etxetik atera behar ginela esanez, zubia bota behar baitzuten. Etxetik alde egin eta Álvarez praktikantearen etxe azpiko bodegan sartu ginen, gure etxetik 70 metrora. Zubia bota ondoren, gure etxea ere botata egongo zela pentsatu genuen, baina iristerakoan osorik zegoela ikusi genuen, utzi bezala.

Gogoan dudan hurrengoa 1940-41ean pasatutako gosea da, ez genuen jatekorik ezer eta gose galanta pasatu genuen.



Iturriak eta Bibliografia

Fuentes y Bibliografía

or.

ARTXIBATEGIAK / ARCHIVOS

- Aranzadi Zientzia Elkarteko Artxibo Orokorra / Archivo General de la Sociedad de Ciencias Aranzadi
- Archivo General Militar de Guadalajara.
- Archivo Militar de El Ferrol (AIRMN)
- Bizkaiko Artxibo Historiko Probintziala (BAHP) / Archivo Histórico Provincial de Bizkaia (AHPB)
- Erkibe kultur elkarteko agiritategia / Archivo de Erkibe kultur elkarte
- Estatuko Boletin Ofiziala / Boletín Oficial del Estado.
- Euskadiko Artxibo Historikoa (EAH) / Archivo Histórico de Euskadi (AHE)
- Fundación Popular de Estudios Vascos.
- Gipuzkoako Artxibo Historiko Probintziala (GAHP) / Archivo Histórico de Provincial de Gipuzkoa (AHPG)
- Sabino Arana Fundazioa / Fundación Sabino Arana
- Zumaiaiko Udalaren Artxibo Historikoa / Archivo Histórico del Ayuntamiento de Zumaia

EGUNKARIAK / PERIODICOS

ABC; El Día; El Diario Vasco; Eguna; Euzkadi; El Imperio; Frente Popular; La Voz de España; La Vanguardia; Unidad, Gipuzkoarra, El Día, Diario de Navarra

AHOZKO ITURRIAK / FUENTES ORALES

José María Setién Donostiako gotzainaren hitzak, 1988an "Catolicismo vasco..." bere liburuaren aurkezpenean esandakoak./ Palabras del obispo de Donostia, José María Setién, en la presentación pública del libro "Catolicismo vasco...", 1988.

BALEIKE aldizkaria, "Gure Zumai zarra" atala, Abelin Linazisoro Azkue 2004-2009 bitartean egindako elkarrizketak, Baleike kultur elkartearen www.baleike.eus gunean bilduak. / Revista BALEIKE, sección "Gure Zumai zarra", entrevistas realizadas por Abelin Linazisoro Azkue entre 2004 y 2009, recopiladas en la web www.baleike.eus de Baleike kultur elkarte.

AHOTSAK.EUS egitasmoa, 2007-2012 bitartean egindako elkarrizketak, Badihardugu euskara elkartearen www.ahotsak.eus/zumaia gunean bilduak. / Proyecto AHOTSAK.EUS, entrevistas realizadas entre 2007 y 2012, recopiladas en la web www.ahotsak.eus/zumaia de Badihardugu euskara elkarte.

Aipamenik ez duten elkarrizketak liburu honen egileak egindakoak dira. / El autor de esta obra ha sido el que ha realizado las entrevistas que no tienen referencia.

ELKARRIZKETATUAK / ENTREVISTADOS

- Aizpurua Chapartegui, EDURNE
- Albizu Gomez, MARGARI
- Albizu Irigoien, LORE
- Beobide Arburua, JOSEBA
- Bidasoro Blasco, TRINI
- Egaña Etxabe, JUAN
- Etxabe Oliben, BARTOLO
- Etxabe Udabe, JOXE
- Gorostola Iribar, BITOREN eta MARIA LUISA
- Iruretagoiena Illaramendi, KARMEN
- Linazisoro Azkue, ABELIN eta Garate Elosua, ANA MARI
- Manterola Amas, MARIA JESUS
- Manterola Galdona, ERRAMUN
- Osa Arrizabalaga, ADORA
- Osa Arrizabalaga, ANGEL eta XANTI
- Osa Elosua, AKELINO
- Porta Gonzalez, MIREN KRISTIN
- Sasiain Manterola, JOSUNE
- Uranga Linazisoro, ALBERTO eta KONTXITA
- Urbietta Albizu, CLARA
- Urbietta Zinkunegi, FAUSTINO
- Yeregi Salegi, IRENE
- Zendoia Uranga, KARMELO

BIBLIOGRAFIA / BIBLIOGRAFÍA

- Aguirre y Lecumbe, J.A., 1936. Entre la libertad y la revolución, 1930-1935. Talleres Gráficos E. Verdes Achirica, Bilbao.
- Aguirre y Lecumbe, J.A., 2007. Ideología y estrategia del Gobierno de Euzkadi durante la Segunda Guerra Mundial a través de la correspondencia de José Antonio Aguirre y Manuel Irujo. Fundación Sabino Arana, Bilbao.
- Aizpuru Murua, M.X., 2000. El Partido Nacionalista Vasco en Guipúzcoa (1893-1923): Orígenes, organización y actuación política. Universidad del País Vasco, Bilbao.
- Aizpuru, M. (Dir.), 2007. 1936ko udazkena Gipuzkoan: Hernaniko Fusilatzeak. Alberdania, Irún.
- Barandiaran Contreras, M., 2001 Abertzaleak Zumaian: ibildide [sic.] luze baten arrastoan Erkibe Kultur Taldea, Sabino Arana Kultur Elkargoa, Bilbo.
- Barruso, P., 2002. Verano y revolución. La Guerra Civil en Guipúzcoa. En: Gipuzkoa 1936. Disponible en: <http://www.gipuzkoa1936.com/verano3.php>.
- Barruso, P., 2005. Violencia política y represión en Guipuzcoa durante la guerra Civil y el primer franquismo (1936-1945). Hiria, Alegia.
- Buces Cabello, J., 2014. Leioa 1936-1945. Aranzadi Zientzia Elkarte, Donostia.
- Chiapuso, M., 1977. Los anarquistas y la Guerra de Euzkadi. La Comuna de San Sebastián. Txertoa, Donostia.
- De la Granja Sainz, J.L., 2007. El oasis vasco: el nacimiento de Euzkadi en la República y la Guerra civil. Tecnos, Madrid.
- Egaña, I. (Dir.), 2000. 1936, Guerra Civil en Euskal Herria. 8 v. Aralar Libururuak, Andoain.
- Egaña, I., 2011. 75 años de la barbarie franquista. Gara 2011-11-11. Disponible en: <https://gara.naiz.eus/papezkoa/20110911/290086/es/75-Anos-barbarie-franquista>
- Egaña, I., 2012. Ondarreta: Gezalaren kartzela = La cárcel del salitre. Aranzadi Zientzia Elkarte, Donostia.
- Errazkin Agirrezabala, M. et al., 2009. 1936ko Gerra Euskal Herrian: Historia eta memoria. Udako Euskal Unibertsitatea, Bilbo.
- Errazkin, M., 2013. Los nombres de la memoria, Tolosa 1936-1945. Aranzadi Zientzia Elkarte, Donostia. (Tolosaldea historia bilduma, ISSN 1579-6299; 17).
- Esnal Osa, P., Blanco Aristondo B. eta Esnal Albizu J., 2016 Oraindik Atzo Erkibe Kultur Taldea, Zumaia.
- García Santos, J.F., 1980. Léxico y política de la Segunda República. Universidad de Salamanca, Salamanca.
- Irigoyen Artetxe, A., Álvarez Gila, O., 2004. De la influencia de la diáspora nacionalista en un requeté navarro o la historia de un bertsolari que le cantaba a sus vacas (1909- 1997). Litterae vasconicae: euskararen lker atalak 9, 155-186
- Iturain Azpiroz, I., 2014. 1936ko gerraren ubera Orion: "Gerra bat barruan degula". Orioko Udala, Kultura batzordea, Orio.
- Moreno Seco, M., 2003. La política religiosa y la educación laica en la Segunda República. Pasado y memoria 2, 83-106.
- Rodríguez de Coro, F., 1988. Catolicismo vasco. Entre el furor y la furia (1931-1936). Cuadernos de Sección, Historia 9. Eusko Ikaskuntza, Donostia.
- Sabin Rodríguez, J.M., 1997. La dictadura franquista (1936-1975): textos y documentos. Akal, Madrid.
- Sánchez Erauskin, J., 1998. El nacionalcatolicismo como instrumento cultural y legitimador del franquismo en el País Vasco (1936-1945). Vasconia 27, 235-244.
- Urgoitia, J.A., 2002. Crónica de la Guerra Civil de 1936-1937 en la Euzkadi Peninsular. Sendoa. Oiartzun.
- Vargas Alonso, F.M., 2002. Guipuzcoanos en las milicias de ANV durante la Guerra Civil (1936-1037). Bilduma 11, 81-108.
- Vargas Alonso, F.M., 2002. Los Batallones de los Nacionalismos Minoritarios en Euzkadi: ANV, EMB, STV (1936-1937). Vasconia 32, 517-547.

Ikerketa-taldeak Zumaiari buruz eman daitekeen informazio oro eskertuko luke. Argazkiak, eskutitzak, agiriak eta bestelakoak oso erabilgarriak izango litzaizkiguke pertsonen historiak berreraikitzeke eta gure herriak pairatu zuen giza tragedia hari argi gehiago emateko.



El equipo de investigación agradecería toda aquella información que pueda proporcionarse sobre Zumaia. Fotografías, cartas, documentación, etc., nos serían muy útiles para reconstruir historias de personas y para dar más luz a aquella tragedia humana que sufrió nuestro pueblo.

[www. aranzadi.eus](http://www.aranzadi.eus)



Zumaiako Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

Diputatu Nagusia

Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusia
Dirección General de Convivencia y Derechos Humanos

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

LEHENDAKARITZA

Bakegintza eta Bizikidetzarako
Idazkaritza Nagusia
Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritza

PRESIDENCIA

Secretaría General para la Paz
y la Convivencia
Dirección de Víctimas y Derechos Humanos



SOCIEDAD DE CIENCIAS
SCIENCE SOCIETY
SOCIÉTÉ DE SCIENCES